

# ttipi-ttapa



## «MIRU GORRIA ZERRENDA GORRI GUZIETAN AGERI DA»

Aurten ere miru gorrien errolda egin du Gorosti elkarteak Nafarroan. Horren arabera, 2.000 miru gorri baino gehiagok pasatu dute negua, tartean, eskualdeko hainbat herritan. Babestutako espezie honen errolda egiten aritu da Leire Paz Leiza aranztarra ere, bertze hainbat boluntariorekin batera. / 7

## Bollo Topaketak Leitzan

Euskal Herri osotik etorritako bollera eta genero disidenteen topaketak egingen dituzte Leitzan apirilaren 26tik 28ra. / 53

### SINADURAK



ZOZKETA / 76



SERGI PARAMÉS

**Itsaso Elizagoien Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari** / 10



UTZITAKO ARGAZKIA

**BRT errugbi taldearen ibilbideaz Asier Arretxea eta Markel Adinekin** / 56

**Kirol ikasketak neskentzat ere badirela erakutsi dute** / 13

**Nafarroako 4x4 sokatira txapelketa Donezteben hasiko da apirilaren 14an** / 67

# BERA LESACA

## Agenda 2024

APIRILA

www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus

<p style="font-size: 0.8em;">APIRILA</p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">5</p> <p style="font-size: 0.7em;">ORTZIRALEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>KONTZERTUA NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">19:30 Kultur Etxea   10 €</p>	<p style="font-size: 0.8em;">21</p> <p style="font-size: 0.7em;">IGANDEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>DOKUMENTALA LAB 50. URTEURRENA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">1974-2024 SABARTEAN</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">11:00 Hiriako Kultur Etxea Antolatzailea LAB Sindikatua</p>	<p style="font-size: 0.8em;">27</p> <p style="font-size: 0.7em;">LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>MERKATU TTIKIA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">18:00-14:30 Beheko Plaza</p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 5px 0;"><b>HAURREN EGUNA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">16:30</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Antolatzaileak irain eta Tantarumairu ikastetxerako guruzo elkarteak</p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 5px 0;"><b>DNA DANTZA IKUSKIZUNA</b></p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>DINAMO DANZA "LUZ NEGRA"</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">19:00 Hiriako Kultur Etxea</p>
<p style="font-size: 0.8em;">13</p> <p style="font-size: 0.7em;">LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">10:30-13:30 Berakodeta</p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 5px 0;"><b>DOKUMENTALA 212 MOUNTAINS</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">(LUIS ARRIETA ETXESERRA)</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">19:00 Kultur Etxea   Antolatzailea Mantale</p>	<p style="font-size: 0.8em;">23</p> <p style="font-size: 0.7em;">ASTEARTEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>IPUIN KONTALARIA PRINTZE GILTZAPETUA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">17:30 Lesakako Liburutegia</p>	<p style="font-size: 0.8em;">27</p> <p style="font-size: 0.7em;">LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>AZIENDA ERAKUSKETA FERIA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Goizean zehar</p>
<p style="font-size: 0.8em;">14</p> <p style="font-size: 0.7em;">IGANDEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>BERAKO MENDI MARATOI ERDIA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Argibideak www.mantale.com</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Antolatzailea Mantale</p>	<p style="font-size: 0.8em;">24</p> <p style="font-size: 0.7em;">ASTEAKENA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>KALEAN MUSIKA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">17:00 Toki Onako patioa</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Antolatzailea Isidoro</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Pagoaga Udal musikako eskola</p>	<p style="font-size: 0.8em;">27</p> <p style="font-size: 0.7em;">LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>ELKARTEAREN EGUNA LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA</b></p>
<p style="font-size: 0.8em;">19</p> <p style="font-size: 0.7em;">ORTZIRALEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>LIBURU AURKEZPENA MEJOR MUERTO</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">(SUSANA RODRIGUEZ)</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">18:00 Herri Liburutegia</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Antolatzaileak Iyone liburu-denda, HarperCollins argitaletxea eta Berako Herri Liburutegia</p>	<p style="font-size: 0.8em;">26</p> <p style="font-size: 0.7em;">ORTZIRALEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>LITERATURA GERALDIAK</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">CONFERENCIA BEATY SARASOLA</p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>LITERATURA EUSKARAZ GAUR EGUN</b></p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">18:30 Lesakako Liburutegia</p>	<p style="font-size: 0.8em;">28</p> <p style="font-size: 0.7em;">IGANDEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>KONTZERTUA ORGANO (OSCAR CADENOT) ETA TRONPETA (MIKEL GALARRI) KONTZERTUA</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">18:30 Tourneko San Martin Parroikia</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">Ant. Lesakako Roque Organoren Lagunak</p>
<p style="font-size: 0.8em;">20</p> <p style="font-size: 0.7em;">LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>HELDUEN IKUSKIZUNA TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA</b></p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESACA</p>	<p style="font-size: 0.8em;">26</p> <p style="font-size: 0.7em;">ORTZIRALEA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p>	<p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>ANTZERKIA</b></p> <p style="font-size: 0.8em; margin: 0;"><b>HAMELIN Y ALADDIN, 2 CUENTOS EN TRAMPOLIN</b></p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">(LEKANE ZENTRIBIA)</p> <p style="font-size: 0.7em; margin: 0;">19:00 Kultur etxea</p>		

## Ostatu - Jatetxea

Zure jatetxe edo ostatuko diseinuarekin KARTELAK, SEGURTASUN MATERIALAK, MENUJAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK, etab. pertsonalizatzen ditugu

**KULTURKARI**  
Diseinu grafiko | Publizitatea

### SEGURTASUN MATERIALAK

- Segurtasun maskarak, maskarak, pantailak zure irudiarekin pertsonalizatuak.

### ROLL-UP

- Aprobetxatu roll-upak MENUJA edo mezuak idazteko. Pertsonalizatu Neurriak aukeratu Irudi eta eramanerako errazak

### KARTELAK

- Aprobetxatu kartelak MENUJA idazteko.

### MAHAI-OIHALAK

- PAPEREZKO ERABILERA BAKARREKO MAHAI-OIHALAK Bezero bakoitzari berea jarri eta bukatzerakoan botatzeko.
- PLASTIKO edo PVCkoak, garbitzeko eta DESINFEKTAZIBERO errazak.

### GAUZA GEHIAGO

**PAPEREZKOA**  
Pertsonalizatua  
A3, A2, A1 neurrikoak

**FOREX**  
Pertsonalizatua  
Desinfektazibero erraza

**PROPILENOZKOA**  
Pertsonalizatua  
Desinfektazibero erraza

**KRAFT PAPEREZKOA**  
Pertsonalizatua | A3 neurrikoak  
Paper birzikalgarria  
Erabilera bakarretikoa

**PAPEREZKOA**  
Pertsonalizatua | A3 neurrikoak  
Paper birzikalgarria  
Erabilera bakarretikoa

**PERTSONALIZATUA**  
Aprobetxatu mahai-oihalak menu idazteko  
Erabilera bakarretikoa

**KAPSULATUAK**  
Pertsonalizatua  
A3 neurrikoak  
Desinfektazibero erraza

**PLASTIKOAK**  
Pertsonalizatua  
A3 neurrikoak  
Desinfektazibero erraza

**PVCkoak**  
Pertsonalizatua  
A3 neurrikoak  
Desinfektazibero erraza

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
Koskontako bidea, 7-1 - LESACA · Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@tipi.eus · www.kulturkari.com

2 ttipi-ttapa | 851. zk. | 2024-04-04



NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

## Bertsolarien frustrazioa

Berto eskolan izena eman. Bertsotan egiten ikasi (ustez behintzat). Eskolartekoetan kantatu. Gazte sariketetan parte hartu. Agian, bakarren bat irabazi. Zure herrialdeko txapelketan izena eman. Finalen batera iritsi. Jendeak ari zarela ikusi. Lehen plazetako deiak jaso. Saio ederra egin eta horrek oraindik eta plaza gehiagotan abesteko aukera ekarri. Herrialdeko txapelketan txapela irabazi. Bertsolari Txapelketa Nagusian finalera iritsi. Plazaz plaza nahi adina ibili... Zer uste duzu, hori dela bertsolari guztiek egiten duten/dugun bidea? Ez.

Hori denok nahiko genukeena da. Honek ez du horrela funtzionatzen. Baten bati horrela joan dakioke, noski, baina orokorrean eustean datza bertso bidea. Batez ere, plazarako aukerei dagokienez. Gero eta

gehiagotan entzuten dira nahi adina bertso saio egiten ez dituzten bertsolarien kezak. Baina hau ez da futbola, ez dago urte osoko ligarik. Hemen, edo antolatzaileek nahi zaituzte, edo hor konpon. Zein da denok kantatzeko aukera izateko bidea? Agian, auto antolakuntza. Edo oso ona izan. Bera ez badator, agian, guk joan beharko dugu bere bila. Zain egoteak ez dakar fruiturik.

«HEMEN, EDO  
ANTOLATZAILEEK  
NAHI ZAITUZTE,  
EDO HOR KONPON»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Harro herri, harri-garri!

Harro herri, harri-garri, korri arin, Irun-Erro, irun hari, Bera-Berriz, behera berriz, gora larri, gero bero, aro berri, oro irri, hiri orro, harri gori, hare arre, arrain sare, orri zuri, arrats gorri, euri urri, ur egarri, gari lerro, lurrin guri, barre bare, zirri ziri, harat hiri, herren gara, horra garra, erre ere, arren ari, sari sarri: nire, zure, gure urre..., hurrup zuri!

## NABARMENTZEKOAK



ALIZE  
SAGARDUI  
GOIZUETAKO PILOTARIA



BENITO  
TAINTA  
LESAKAN OHORATUA

Master Laboral Kutxa txapelketako txapel morea lortu zuen martxoaren 17an Arrasateko Uarkapen pilotalekuan. Gazte mailako finala irabazi zuen Uxue Gomezekin batera.

Urtetan Lesakako albiente eta pilota irakasle izan zenaren oroimenez lehen aldiz lau eta erdiko San Fermin pilota txapelketa antolatu du Arkupe pilotazale elkarteak.

## GIBELERA BEGIRA



2014-04-03 · TTIPI-TTAPA · 611 zk.

## Botileroekin beren jardunari buruz

Botileroak, pilotarien itzalean dauden ezinbertzeko osagaiak izaten dira, eta duela hamar urte lan horretan aritzen ziren hiru lagun elkarrizketatu zituen aldizkariak: Asier Olaizola, Asier Gartzia eta Mololo Irigoien. Hurrenez hurren Aimar Olaizolaren, Oinatz Bengoetxearen eta Abel Barriolaren botilero lanetan aritzen ziren. Beraien lana gehienbat «pilotaria lasaitzea» dela kontatu zuen Olaizolak: «Jokatzen ari dena askotan ez da konturatu urduri dagoela, eta kanpotik detaile horiek ikustea garrantzitsua da». Antzeko mintzatu zen Gartzia ere: «pilotariak ikusten ez dituen gauzak detektatzea eta adieraztea da gure lana», kontatu zuen. Irigoienek azaldu zuenez, berriz, pilotariak «pilotaz pixka bat jakitea eta konfiantza izatea» bilatzen zuten.

 ttipi-ttapa

erran.  
eus

TOKIKOM

**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemakalariak**  
Arkaiz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberriagarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**  
Paskual Rekalde  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

**2024ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi  
eta Malerrekako 47€  
Leitza 40€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 110€  
Amerika eta Australia 155€

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 mecna

 BAZTANGO  
EUSKARA

 BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA

 Malerrekako  
Mankomunitatea

 CC BY SA



## KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

## Herritarren eta hiritarren arteko arrakala

Nahiz eta herri ttiki batean bizi, gure eskualdean mugitzen garenok hiriarekin nahiko harreman hurbila dugula erran dezakegu, bai Donostiarekin bai Iruñearekin kasuan kasu. Itxuraz, egoera ezin hobea! Herriaren eta hiriaren abantailaz disfrutatzeke aukera paregabea!

Baina ez da beti horrela. Landa eremuan bizi garenontzat, bizi baldintzak aginduta, nahitaezkoa izaten da hirira joatea herriak eskaintzen ez dizkigun zerbitzuak nahi baditugu: ospitalera, unibertsitatera, aisialdiaz gozatzera...

Eta hementxe topo egiten dugu hiritarren eta herritarren arteko arrakalarekin. Edozein hitzordutara joateko (medikua, abokatua, administrazioa) autoa behar dugu, gidabaimena ere bai, eta hirian aparkatzea gurutze bidea bilakatu da bertan bizi ez garenontzat. Goi mailako ikasketak egin nahi baditugu bizitokia behar dugu, horrek dakarren gastu ikaragarriarekin. Kultura mailan hiri batean dagoen oparotasuna sekulakoa da (zinea, antzerkia, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak), auzo bakoitzak bere kultur etxea ere badu. Ez dut aipatu gabe utzi nahi, hirian, garraio publikoan mugitzeko dauden aukerak, laguntzak eta erraztasunak, behar-beharrezkoak iduritzen zaizkidanak,

### «**HERRI GUZTIETAN GUTXIENEO ZERBITZUAK BEHAR GENITUZKE**»

baina herri ttikietan existitzen ez direnak.

Eta, neurekoa naizela pentsa dezakezuen arren, konparazioak eginez, non dago ekitatea eta berdintasuna herrietako biztanleriak eta hirietako

biztanleriak eskura ditugun zerbitzuen artean? Batzuek eta bertezeek ordaintzen ditugun zergek ez al dute berdin balio? Lehen eta bigarren mailako herritarrez osaturiko gizartea sortzen ez ote gara ari?

Nahiz eta administrazio publikoen ahaleginak hor dauden, gaur egun landa eremuaren gabeziak nabarmenak dira. Goian aipatutako zerbitzuez gain, bereziki garrantzizkoa da Interneteko sarbiderako dauzkagun zailtasunak. Familiek, lantokiek eta ostalaritza guneeek behar-beharrezkoa dituzte kalitatezko komunikazio bideak Internet sarearen bidez.

Garapen jasangarrian, ingurunearen zaintzan, balio ekologikoen kontserbazioan, paisaian... horretan guztian ezinbertzekeak omen gara baserritarrak eta landa eremuetako biztanleak, baina susmoa dut, boto kopuru handienak hirietan daudenez, gutaz atzendu egiten direla. Herrietan bizi garenon bizi baldintzak hobetzeko proposamen errealak eskatu behar dizkiegu gure gobernuei. Herri guztietan gutxieneko zerbitzu batzuk beharko genituzte. Minimo horietaz gain, herri bakoitzerako hirietako baliabide berdinak izatea ezin da eskatu, baina gabezi horiek konpentsatzeko neurriak lagunduko lukete egoera parekatzen eta ezberdintasunak orekatzen.



ESTEBE APEZETXE MURUA

## Harrotasunez

Eman ditu azken urratsak Korrikaren 23. edizioak ere. Hamaika egun eta hamar gauetz Euskal Herriko errepedetan euskara aldarri izan duen uholdea ibili da. Oraindik datu guziak esku artean ez baditugu ere, erraten ahal da inoizko arrakastatsuen izan dela aurtengoa. Lasterka ibilitako jende kopuruan ez ezik, izan dituen atxikimendu anitzetan ere ikusi ahal izan da hori.

Zaila da Korrikaren fenomenoak sortzen dituen sentsazio eta sentimenduak hitzez azaltzea. Ezagutzen ez duen norbaiti segur aski erokeria irudituko zaio furgoneta baten gibeletik gau eta egun lekukoa eskuz esku pasatuz milaka lagun elkartzen direla ikustea, eta hori guti balitz, kilometroak erosi egiten dituztela jakitea. Baina hori du Korrikak. Gai da bistan denez euskaldun kontzientziatua hunkitzeko, baina baita euskara hain hurbil sentitzen ez duen horrengana ailegatzeko ere. Ruper Ordorikak bere kantuan aipatzen duen euskaldun izateak tarteka sortzen digun nekezia hori atzentzen laguntzen digu egun batzuetan behintzat; geure buruari egiten diogun opari baten gisakoa baita, batetik bertzeren pasatzen diren 720 egunetan borrokan segitzeko indarra ematen diguna.

Eta gaur astelehena biharamun, 720 horietatik

### «**LEKUKOA EGUNEROKOARI PASATZEKO MOMENTUA DA**»

lehendabizikoa, ezinez baino harrotasunez lehertzekoa. Zerutik lurrera jaitsi eta lekukoa egunerokoari pasatzeko momentua berriz ere. Korrika ailegatzeko zaien horiei guziei ailegatzeko momentua da, haiek gurera

hurbiltzekoa. Eta ez naiz euskaraz ez dakitenei buruz ari, ez, edo ez horiez soilik. Jakin bai, baina sobera (edo batere) erabiltzen ez dutenak dira gurera ekarri behar ditugunak. Hori lortzeko lehen pausoa egiten dugunaz eta garenaz harro egotea da, baikortasunetik egitea. Baionako mezuan irakurri zen bezala, trantsizioa emanen bada kolektiboa eta antolatua izanen baita, elkar zainduz eta bidea bizigarri eginez.

Ez dut idatzia akitu nahi eskualdean Korrika antolatzen aritu diren guzien lana azpimarratu eta haiei eskerrak eman gabe. Eta doike, kilometroak erosiz, laster eginez eta bertze edozein modutan lagundu duten guziei ere bai! Indibidualismoa gero eta handiagoa den garai honetan, badira harro sentiarazten gaituzten herritarrak oraindik! Biba zuek eta gora Korrika!

## 11 GALDERA LABUR

INTZA MUJIKA CLAVER ARANOKO GAZTEA

# «Ttikititik animalia artean bizi izan naiz»

## Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Izaera lasaia dut, ez naiz liskarretan sartzen den horietakoa. Neska lasaia naizela esanen nuke, pixka bat lotsatia. **Zer moduzkoa da ikasleen bizimodua?**

Arrunt gustura nago bizimodu honekin. Inguruan denak korrika ikusten ditut. Ni ere goiz mugitzen naiz eskolara joateko, baina goizez bakarrik ditut klaseak eta arratsalde osoa gelditzen zait lagunekin elkartzeko. Denbora libre asko dut eta horregatik dut gustuko ikasle bizimodua.

## Zein afizio dituzu?

Zaldi gainean ibiltzea eta ehi-zean ere ibiltzen naiz zakurrekin. Zaldi gainean ibiltzea ttikititik gustatu izan zait. Hiru

bat urterekin hasi nintzen poney gainean paseoak ematen. Sei urterekin hipika batean hasi nintzen eta orain ere, ahal dudanetan, joaten naiz. Txakurrak ere nire lagun eta jolaskide izan ditut ttikititik.

## Asteburuko planik hobereena?

Lagunekin parranda egitea.

## Animalia zalea omen zara. Non-dik heldu zaizu afizioa?

Ttikititik animalia artean bizi izan naiz eta oso lagun onak ditut. Gehienbat zaldi eta txakurrekin konektatzen dut.

## Lau hankeko bizidunekin moldatzea bikoekin baino errazagoa da?

Batzuetan bai.

## Zaldi gainean edo moto gainean, non ibiltzen zara gusturago?

Moto gainean ibiltzen naizean asko gozatzen dut, baina



nahiago dut zaldi gainean ibili.

## Zer du berezia Aranok?

Herri lasaia eta polita da eta denok elkar ezagutzen dugu hemen. Horrek giro berezia sortzen du.

## Gaztea izanik, zein behar ikusten dituzu herrian?

Garraio publikoaren beharra. Ez daukagu nahi dugunean mugitzeko aukerarik eta kotxea duen norbaiten menpe gaude beti. Janari-denda bat ere faltan botatzen dut herrian.

## Zerekin egiten duzu amets?

Herrian jende gazte gehiago izatearekin. Ez gara asko eta askotan bakoitza gure zereginetan sartuta ibiltzen gara eta elkartzeko aukerak ere gutxitzen dira.

## Zerk kentzen dizu loa?

Normalean ez dut lotarako arazorik izaten, baina urduritasuna eragiten duten egoerek eragina izan dezakete nire loan: zerbait gaizki dagoela jakiteak, zerbait berriari aurre egin beharrak...



1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Maindireak  
Toallak  
Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

**Berriztagarriei ezetz? Bai baina... Noren eskutik?**

IÑAKI SANCHEZ

MALERREKA BIZIRIK TALDEKO KIDEA

Berria egunkarian (2024/02/18) Aritz Otxandianoren eskutik *Trantsizio energetikoari ezetz?* artikuluan landa eremuko bailara eta herrietako lurretan jarri asmo dituzten poligono eolikoaren aurka aritzen diren (garen) plataformei buruz esandakoaren harira, hona neure burutazioak zenbait puntu argitu nahian.

Nago Otxandiano jaunak tiroa erratu duela. Eredu *desarrollista* eta txikitzaile batetik etorkizun jasangarri baterako ahaleginetan dabilen eremu soziopolitikoko zu bezalako aditu batek herri plataformak gutxietsi edota oztopotzat hartu? Trantsizioa ez al da parte hartzailea izan behar?

Bai, Otxandiano jauna, gu ere kezkatuta gaude lurraldearen eta planetaren etorkizunarekin. Energia kutsatzaileen zokoratzea ez dago eztabaidagai, baina afera larria da eta denon bizi baldintzak kolokan jartzen dituen giro batean murgiltzen ari garela ematen du. Mehatxuak hor daude (ingurugiroaren sunsiketa, aberastasunaren banaketa hiltzailea, agente makroekonomikoen bidegabekeria...) eta energiaren arloan irtenbideak bilatu beharrean gaude nahi eta nahi ez. Gaia konplexua da, dudarik ez, baina gu ez gatoz «erregai fosilen kapitalismo grisaren statu quo betikotzera», Otxandiano jauna. Egoera honetara ekarri gaituen kapitalismo basatiaren itxurak, berriro ere, sumatzen ditugu energia berriztagarrien garapen ero honen atzean ezkututzen den merkatu globalean. Garatu nahi dituzten proiektu erraldoi

horien atzean diru goseak eta etekin aseeginak daudela sumatzen hasi gara: euren zabalkundea ez da pertsonen eta komunitateen ongizatean oinarritzen: errentagarritasun ekonomikoa maskara berdez estali eta energia berriztagarrien izenean betiko negozioarekin jarraitu.

Ez, gu ez gara NIMBYak (*nimby= Not In My Back Yard*, «ez nire baratzaren atzeko aldean»). Guk ez dugu nahi besteentzat guretzat nahi ez duguna. Arazoa ez da poligonoen lokalizazioa, Otxandiano jauna, eredia baizik. Antzerki globalean mugitzen gara baina lekuan lekuko ekinbideak sustatu nahi ditugu. Pertsonak hurbileko espazioetan garatu ohi dituzte euren bizitzak (bai hirietan, bai landa eremuan). Espazio horien kudeaketa eta erabilpen moduek baldintzatzen dituzte gure bizitzak.

Makropoligono energetikoen aurkako gure jarrera ez da sortu irrazionaltasun edo erromantizismo bereko batetik. Bai, Otxandiano jauna, guk emozioak ditugu, zuk bezala, baina arrazoibideak ere bai. Gure ingurumarietan eraiki nahi dituzten (dituzuen?) proiektuak ekinbide arriskutsuak dira eta gure kritikak alderdi aunitzetatik sortzen dira: ikuspegi ekologikoa, baliabide naturaletan eta osasun-ondorio itzulgaitzak, eraginkortasun energetikoa, bideragarritasun ekonomikoa...

Arazo potoloak direla ezin uka eta zuk diozun bezala, poligono horiek ez zaizkigu inposatuko: beren hedapena modu zentzudun eta orekatuan egingo da... baina gure jarrera ere zentzuduna eta orekatua da: ez dugu «berriztagarrien hedapenaren aurkako posizio itxi eta erabatekoa» zuk diozun bezala. Trantsizio energetikoan herritarrek eta komunitate txikiek badute zer esan

(batez ere eremu ez urbanoetan) eta «gure posizio itxi eta erabatekoa» kapitalen nazioarteko funts eta enpresa erraldoi aseeginen energia berriztagarriekin burutu nahi duten negozio gupidagabearen aurka doa. Gurea bezalako herri plataformak batek debate publiko eta demokratikoa bultzatu nahi du eta erabakiak guk, herritar bezala, ezin ditugu merkatu eta enpresa diruzaleetako ingeniari «berdeen» esku utzi, ez eta politikari salbatzaileenetan ere.

Ez, Otxandiano jauna, gu ez gara ekosistema natural aberatsen «zaindaria». Guk ere mendien ustiaketa intentsiboaren kalteak ezagutu ditugu eta horregatik bestelako praktika politiko bat aldarrikatzen dugu, jasangarriagoa eta pertsonen lotuagoa. Jakin badakigu aldaketa sakonak egin ezean, ezin izango dugula lortu aurrera egin eta aldaketa horiek gure gizartearen bizimoduak inplikatzeko. Horregatik gure jarrera ez dago irudikapen bukoliko batean oinarrituta, badakigu orain arte bezala jarraitzeak hondamendira garamatzala, horregatik sortu ditugu herritarren plataformak: informatzeko, eztabaidatzeko, ekiteko eta arduraz jokatzeko.

Berriki irakurri ditut Giles Dicksonen (Wind Europe Europako patronal eolikoaren kontseilari delegatua) hitzak Europako Batzordeak onartu duen Pack Eolikoaren harira: «joko arauak gaurgero aldatu dira finantziario, enkante eta baimenei buruz. Dena bizkortu eta arinduko da parke eolikoaren inguruan». Ingurugiroarekiko begirunea arindu eta dirua parrastaka eskuratu politikarien eskutik. «Abiadura eta hazkundea» hitzak ezagunak egingo zaizkio Otxandiano jaunari. Negozio horretan ere jokatzeko du berak?

## IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@tppi.eus



948 63 54 58



Ikasketaz eta lanbidez biologoa da Leire Paz Leiza. Ttikitakit erakarri izan du naturak eta gaur egun ere horixe du pasio eta ofizio. Gorosti elkarte boluntarioa eta bazkidea da.

## «Eolikoak, argindar lineak eta pozoiak dira miru gorrien arrisku nagusiak»

**LEIRE PAZ LEIZA** GOROSTI NATUR ZIENTZIA ELKARTEKO BOLUNTARIOA

Bertze hainbat boluntarioekin batera, Gorosti elkarteak Nafarroan egiten duen miru gorrien eroldan parte hartzen du aranztarrak. Babestutako espezie honi buruzko hainbat jakingarri kontatu ditu

**G. PIKABEA** ARANTZA

Nafarroa osoko 24 herritan 2.000 miru gorrik baino gehiagok pasatu dute aurtengo negua, eta horien tartean hamarretik hiruk gure eskualdean bilatu du lotokia. Halaxe ageri da Gorosti natur zientzia elkarteak egindako kontaketa. 1992-1993 denboraldian hasi ziren Gorostikoak miruari buruzko datuak biltzen, eta 2000. urtean eman zituen segida. Geroztik urtero

egiten dute informazio bilketa ehun basozain eta boluntario baino gehiagoko lantaldeari esker. Europa mailako ikerketa izaten da, urte hasieran egun jakin batean moduko koordinatua egiten dutena. Tartean ibiltzen da Leire Paz Leiza aranztarrak boluntario. Ikasketaz eta lanbidez biologoa da eta 2018an hasi zen Arantzako Bordalarrea auzoan miru gorrien zenbaketa egiten. Hala ere, ez da bolun-

tarioen eta basozainen zerrendan ageri den eskualdeko bakarra, badira gehiago: Rakel Deskarga Oiartzabal, Marta Zubiria Leiza, Mikel Santxex Etxegia, Pako Santxex Ibañez, Itxaso Etxabide Sagartzazu eta Jon Ander Ruiz Sarasola lesakarrak, Mikel Etxaniz Aginagalde etxalartarra, Xabier Petirena Gortari sunbildarra, Eneko Eskudero Amiano elizondorria, Mikel Mugiro Altuna eta Jose

Luis Lizartza Sagues arizkundarrak eta Juan Goñi Gimenez erratzuarra. Gorostiren arabera, ez omen dago Europan «miru gorriaren halako jarraipen zehatzik egiten duen bertze talderik». Berotasunaren babesera, Europatik etortzen diren miru gorriak gurera neguan, nahiz eta bakan batzuk urte osoa hemen pasatzen duten. Babestutako espezie horri buruz gehiago ikasi nahi izan du **TTIPI-TTAPAK**

**Zer kontaktuko zeniguke miru gorriari buruz?**

Harrapari bat da, zapelatzaren neurrikoa. Hagitz erraz bereizten da, bere buztanak v forma duelakoz. Migratzailea da eta guregana gehienbat negua pasatzera etortzen da Europatik. Hegan egiterakoan kometen gisara mugitzen da, haizea probestuz, beheiti begira, zerbaiten bila. Miru gorriaz gain, hemen miru beltza ere badugu, forma iguala du baina ilunagoa da eta negua Afrika aldean pasatzen du. Honat udaberri-udan etortzen da. →



Miru gorrien bereizgarrietako bat v formako bere buztana izaten da. NOEL REYNOLDS

→ **Gorosti elkarteak egiten duen miru gorrien erroldan parte hartzen duzu. Nolatan hasi zinen?**

2018an, abendu aldera, base-riaren azpiko aldeko arbolatan, miru gorri pila biltzen hasi zirela konturatu nintzen; 25 bat kontatu nituen. Banekien Gorosti elkarteak Nafarroako errolda koordinatzen duela eta espezie babestua dela, eta abisua eman nien. Koordinatzaileak ez zuen Arantzako lotokien berririk, eta urteroko erroldan parte hartzeko gonbita egin zidan. Metodologia pasatu zidan, eta horrela hasi nintzen. Geroztik urtero egin dut.

**Zer egiten duzue?**

Urteko bigarren edo hirugarren larunbatean egiten da. Europa mailan koordinatutako errolda izaten da, hau da, Europa guzian denok momentu berean kontatzen ditugu miru gorriak. Horrela kalkulatzeko da Europako populazioa.

**Zergatik garai horretan?**

Miru gorriek badute berezitasun bat: neguan elkarrengana biltzen dira gaua pasatzera. Ugalketa garaian, bikoteka sakabanatu egiten dira eta hala daudenean kontatzea konplikatu da. Neguan, ordea, gaua pasatzeko biltzen direnez, aunitzez errazagoa da kontatzea eta horregatik egiten da garai horretan.



645 miru gorri zenbatu dituzte aurtengo neguan. Baztan-Bidasoaldean.

**Nolako lana izaten da?**

Lo arbolatan egiten dute, adarretan jartzen dira. Ilunabarrean hasten dira bat-banaka etortzen eta arbolatan biltzen eta momentu horretan zenbatzen ditugu. Toki batzuetan, urtero arbola beretara joaten dira miru gorriak; Arantzán, ordea, egun batean hemengo arbolatan sartzen dira, hurrengoan ondokoetan... Hortaz, errolda egiteko eguna ailegatu baino aste batzuk lehenagotik miruak non sartzen diren begira hasten naiz. Behaketa egunean 16:00 aldera jartzen gara boluntarioak, prismetikoekin edo teleskopioarekin, bakoitza bere lotokiari begira eta ilundu arte hor egoten gara heldu diren miru gorri guzikiak kontatzen. Bizpahiru orduko kontua izaten da,

garai horretan segidan iluntzen baitu. Lan polita da eta ez da batere zaila. Hortaz, norbaitek miru gorrien bertze lotokirik ikusiko balu, eskertuko genuke abisatzea, edo dagoeneko ezagutzen diren lotokiren bateko erroldan parte hartu nahiko balu, ongi torria izanen da boluntarioen taldera.

**Nolakoak dira hemengo lotokiak?**

Edozein arbolak balio die: gaztaina, haritz, pinua, pagoa... Nafarroako hegoalderagoko eskualdeetan, makalak bilatzen

**«MIRU GORRIA ZERRENDA GORRI GUZIAN AGERI DA»**

dituzte, baina han paisaia bertzelakoa da, ez dute hemengo basoen azalerarik, eta igual horregatik, dauden arbolatan kontzentratzen dira. Errolda egunean miruak zenbatzeaz gain, zein arbolatan bildu diren idatzi behar dugu, bertze espezierik biltzen den (beleak ere batzuetan miruen lotokira sartzen dira), eguraldia, tenperatura eta horrelako datuak ere hartzen ditugu.

**Zuk Arantzán kontatzen dituzu...**

Bai. Aurtengo 30 bat kontatu ditut, eta urtero 25-40ren bueltan ibili izan naiz, eta hori Arantzánko Bordalarrea auzoko lotokian bakarrik. Orain dela bizpahiru urte, errolda eguna baino lehenagotik non biltzen ari ziren begira hasi nintzen, eta egun batzuk falta zirenean desageratu zirela konturatu nintzen. Badira GPSarekin markatutako miruak, eta horren bidez Sunbillan puntu bat ageri zela ikusi nuen. Ordura arte ez zen deus kontrolatua Sunbillan. Harat hurbildu nintzen, eta miruak Sunbillako lurretan zeuden, baina Arantzánko mugatik hurbil. Haizearengatik edo ez dakit zergatik egun horietan Arantzánko miruak Sunbilla aldera pasatu ziren. Urte hartan errolda Sunbillatik egin nuen eta 60tik goiti zenbatu nituen.

**Negua pasatzera nondik heldu dira?**

Orokorrean Europatik. Batzuk habian zeudenean GPSarekin markatuak dira eta aurtengo Nafarroan markatutako 59 miru gorri kontatu dituzte. Horieta 26 Alemaniatik etorritakoak izan dira, hamabortz estatu espainiarretik, lau Danimarkatik, bertze lau Frantziatik, hiru Belgikatik, bina Suediatik, Luxenburgotik eta Suitzatik eta bat Herbehereetatik. Markatuak izateak informazio aunitz ematen du, eta horri esker, batzuk gaua pasatzera beti toki berera etortzen direla ikusi dugu. Bertze batzuk gau eta hurrengoan han pasatzen dute, gero bertze toki batean. Egunez egiten dituzten mugimenduak ere ikusten ahal dira GPSarekin.



**Bueltan noiz abiatzen dira?**

Urri-azaro aldera hasi ziren etortzen, eta otsailean bueltan abiatuak ziren. Baina hori urtearen arabera da. Aldaketa klimatikoarekin ere hori aldatuz joanen da.

**Bada urte osoan hemen gelditzen denik?**

Bai, bikote bakan batzuk hemen gelditzen dira. Arantza aldean, adibidez, badakit bikote bat umatzen dela, baina gehiago ere izanen dira.

**Europako zatirik handienean miru gorriaren populazioa beheiti doala ohartarazi izan du Gorosti elkarteak. Kezkatzekoa da?**



Bai, arrisku mailarik altuenean dago. Miru gorria zerrenda gorri guzietan ageri da: Europa mailan babestua da eta Nafarroako eta Estatuko Espezie Mehatxatuen Katalogoetan sartua da.

**Lehenago kopuruak berreskuratzeko aukerarik ikusten duzu?**

Zaila da. Duela urte batzuk arazo handiena ehiza eta pozoia ziren eta Europa mailan espezie honen gainbehera hagitz handia sumatu zen. Gaur egun, iduri du ehizak ez duela hainbertzeko arriskurik sortzen, eta pozoiak, nahiz eta kontrolatuagoa izan, oraindik ere badu bere eragina. Hala ere, bertzelako arriskuak agertu dira: eolikoak eta argindarren lineak dira miruen mehatxurik handienak.

**Nafarroan zentral eolikoek 8.900 hegazti baino gehiago hil dituztela jakinarazi du Sustrai Erakuntza Fundazioak. Zer erranen zenuke?**

Eolikoek hainbat ondorio dituzte, eta horietako bat ingurumenean duten eragina da. Faunari begiratu gero, kalte-tuenak hegaztiak eta gauenarak dira. Urrutira ikusita jendeak pentsatzen ahal du eolikoak ez direla horren agudo mugitzen eta ez dela halako ondorioz izanen, baina hegazti eta gauenara aunitz hiltzen dituzte. Hemen arrano erratan diegun sai horietako aunitz ere etortzen dira eta hauek ere espezie babestuak dira. Hegazti espezie aunitzek gauez migratzen dute



eta hor ez dakigu zer gertatzen den. Horrez gain, gure alderdia usoen ohiko pasabidea da, eta badakigu usoen bidea aldatzen ikasten dutela. Beraz, betiko bidean oztopoak ikusiz gero, bertze bideren bat hartuko lukete. Eolikoek zuzenean edo zeharka eragina dute hegaztiengan, hori segurua da, eta galera zenbatekoa den kalkulatzeko zaila da.

**Gure eskualdean ere proiektu eolikoak egin nahi dituzte...**

Bai, eta horren berri izan nuen, «miruak» izan zen pentsatu nuen lehenbiziko gauza. Europako miru gorrien populazioaren zati handi bat Nafarroan biltzen da. Aurtengo erroldan 2.600etik goiti kontatu ditugu; zehazki, 2.142, baina % 5eko zuzentze faktorea apli-

katuz, 2.684koa izanen litzateke estimazio erreala. 645 Baztan-Bidasoaldean zenbatu ditugu. Kopuru garrantzitsua da, eta hemen parke eoliko bat paratuko balute, aunitz hilko lirakeke edo bertzela, bertze toki batera joanen lirakeke. Hala ere, Nafarroako Gobernuak badaki hori, eta hortaz, eolikoek baimena eman edo ez baloratzerakoan, miru gorriek indarra izanen lukete, espezie babestua baita. Miru gorriaz gain, alderdi honetan baditugu bertze espezie babestuak, eolikoek kalte egiten dietenak: ugatza, Mendaur aldean ibiltzen dena; baita sai arrea, sai zuria eta arrano beltza ere; gauenaren hainbat espezie ere bai, hauek ere babestuak. Balio naturala duten eta kontserbazio aldetik

bere garrantzia duten espezie aunitz ditugu inguruan.

**Administrazioak badu espezie horiek babesteko borondatearik?**

Borondatea izan edo ez, behartua dago, zuzentaraua Europatik heldu zaio eta Estatuko eta Nafarroako legeak ere espezie horiek babestera behartzen du. Batetik, espezie mehatxatuen katalogoan sartua denez, miru bati kalte egitea delitua da; badira miruak botatzeagatik zigor handia hartu dutenak. Bertzetik, bere populazioa eta habitata nola diren informazio behar du eta kontserbazio egoera hobetzeko neurriak hartu. Hortaz, urtero egiten den miru gorriaren jarraipena hagitz garrantzitsua da. Ea jendea neguko erroldan laguntzera animatzen den!

## «Trikitixa Euskal Herrira ailegatu zenetik gelditu gabe egokitzen ari da»

**ITSASO ELIZAGIOEN BIZENTE** EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Bere ametsa egia bihurtuta, musikatik bizi da gaur egun Etxalarko trikitilaria. Horrez gain, berriki Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari kargua hartu du

### G PIKABEA ETXALAR

Aski gazterik hasi zen trikitixa jotzen eta pandereta astintzen Itsaso Elizagoien Bizente (Etxalar, 1995), baina aldi berean, berak nahi baino beranduago. Gogoan du «kotxean Tapia eta Leturia kasetean aditu bidena-bar, ahizpa eta biok trikitixa eta pandereta jotzen ari ginenaren plantak» egiten zituztela. «Ahizpa etxean trikitixa entseatzen ikusten nuenean», hura hartzeko desiratzen egoten omen zen. Bortz urterekin, ordea, gazteegia ikasten hasteko, eta «Irunek [ahizpa] klaseetan ikasten zue-na erakasten zidan. Azkenean, sei urterekin hasi nintzen Lesakako Ione Elgorriagarekin ikasten». Geroztik urte batzuk pasatu dira, eta trikitixaren doinu-ibilbide ederra osatzen ari da. Gaur egun, musikatik bizi da, eta berriki, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari izendatu dute.

### Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakari kargua hartu berria duzu...

Bai, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen joan den urteko batzar orokorrean egin genuen aldaketa. Agurtzane Elustondori hartu diot erreleboa. Urte aunitzen ondotik, zuzendaritza taldea uztea erabaki zuen eta zuzendaritzak lehendakari posturako egokiena ni izanen nintzela proposatu zuen.

### Lehenagotik lehendakariorde izana zara...

Bai. Elkarteko zuzendaritzan orain dela zortzi bat urte sar-



Itsaso Elizagoienek trikitixa du ogibide. FILETS BLEUES

tu nintzen. Lehenbiziko bortz urteetan bokala izan nintzen, ondoko bizpahiru urteetan lehendakariorde eta azken urtean lehendakari.

### Orain arteko zer balorazio eginen zenuke?

Orain arte lana gogotik egin da. Boluntario lana izaten da gehien-gehienetan, baina hagitik beharrezkoa horrelako elkarteak aitzinera ateratzeko. Hagitz gustura nago denon artean proiektu politikak egiten

ditugulako. Militantziatik aunitz du egiten dugunak: maite dugun instrumentu eta mundu tiki horri merezi duen lekua eta balioa eman nahi diogu.

### Zein dira elkartearen helburuak?

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen helburu nagusiak ondare hau babestea eta zabaltzea dira. Bide horretan, bilketa lana da nagusi, baina bertze hainbat proiektu aitzinera ateratzen saiatzen gara: jaialdiak eta jardunaldiak antolatuz, liburuak

eta diskoak argitaratuz... Lehen-go eta oraingo trikitilarien arteko zubigintzan lan egiten du elkarteak eta trikitixaren bilgune izan nahi du.

### Zein dira esku artean dituen proiektu horiek?

Urtero 15-20 bat proiektu egiten ditugu, eta batzuk aipatzen hasita, biografia liburuak, trikitixa udalekuak eta topaketak, cover lehiaketa [edozein garai eta estilotako euskal kantak hartuta, trikitixarekin eta panderetarekin bertsoak egiteko lehiaketa], San Josetako Trikitixa Jaialdia Azpeitian [Gipuzkoa]... Hainbat zerbitzu ematen ditu elkarteak: fakturazio zerbitzua, dokumentazioa...

### Zein da bere funtzionamendua?

Elkarteko organigramaren gailurrean bazkide guztiak osatzen duten batzar orokorra dago. Gaur egun, 400-500 bat bazkide gara. Horren azpitik zuzendaritza batzordea dago eta horren barrenean bokalak, diruzaina, idazkariak, lehendakariordea eta lehendakaria. Horrez gain, bi liberatu daude. Proiektuak lan egiten dugu eta proiektu bakoitzak eskatzen duenaren arabera, zuzendaritzako kideak talde eragileetan banatzen gara.

### Elkartea egoera onean dago?

Azken urteotan elkartearen lan egiteko modua aldatzen ari da. Egungo egoerari eta eskaerei behar duten erantzuna ematea da helburuetako bat, gure aitzinekoek eman zutena bildu behar dugula atzenu gabe. Instituzio publikoetatik dirulaguntzak hartzen baditugu ere, bazkideen babesa hagitik beharrezkoa da. Euskal Herrian trikitixa edo pandereta jotzen dutenen, edo bertzerik gabe, zaleak direnen kopurua bazkide direnekin konparatzen badugu, oraindik hagitik urrutituta gaude. Elkarte egoera onean badago ere, indartzeko beharrezkoa da jende hori elkartera nolabait hurbiltzea eta bazkide egitea. Bertzetik, elkarte handitzeko momentua ailegatu dela ohar-tuak gara eta 2024ko helbu-

ruetako bat bi liberatutik hirura pasatzea da.

#### Zer bide egin du elkarteak?

1972an Gipuzkoan zenbait trikitilarik elkartzeko zuten beharrez oharturik, Sakabi eta Egañazpi trikitilarietako omenaldia antolatu zieten Usurbilen [Gipuzkoa]. Hori izan zen trikitilariak elkartzeko hasi ziren urtea. Hala ere, ofizialki 1990. urtean sortu zuten elkarteak. 1996an boluntario talde baten eskutik, gaur egun egiten den zabaltze lana hasi zuten. 2000an lehenbiziko kudeatzaileak sartu ziren ordura arte boluntarioek egindako lana indartuz. Elkartearen historia biltzen duen liburua 2024an argitaratu dugu.

#### Aspaldiko urteetan ez da txapelketa nagusirik egin. Zergatik?

Horrelako ekitaldi bat ez egiteko arrazoi aunitz izan dira, eta seguru nago horietako aunitz ez ditudala jakinen. 1991n egin zen azken aldiz Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusia. Geroztik gazteenak egin dira, baina txapelketa nagusirik ez.

#### Berri eginen ote da?

2017an Markinan [Bizkaia] helduen lehenbiziko txapelketa antolatu zuten. Bi urtez behin egiten da, eta aurten, laugarren edizioa egingen dute maiatzean.

#### Zu ere txapelketetan ibilitakoa zara ahizparekin. Orduko nolako oroitzapenak dituzu?

Lan aunitzeko urteak izan ziren. Txapelketetarako prestatzeak ordu aunitz entseatzea eskatzen zuen. Baina horrekin teknika aunitz hobetu nuen eta gaur egun naizena, neurri handi batean, garai hartako lanari zor diot. Bertzetik, lagun talde polita osatu genuen. Txapelketetan elkarren kontra aritzen baginen ere, oraindik denekin harreman ona dugu.

#### Trikitixaren mundua nola ikusten duzu gaur egun?

Trikitixaren mundua aldatu da, noski. Eta hala behar du bizirik irauteko. Nondik heldu garen oroitu behar dugu, eta hori mantentzearen eta zaintzearen aldekoa naiz. Baina tradizioak segitzeko berriak ere sortu behar du. Horretan trikitixak indar



Elizagoien ahizpak haurrak zirela: ezkerrean Itsaso eta eskuinean Irune. UTZITAKOIA



Elizagoien Carlos Nuñez gaita jotzailearekin eta Jon Pilatzke biolinistarekin.



Itsaso Elizagoien ezkerrean Sharon Shannon musikari irlandarrarekin. UTZITAKOIA

berezia du, genero guztietara moldatzen jakin duelako. Eta espero dut horrela segituko duela denbora luzean.

#### Beraz, trikitixa bertze estiloetara egokitu dela erranen zenuke?

Gaur egun normala iruditzen zaigu fandangoak eta arin-arinak trikitixarekin aditzea. Baina jotzen ditugun kanta horietako aunitz txistutik, albokatik edo akordeoetik hartuak izan dira. Rantxerak eta balsak ere gureak balira bezala jotzen di-

tugu, eta aunitz Mexikotik ekarritako melodiak dira. Horrekin erran nahi dut trikitixak gaur egungo garaietara egokitzen jakin duela, eta gehiago ere egin duela: trikitixa Euskal Herrira ailegatu zenetik gelditu gabeko egokitzapenean ari da. 90eko hamarkadan, adibidez, poparen boamera egokitu zen. Eta egun, irratiaren soinu ttikia aditzen ahal dugu, gaur egungo musika estiloetara egokitu delako.

#### Trikitixak ate aunitz ireki dizkizu?

Trikitixarekin jende eta leku aunitz ezagutu dut. Berari esker naiz gaur egun naizena. Ezin dut imajinatu nolakoa izan litezatekeen nire bizitza trikitixarik joko ez banu. Orain dela urte batzuk sinetsiko ez banu ere, egun nire ogibidea da.

#### Carlos Nuñez gaita jotzailearekin ere urteak daramatzazu. Zer izan da hori zure ibilbidean?

Suerte handia izan nuen bera ezagututa. Berarekin aunitz ikasi dut eta berari esker, trikitixa jotzea nire lanbide bihurtu da. Ez da erraza musikatik bizitzea. Horrez gain, behin ere imajinatuko ez nukeen jendearekin eszenatokia elkarbanatu dut, eta hori ere berari zor diot. Eta maila pertsonalagoan, berak exijitzen duen maila emateko aunitz ikasi behar izan dut. Teknika, jotzeko modua... Musikaren ikuspegia ere aldatu eta zabaldu dit.

#### Zure ibilbidetik zerbait gehiago nabarmenduko zenuke?

Ahizparekin nahiz taldean egindako ibilbidea. Ahizparekin auzoko bestetan egin nuen nire lehenbiziko erromeria. Erromeria eta txapelketa andanaren ondotik etorri zen Dantzadi taldea. Taldearekin ere urteak egin genituen erromeriaz erromeria Euskal Herriaren barna. Taldearekin segitzen ez badugu ere, ahizpa eta biok ahal dugun neurrian oraindik ere eusten diegu erromeriei. Azken finean, erromerien mundua, Carlosek eman didanarekin batera, ni naizena da. Ahizparekin egin dudana ibilbide hori tarteko, jende aunitz ezagutu dut eta horixe da musikak eman didan garrantzitsuena.

#### Nolako etorkizuna ikusten diozu trikitixari?

Etorkizun oparoa izanen du bide honetatik segitzen badu bederen. Hala ere, gaur egungo irakasleen esku dago ikasleei trikitixaren abaniko zabala transmititzea. Etorkizunean irauteko, garrantzitsua da izan garena, garena eta izanen direna erakustea. Aipatutako afizioa errotzeko beharrezkoa ikusten dut irakasleen lana.



Basaburukoak txapela soinean. TTPI-TTAPA



Igantzikoa txokorretan. BIDAS ETXARTE



Igantzikoa zakuarekin. BIDAS ETXARTE

## Igantzik eta Basaburuak txapel bana lortu dute

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finalak erabakiak gelditu dira Etxarri Aranatzeko jokatuako finalean

### TTPI-TTAPA

Martxoaren 24an Etxarri Aranzako frontoian jokatuako finalarekin borobildu zituzten XXXVI. Nafarroako Herri Kirol Jokoak. Kimuetan, haurretan eta kadete mailan proba konbinatuetan aritu ziren eta haurren eta kadeteen mailetan baita sokatiran ere. Tartean Arantza, Baztango Basaburuak eta Igantzik taldeak aritu ziren finalean.

### Kimuak

Kimuetan, hemezortzi talderen artean, Arantzak lortu zuen finalerako txartela, Etxarri Aranzako bertze hiru taldeekin batera. Final lehiatua jokatu zuten lau taldeek, hamabi segundoren barrenean bukatu baitzituzten lanak. Azkenean, hiru lehenbiziko postuak etxean gelditu ziren: Andra Mari 4 taldea izan zen txapeldun (07.15eko denbora), Andra Mari 2 bigarren (07.17), Andra Mari 5 hirugarren (07.21) eta Arantza laugarren (07.27).

### Haurrak

Haurren mailan, hamalau taldek parte hartu zuten txapel-

ketan eta finalean Igantzi izan zen eskualdeko ordezkari bakarra. Ederki aritu ziren, bera izan baitzen txapelduna, bigarrenari 39 segundoko aldea aterata. 09.10eko denboran bukatu zituen lanak; Araxes bigarren gelditu zen (09.49) eta Antsoain D (09.51) eta Antsoain C (10.43) hirugarren eta laugarren.

### Kadeteak

Kadeteen mailan, zazpi talde atera ziren txapelketan, eta horietako lauk jokatu zuten finala. Finalean lehia estuagoa izan zen. Baztango Basaburuak izan zen nagusi, 11.06ko denbora eginda, eta hiru segundora bukatu zituen lanak Arantzak (11.09). Araxes ere hurbil ibili zen (11.18) eta Berriozar laugarren postuan gelditu zen (13.12).

### Sokatira

Sokatiran, haurren kategoriako finalean, ez zen eskualdeko talderik aritu, baina kadeteetan bai: Basaburuak. Kasu honetan, ligaxka sistemarekin aritu ziren, eta nahiz eta Etxarri Aranzako saioan Basaburuak gailendu, sailkapen orokorrean bigarren izan zen, Berriozarren gibeletik.



Arantzako txokorrekin. BIDAS ETXARTE



Arantzako zakularia. BIDAS ETXARTE



Arantzako kadeteen taldeko arpanlariak ederki aritu ziren finalean. BIDAS ETXARTE



Basaburuko kadeteen taldea sokatiran. BERRIOZAR HERRI KIROL TALDEA

# «Kirol ikasketak nesKentzat ere badira»

Emakumearen presentzia kirol arloan gero eta normalizatuagoa dago. Kirol ikasketetan ere ari dira. Elizondo Lanbide Eskolan, adibidez, kirol zikloa ere eskaintzen dute, baina aurten lehen mailan ez dute neskarik. Joera horrek kezka eragiten du eta buelta eman nahi liokete

## TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Duela urte andana hasi ziren Lekarozko institutuan kirol zikloa eskaintzen. Orain, azken hiru ikasturteetan Elizondo Lanbide Eskolan eskaintzen dute. Gorka Bidegain irakasleak aipatu digunez, «bizikleta, mendia, zaldia, piragua, sokak, sorospinak naturan... dira ikasgai praktikoak, baina aisialdia edo talde arreta ere eskaintzen dugu». Bi urteko zikloa da eta aurten, bigarren mailan ikasten ari direnetatik % 30 (20 ikasle 6) neskak dira, baina lehen mailako 22 ikasleak mutilak dira. Joera honekin kezkatuak daude ikastetxean eta buelta eman diote egoerari. Honen berri izateko, bigarren maila ikasten ari diren sei neskekin izan gara: Saioa Gascue (Ultzama), Gara Barriuso (Berriozar), Nahia Pikabea (Bera), Uxue Ilarregi (Oiz), Elaia Lorente (Sarriguren) Haizeder Goñi (Berriozar).

Elizondo Lanbide Eskolan kirol zikloa zergatik aukeratu zuten galdetzerakoan, «azkenean guztiok irakasle izan nahi dugu» erantzun digute, «eta bide hau aukeratu genuen batxilergoa egitea baino askoz praktikoagoa dela uste genuelako, ez duzu kirol bat praktikatu beharrik, baina bai kirola egitea gustuko izatea».

Behin zikloa hasita, espero zutena baino oraindik gusturago dabilta: «Espero genuena baino askoz hobea izan da, harreman handia sortu dugu, kriston giroa dago eta espero genuena baino gehiago ikasi dugu, irakasleak ere bikainak dira, arras gustura gaude ikas-



Elizondon kirol zikloa ikasten duten neskak mendiz mendi egin zuten ibilaldian.

ten ari garenarekin, hartu dugun erabakirik onena izan da». Ikasgai praktikoak izaten dituzte, baina baita teorikoak ere: «Bai, ikasketa teorikoak daude, mapakirakurtzen, lehen sorospinak, txirriindularen parteak eta errepedeko arauak, nominak egiten eta animalien eta landareen portaera ulertzen ikasi genituen. Horrez gain, adin guztietako haurrak eta ezgaitasunak dituzten pertsonak kudeatzen ikasi genuen, zaldi monitore izateko, eskaladako monitore eta mendi gidari izateko prestatu gaituzte».

### Mendiz mendi

Ikasgai gustukoenen artean aukeratzeko galdetuta, «lehe-

nengo mailako gure ikasgairik gogokoena mendi gidaritza izan da –erantzun digute–, harreman gehien sortu dugun ikasgaia izan delako eta kurtso bukaeran hiru eguneko mendi zeharkaldi bat egin genuen». Zeharkaldi horretan Baztan guztia zeharkatu zuten, «mendiz mendi eta izarren azpian lo egiten. Eta bigarren mailako ikasgairik onena maniobrak sokekin izan da, eskalada egin dugu, arroila jaitsierak, arbo-

**«ESPERIENTZIA ETA BIZIPEN IKARAGARRIAK BIZITZEN DIRA»**

lismoa, tirolinak eta tirolinetako erreskateak, rapela, korapiloak egiten ikasi dugu eta espeleologia egin dugu». Aldiz, lehenengo mailan gutxien gustatu zitzaien ikasgaia «zaldia izan zen, denbora gehiena ikuluak eta zaldiak garbitzen pasatzen genuen eta ez ginen mendira ibilbideak egitera ateratzen. Hori bai, bigarren mailan ikasgaia hobetzen da zelaietan galopatzeko eta mendian ibilbideak egiten ditugu. Bigarren mailan gutxien gustatu zaigun ikasgaia lehen sorospinak izan da, oso ikasgai teorikoa delako».

Duela urte batzuetatik honat, zorionez, emakumeen presentzia aunitz normalizatu da kirol arloan, baina, oraindik orain, neska guttik hautatzen dute ziklo hau. Elizondon, bigarren mailan, neska % 30a dira, baina lehen mailan, 22tik 22 mutikoak. Zergatik? «Mutilentzako ziklo bat dela uste delako –erantzun digute–, oso ziklo fisikoa da eta gehienek uste dute ez direla eskatzen diren denboretara ailegatuko, baina behar den bakarra fisikoki pixka bat sufritzeko ahalmena da. Zerbait nabarmentzen diren ziklo bat da eta emakume gutti izateko pixka bat inposatzen du».

Kirol zikloa gustukoa duten, baina matrikulatzeko pausua emateko zalantzak dituzten neska animatu nahi dituzte, «esperientzia ederra delako, asko ikasten delako, harreman ederrak sortzen direlako. Batzuetan ez dirudi klasean zaudenik, esperientzia eta bizipen ikaragarriak bizitzen direlako. Gainera, kirol ugari probatzeko aukera ikaragarria da».

Aitzinera begira, «goi mailako ziklo bat egitea da hurrengo pausua, gure klasean hiru bide aukeratu ditugu: Kirol zikloan egokitzapen fisikoa, Gizarte eta kirol irakaskuntza eta Animazioa eta Haur Hezkuntza zikloa dira (datorren ikasturtean lehen aldiz Elizondon eskainiko da), baina irakasle izatera begira dago».

## Hizkuntza eta kultura aniztasun besta prest Beran

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez maiatzaren 25ean egingen dute, «etorri berriei harrera egiteko»

### TTIPI-TTAPA BERA

Joan den udazkenaz geroztik, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez herritar talde bat elkarlanean ari da hizkuntza eta kultura aniztasuna, etorri berrien harrera eta integrazioa lantzen.

Lan taldea jatorri askotarikoa duten herritarrek osatzen dute eta joan den urteko urrian abiatu zen, honako helburu hauekin: etorri berrien harrera, integrazioa eta aniztasunaren gaiak elkarlanean lantzea, hizkuntza eta kultura aniztasuna baloratzea, herritarren elkar ezagutza eta sentsibilizazioa sustatzea eta jatorri aniztetako herritarrei euskara hurbiltzea.

Taldeak bere burua aurkezteko Bidasoa 2018-2023 dokumentalaren emanaldia antolatu zuen Beran joan den abenduaren 17an. Dokumentallean Afrikatik Europa iparraldera heldu diren migratzaileen gaia jorratzen da, giza eskubideen ikuspegitik, eta harrera, elkartasuna, aniztasuna eta integrazioa lantzen dira.

### Maiatzaren 25ean besta handia Beran

Aniztasun taldeak besta eguna antolatu du maiatzaren 25ean, Beran. Herritarrek elkar ezagutzea eta sentsibilizatzea izanen dira helburuak, betiere, giro alai batean. Dantzak, musika eta janari goxoa ez dira faltako arratsalde partetik aitzinera. Aniztasun taldeko kideak herritar eta elkarteekin biltzen hasiak dira, bestan parte hartu dezaten. Bereziki, guraso elkarteengana joko dute, jatorri aniztetako gurasoek proposatzeko bestan txoko bat izan dezaten, nahi izanez gero, euren jatorriko herrialdeko jai goxoren bat eskaintzeko, euren hizkuntza eta kulturari buruzko gairen batekin, eta betiere, hizkuntza aniztasunari ikusgarritasuna ematen. Maiatzaren 10a arte eman daiteke izena ([euskara@bortziriak.eus](mailto:euskara@bortziriak.eus)).

Horrez gain, besta eguna girotzeko Bidasoa 2018-2023 dokumentala Lesakan ikusteko aukera izanen da, maiatzaren 19an, 18:00etan, Harriondoan.



ITSASO IRIGOIEN

## Haur kantarien VII. Topaketa Lesakan

Giltzarri abesbatzak antolatutako VII. Haur kantarien topaketa ospatu zuten martxoaren 23an Lesakan. Jesusen Bihotza, Ricardo Baroja, Labiaga, Irain, Tantirumairu eta Sunbillako ikastetxeetako eta Zaria koru eskolako ikasleek emanaldi ederra eskaini zuten Imanol Elizasuren gidaritzapean.

## Etxalarko III. BTT probako kamisetak salgai

III. Etxalarko BTT probako kamisetak salgai jarri dituzte [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) webgunean edo [etxalarbtt@gmail.com](mailto:etxalarbtt@gmail.com) helbidean edo antolatzaileekin harremanetan jarrita ere, apirilaren 20a baino lehen.



UTZITAKOIA

## Etxalarko San Jose Kofradiaren kontuak egiteko eguna

San Jose egunaren bueltan, urteko kontuak egiteko aprobetxatu zuen San Jose kofradiak martxoaren 22an. Urtero bezala, urtean zehar hildako kofradiako kideen aldeko meza izan zuten eta gero, hamaiketako eskainiz, Elutsa ostatuan egin zuten kobratzea.



Kofradiako kideak. IRUNE ELIZAGOIEN

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
[info@tabernaedariak.eus](mailto:info@tabernaedariak.eus)  
[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)

**Goieko**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

## Komikialdia apirilaren 8tik maiatzaren 21era

Lau ikastetxeetako ikasleek komiki tailerra egingen dute Joseba Larratxe marrazkilariarekin

### A. LARRETXE

Kultur Batzordeak Komikialdia antolatu du apirilaren 8tik maiatzaren 21era. Komikiari buruzko ziklo bat izanen da eta bertzeak bertze, ikasleendako tailerrak, erakusketak eta *Ni ez naiz Mikel Laboa* komikiaren aurkezpena egingen dituzte.

Tailerra lau ikastetxeetako ikasleek egingen dute, eta Joseba Larratxe komikigileak emanen du. Bertan, komikiarekin lehen harremana izanen dute eta komiki bat lantzen hasiko dira. Ondotik, hori lantzen segituko dute bertan. Ikasle bakoitzak 4 binetarekin zinta bana osatuko du. Horrekin batera, ikastetxe bakoitzean 10-15 komikiz betetako maleta bana utziko dute ikasleek irakur ditzaten.

Horrekin batera, *Euskal Irudigileak 20 urte* erakusketa

ibiltaria ere paratuko dute. 300 ilustrazio baino gehiago biltzen ditu erakusketak, eta Euskal Herrian dagoen talentua eza-gutzeko aukera izanen da. Erakusketa osatzeko, lau ikastetxeetako ikasleek komiki tailerlean egindako lanak erakutsiko dituzte.

Erakusketa ikustera ikastetxeetako ikasleak joanen dira, eta tailerra egin duten ikasleek bisita gidatu berezia egingen dute Euskal Irudigileen Elkarteko partaide batzuekin. Publikoarentzako ere irekiko dute, maiatzaren 10ean eta 17an 16:30etik 18:30era eta maiatzaren 11n eta 18an 11:00etatik 13:00etara.

Maiatzaren 9an, aldiz, Joseba Larratxek Euskadi Saria irabazi duen *Ni ez naiz Mikel Laboa* komikia aurkeztuko du 18:30ean Beralandetan.

## Bera herri hezitzaile izateko bigarren bilera hilaren 10ean

Herri hezitzaile izateko prozesua garatzen ari dira Bera-ko hainbat eragile Oinherri elkartearekin batera. Prozesuan hiru bilera egingen dituzte denera, eta horietatik bigarrena apirilaren 10ean, asteazkena, egingen dute 18:00etan.

## Bestak antolatzeko batzorde irekia apirilaren 16an

Besta Batzordeak bigarren bilera egingen du apirilaren 16an, asteartea. Beralandetan elkartuko dira 18:30ean, eta bestak antolatzeko lehen urratsak egitea izanen da asmoa. Bigarren bilera izanen da asteartekoa, lehen bileran, iazko balorazioa egin baitzuten.



UTZITAKO

## Kultur astea egin dute San Jose egoitzan

Martxoaren 11tik 15era kultura izan zen protagonista San Jose adinekoen egoitzan. Hainbat ekitaldi egin zituzten: musikariaren eta abesbatzen emanaldia, talo jatea, jotak, bingoak, bertsolariak... Gainera, Ibardingo Mendiko sagardotegira bazkaltzera gonbidatu zituen bertako nagusi Inaxiok.

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Inc., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

**ZALAIN**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**Suteia-Zaldain**  
Instalazioak  
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK  
KALITATE-BERMEA  
IRISGARRITASUNA  
MANTENTZE LANAK

- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadur guztiak integratuak. Portal barutik sarbidea. Inpaktu eta eragocpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskalareko tartean integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo eragocpen gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta garpi-alkian daudenentzako egokituak.
- 3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-alkian daudenentzako pertsonentzako sarbidea egokituak. Adar egiten ditugu lanak, eragocpen minimoak sortuz.

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!**  
gu ardurabako gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

# Telekomunikazio egoeraren analisia egingen du udalak

Ehkom erakundearen laguntzarekin egingen dute analisia eta horretarako galdetegi bat prestatu dute herritarrek betetzeko

## A. LARRETXEA

Udalak herriko telekomunikazio egoeraren irudia osatu nahi du, herrigunean eta batez ere baserri auzoetan dauden behar-rak identifikatzeko. Horretarako galdetegi bat zabaldu du, eta herritarrei erantzuteko eskatu die. Galdetegia online betetzen ahal da, eta baita paperean ere, herriko etxeko bulegoetan. Baserri auzoetara, berriz, posta bidez bidaliko dute.

Hauk dira galderak:

-Ailegatzan al da zuntz optikoa zure etxera?

-Zein teknologiaren bidez jasotzen duzu Internet zerbitzua etxean?

-Zer iritzi duzu gaur egun jasotzen duzun Internet zerbitzuarekiko?

-Gehitu edo aipatu nahiko zenukeen zerbait?

Azterketa hau Ehkom erakundearen laguntzaz egingen du udalak. Ehkom irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala da, lankidetzeta publiko-komunitarioan oinarrituta Euskal Herrian telekomunikazio-sare irekiak eratzeko eta kudeatzeko jaio dena.



KORRIKA

## Beratarrak ere «Harro Herri!»

Martxoaren 24ko goizaldean pasa zen Korrika herritik eta aunitz izan ziren bertan parte hartu zuten herritarrak. Lesakan barna sartu zen lekukoa, eta herria gurutzatu eta Lizuniagara arte eskuz esku eraman zuten Garazi Arrula idazleak eramandako mezua. Beran ere euskaraz bizi nahi zutela aldarrikatu zuten.

**LARRETXEA EGVRRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri  
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

**Alberto RETEGI**  
abokatu(a)  
abokatu(a)

© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

## Emanaldi ederra eman du herriko bandak

Katakua ostatuko terrazan bandaren kontzertu ederra aditzeko aukera izan zen martxoaren 17an. 40 minutuko emanaldian, bertzeak bertze The Beatles taldearen hainbat abesti jo zituzten. Igor Tellexea herritarra aritu zen zuzendari lanetan.



Bandako hainbat kide kontzertuan.

**Ansoenea MUS TXIMISTA TXAPELKETA**

Otsailak **18**  
Apirilak **14**  
Ekainak **16**  
**30€** bikoteko

**SARIAK**  
Lehenengo saria **1.200 € eta txapelak**  
Bigarren saria **600 € eta bi botila cava**  
Hirugarren saria **300 € eta bi botila ardo**

Lehen kooperatibak bertze txapelketa bat jokatuko aukera **15 € ordainduta**

Laguntzaileak: **carroba** **SAGARDIKO** **VENTA GORRA** **SMAZIDOR**

Eta ortziraletan, otsailaren **23tik** ekainaren **7ra**

**Ansoenea MUS TXAPELKETA**  
\*apirilak 12 izan ezik.

**JURIONE-GOXOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

**Arturo**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lantzeria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136



# Kanttonberriko lanak egiteko zazpi hilabete gehienez

Sasoi enpresa arduratuko da lanak egiteaz, eta lanek iraun bitartean hainbat eragozpen izanen dira inguruan

## A. LARRETxea

Apirilaren 2an ziren hastekoak Kanttonberriko lanak. Udalak Sasoi enpresari esleitu dizkio, eta gehienez ere zazpi hilabete epea izanen dute gauzatzeko. Lanak egiteak 1.282.600 euroko kostua izanen du, obra zuzendaritzak 41.745 eurokoa eta proiektua idazteak, aldiz, 27.830 eurokoa.

Lanak hiru fasetan egingen dituzte. Lehenengo fasean Zia errekaaren paraleloan doan karrika eta Ekialde karrika berria egingen dituzte. Denera lanek zortzi aste irautea aurreikusitako dute. Bigarren fasean, auzoko mendebalde, zahar etxe inguruan dagoen karrika berriko dute, eta lanek sei aste eta erdi irautea aurreikusitako dute, maiatzaren bukaeran hasi, eta uztaile hasieran bukatzea. Hirugarren fasea, eta luzeena, Kanttonberri karrika moldatzea izanen da. Lan horiek uztailean hasi eta irail bukaeran bukatzea da asmoa.

## Auzora sarbidea

Enpresak atarrietarako eta saltokietarako sarbide segurua



Kanttonberri karrika. TTPI-TTAPA

ziurtatuko du uneoro, oinezkoentzako korridore mugikorren eta pasabide metalikoen bidez. Era berean, larrialdi-zerbitzuek sarbide iraunkorra izanen dute. Seinaleztapen-plan koordinatu bat planteatuko dute eta lanen fase bakoitzeko bizilagunak koordinatzeaz eta informatzeaz arduratuko den pertsona bat egonen da.

Lehen fasean, Kanttonberri sartzeko ahalko da auzora, eta ibilgailuentzako itxiko dute

San Jose egoitzarako sarbidea. Bertara, Legiatik joan beharko da, osasun etxe paretik, eta horretarako hiru aparkaleku plaza kenduko dituzte. Une batzuetan Kanttonberri Eztegararekin lotzen duen zubia itxi egingen dute, eta auzoko sarrera Legia karrikatik egin beharko da.

Bigarren fasean, egiten ari diren lanen arabera ezarriko dute egoitzarako eta bertako garajeetarako pasabidea, une batzuetan Legia karrikatik eta bertzeetan Kanttonberri.

Hirugarren faseko lehen azpifasean autoak Kanttonberri sartzeko ahalko dira Legiatik, eta bigarrenen, aldiz, ez da eraginik izanen zirkulazioan.

## Aparkalekuetan aldaketak

Lanak hastean, Legiako aparkaleku urdinen lau plaza kenduko dituzte, eraikuntza enpresaren etxola paratzeko. Zia errekaaren paraleloan dagoen karrikako hiru plaza ere kenduko dira, eta Legian, San Jose egoitzara sartzeko osasun zentroko bi-hiru aparkaleku kenduko dituzte. Bigarren fasean denboraldi batez egoitza pareko aparkalekuak kenduko dituzte. Hirugarrenean, aldiz, aldaketak nabarmenak izanen dira. Lehen azpifasean 5, 8 eta 10 atarrietako aparkalekuak desagertuko dira, eta bigarrenen, Kanttonberriko aparkaleku denak kenduko dituzte.

Galera hori konpentsatzeko, plaza berdeen kopuru bera ezarriko dute Toki Onan, eta

baita plaza urdinak ere erostaketak egiteko.

## Zaborrak

Auzoko hiru edukiontzi guneak kenduko dituzte. Behin-behinean edukiontzi linea bat paratuko dute Legia karrikako 47. zenbakian. Halaber, Toki Onako bilketa eremua indartu egingen dute, eta Legiako betetzen bada bertara eramateko eskatu dute.

## Aparkalekuak lanen ondotik

Lanak bukatzean, horrela geldituko dira aparkalekuak: Ekialde karrikan egoiliarrentzako 11 aparkaleku ezarriko dituzte; Legia karrikako 1. atariko iparraldeko fatxadan gaur egun aparkaleku urdinak berde bihurtuko dituzte, Kanttonberri karrikan denbora mugatuko 13 aparkaleku urdin ezarriko dituzte, denbora kontrolatzeko sistema automatiko baten bidez eta egoitza aitzinean lanak bukatzean erabakiko dute ezarriko duten kopurua. Plaza berdeen galera konpentsatzeko, galdutako plazen kopuru bera ezarriko dute Toki Onan. Aparkaleku libreko gunea, berriz, liburutegi gibelean eta Matzadako aparkalekuan izanen da.

## LANAK BUKATZEAN ALDAKETAK IZANEN DIRA APARKALEKUETAN



## 50. urteurreneko bigarren ospakizuna prest du ikastolak

Apirilaren 13an, arratsaldean, Otxogorrietik plazarako ibilbidea egingen dute, ikasle ohien protagonismo bereziarekin

### AITOR AROTZENA

Mende erdia bete du ikasturte honetan Tantirumairu ikastolak eta 50. Urteurreneko bigarren ospakizuna egingen dute apirilaren 13an, larunbat arratsaldean, *Eta elkartuko gara berriro* goiburupean. 18:00etan Otxogorrienea-Intxaurrenean elkartu eta plazan bukatuko dute ikasle ohiek protagonismo berezia izanen duten ospakizuna, mende erdi horretan ikastolaren aterpe izan diren gunetan barna igaro ondotik. Hain zuzen, ikasle ohiek, bakoitzak bere



Urrian egin zuten lehen ospakizuna.

arlotik (musika, dantza, bertsoak...) plazara arteko ttririki-ttarraka ibilbidea aberastuko dute. Plazan ikuskizuna, txozna jan-edatekoekin, musika eta giro ona izanen da.

## Ttikientzako 'Mintzoan Kux-Kux' irakurketa kluba sortu dute liburutegian

Hiru eta bortz urte bitarteko haurrei zuzendutako Mintzoan Kux-Kux irakurketa kluba sortu dute Lesakako liburutegian, Galtzagorri haur eta gazte literatura elkartearen eskutik, Lesakako hezkuntza komunitatearen ekimenari esker, Lesakako Udalaren babesarekin.

Apirilaren 26an, maiatzaren 31n eta ekainaren 14an egingen dituzte topaketak, 17:30etik 18:30era eta haurrek heldu batek lagunduta joan beharko dute. Izen-ematea liburutegian egin behar da apirilaren 10etik 17ra, biak barne eta plaza kopuru mugatua izanen da.



UTZITAKOA

## Tantirudantzan Zubigaineko 'ttikia'

Tantirumairu euskal folklore taldeak aurten gonbidatuta Lezoko, Zumaiako eta Altsasuko dantzari ttikiak karrizak karriz ibili ziren martxoaren 16an. Eguerdian, Zubigainekoa dantzatu zuten Tantirumairu dantza taldeko dantzari ttiekiek. Gero, denak batera emanaldia eskaini zuten plazan.



KORRIKA

## Aurten ere Korrika jendetsua

Ez ohiko bidetik, Oiartzunetik Agiñan barna sartu zen Korrika martxoaren 24an, igande goizaldeko ordu ttikitian eta eskuz esku hainbat elkarte, ikastetxe eta erakundek eraman zuten (argazkian, udal ordezkariak) Baionarako bidean. Jendetza bildu zen karriketari eta errepidetan.



LESAKAKO UDAL HAUR ESKOLA

2024ko abuztu bukaeran emanen diegu hasiera ikasturte berriari



### AURREMATRIKULAZIOA

Apirilaren 10etik 24ra, Magala haur eskolan

Ordua: 15:00etatik 16:00etara paperak jasotzeko.  
Ordu horretatik kanpo, buzoian uzteko aukera izango da.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan  
magalalesaka@gmail.com-en edo 698 77 45 30 telefonoko WhatsApp-era idatziz.



LESAKAKO UDALA



Benito Tainta, Jose Luis semearekin eta Iker bilobarekin 2010ean.

# Lau eta erdiko pilota txapelketa Benito Taintaren omenez

Arkupe elkarteak lehen aldiz antolatu du San Fermin txapelketa eta uztailaren 9an jokatuko dituzte finalak

## A. AROTZENA

Berriki bukatu den eskuz bi-nakako pilota txapelketaren ondotik, Lesakako Arkupe pilotazale elkarteak lau eta erdiaren barreneko eskuz banakako pilota txapelketa antolatu du lehen aldiz, Benito Tainta zenaren oroimenez. Lau kategoriatan jokatuko dute: 2009 urtetik honat jaiotako neskak, mutiko gaztetxoak (2008-2009), mutil gazteak (2006-2007) eta gizonezko nagusiak. Martxoaren 31 arte eman zitezkeen izena.

Kategoria bakoitzean 32 pilotari onartuko dituzte gehie-

nez eta kanporaketa moduan jokatu da. Apirilaren 21ean hasita, neskak, gaztetxoak eta gazteak igande goizetan ariko dira Lesakako, Sunbillako eta Doneztebeko pilotalekuetan eta gizonezko nagusiak ortzegunetan Lesakako pilotalekuan. Finalak uztailaren 9an jokatuko dituzte, Lesakako sanferminetan.

Mendigorriakoa sortzez, urtetan herriko albientea eta pilota eskolako irakasle izan zen Benito Tainta. Jose Luis semea afizionatutan aritu zen pilotan eta Iker bilobak profesioaletan ere jokatu zuen.



UTZITAKOIA

## Uxuri Portu Espainiako kopan lider

Espainiako Nazioarteko C1 trial Kopako lehendabiziko proba jokatu zen martxoaren 16an Cartagenan, Europako pilotu onenekin. Bertan izan ziren Uxuri Portu eta Xabier Valverde ere. Uxuri Portuk 9 eta 12 urte arteko nesken artean proba irabazi zuen eta Espainiako Kopako lider jarri zen.



UTZITAKOIA

## Julen Goia eskolarteko zirkuituan garaile

Julen Goia Mitxelena xake jokalaria konpetiziora bueltatu da. Martxoaren 16an, XXXI. Paz de Ziganda nazioarteko xake txapelketan bigarren izan zen 8 urtez beheko kategorian bigarren izan zen. Emaitza honekin, matematikoki, Nafarroako eskolarteko zirkuituko txapelduna da Julen Goia.

## Internet zerbitzuaren egoerari buruzko inkesta egiten ari da udala

### A. AROTZENA

EHKOM telekomunikazio kooperatibaren laguntzaz, Lesakako Internet zerbitzuaren egoeraren inguruan informazioa biltzen ari da, telekomunikazio egoeraren irudi bat osatu eta dauden beharrak ongi identifikatzeko.

Horretarako, bi minutuz online bete daitekeen inkesta zabaldu du, zuntz optikoa etxera ailegatzan ote den, Internet zerbitzua zein teknologiaren bidez jasotzen den jakiteko edo zerbitzu horren inguruko iritzia ezagutzeko, berteak berte.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

**Txotx denboraldia irekia!**  
Ortzegunetik igandera irekita,  
eguerditik aitzinera.

**Egin erreserba!!**

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

## Batzarraren ondotik Altxata elkartearen etorkizuna kolokan

Bi lagunek segitzen dute zuzendaritza batzordean baina legez sei behar dira eta ekainaren 8ra arte eman daiteke izena

### IRUNE ELIZAGOIEN

Altxata elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen martxoaren 17an. Azken urtea hiru junta kiderekin pasa du eta elkarteak aitzinera egin dezan presazko junta berritzea egin behar dela azaldu zuten. Gisa honetako elkarte baten junta batzordea legez egoki osatzeko, 6 lagun behar dira. Momentuz, orain dauden bi kideak aitzinera segituz, lau pertsona sartu behar dira. Ekainaren 8a izanen da muga. Data hau iristean, junta berria osatzen ez bada, elkartearen etorkizuna birplan-

teatu beharko da, egiten diren ekintzak (dantzak, pilota, gasna feria...) bertan behera utziz. Bazkideen eta herri osoaren esku geratzen da honen inguruko erabakia hartzea.

### Lagun ezkutua

Apirilaren 23an ospatuko den Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira, herri mailako lagun ezkutua antolatu du Altxatak. Parte hartzeko izena eman behar da Pello Apezetxea Kulturgunean, apirilaren 9ra arte. Egun horretan 17:00etan egingen da zozketa.

## Herriko gazteak Oiarzungo Ordo sagardotegian

Martxoaren 16an 40 bat gazte etxalartar joan ziren Oiarzungo Ordo sagardotegira, eguraldi paregabea lagun zutela. Larunbat arratsaldean Heranira joan ziren eta goizaldean autobusean herrira itzuli. Egun ederra pasa zutela ez da erran beharrik.



Gazteak sagardotegi atarian.



KORRIKA

## Etxalartarrak 23. Korrikan

Martxoak 24 goizaldean, Aginatik behera tokatu ziren kilometroetan Etxalarko Gaztik, Etxalarko Udala, Altxata Kultur eta Kirol Elkarte, Herriko okindegia, Landagain Guraso Elkarte, Haritzpe okindegia eta Larraburua Jubilatutako Elkarteak izan ziren lekukoa hartu zutenak.



ITSASO ELIZAGOIEN

## Muxikoak eta dantzak

Larraburua Elkarteak antolatuta, Bortziriak dantzan ospatu zen Etxalarko plazan martxoaren 23an. Muxikoak eta bertze hainbat dantza egin zituzten larunbat arratsaldean, Baztango fanfarreak jotako doinuekin. Jende andana elkartu zen giro ezin hobean.



**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com



**ELUTSA**  
EGUNEKO ETA  
ASTE BURUKO MENUAK

**PINTXOAK - BOKATZE  
RAZIOAK**

Andueta, 13 - ETXALAR  
T. 948 635 191



**Jauzena**  
Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformatik, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

## Baratzondo jubilatuko elkarteak junta aldaketa egin dute

Martxoaren 9ko batzarrean erabaki zuten, Axun Iribarren lehendakari eta Jose Luis Sein lehendakari orde izanen dira

### ANA ETA ITZIAR

Baratzondo jubilatuko elkarteak urteroko batzarra egin zuen martxoaren 9an eta, urteroko plangintzaz, hitzaldi eta ikastaroen antolaketaz aritu ziren, bertzeak bertze. Zuzendaritza batzordea edo junta aldaketa ere erabaki zuten; horrela, heldu den urterako juntan ondokoak izanen dira. Lehendakaria: Axun Iribarren; Lehendakari orde: Jose Luis Sein; Idazkaria: Tere Taberna; Diruzaina: Iñaki Goienetxe; Bokalak: Antonio Irazoki eta Jose Mari Almandoz.

### Zinegotzi berria

Amaia Iguzkiagirre Iturbidek zinegotzi izateari utzi ziola aipatu genuen eta bere tokian Gorka Obeso Inza sartu da.

### Easo abesbatza

Jende ugari bildu zen martxoaren 16an Easo abesbatzak, Gorka Mirandaren zuzendaritzapean emandako kontzertuan. Pianoa jotzen Lucia Arzallus aritu zen. Hainbat kanta ederrez gozatzeko aukera izan zuten hurbildu zirenek. Biltokiko afarian ere giro ezin hobean egon ziren.

## 'Bizkarsoro' filma apirilaren 12an emanen dute

Hasiera batean *Bizkarsoro* filma martxoaren 22an zen emateko baina data aldaketa izan da honi dagokionean eta apirilaren 12an, ortziralean 19:00etan, izanen dugu ikusteko aukera Baratzondo Elkartearen. Sarrera dohainik izanen da.

## Biltokiko mus tximista apirilaren 5ean berriz ere

Martxoaren 22an Biltoki Elkartearen jokatuak mus tximista txapelketan 10 bikote izan ziren parte hartzen eta sari nagusia Iñigo Almandoz Alzugarai eta Xabi Ibarrola Goñik eskuratu zuten. Hurrengo hitzordua apirilaren 5ean izanen da, 22:00etan.



UTZITAKOA

## Herri Kirol Jokoetan txapelkun

Martxoaren 24an jokatu ziren Etxarri Aranatz XXXVII. Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finalak. Haur mailan herriko taldeak lan bikaina egin zuen eta txapelarekin bueltatu zen etxera. Zorionak ekipo eta prestaketa lanean aritzen diren Kristina Arbués, Anjel Urtxege eta Iñaki Portu!



UTZITAKOA

## Igantziarrek ere Korrikarekin bat

Aurtengoan ere herritarrek bat egin dute Korrikarekin. Eskolako haurrek Korrika Ttikia egin zuten herrian. Korrika handia herritik pasatu ez badin bazen ere, Aginatik beheiti, Eskola eta Guraso Elkarte, Biltoki, Igantziko gaztik eta udal ordezkarien eskuetatik pasatu zen lekukoa.



**ola**  
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus  
bitarteko gure online dendak

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN - T.943 623 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak, Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan.
- Sagardotegi menuarekin egin txotxi!



**DESINSEKTADORA**

DESINSEKTATZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK  
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



**MARTIX**

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450



• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

## Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 19an izanen da

Ekaitza Elkartek bi urtetik behin egiten den hitzorduari data paratu dio

### NEREA ALZURI

Zereginak beti izaten dira eta azken hilabeteetan herritarrak hainbat ekimen prestatzen buru-belarri aritu dira.

Konparazio batera, Ekaitza Elkartearen hurrengo hitzordua mendi itzulia da eta badu data: maiatzaren 19a. Betiko

moduan, herriko mendiak kaskoz kasko lotuko dituen ibilaldia izanen da. Eguna antolatzeke antolaketa lanetan ari dira Elkarteko batzordekideak eta xehetasun gehiago hurrengo zenbakietan emanen dizuegu. Bitartean hasi prestatzen!



KORRIKA

### Aranztarrak Korrikarekin bat

Zirrara. Horixe da martxoaren 24ko goizaldean Korrika pasatzerakoan sentitu genuena. Eskolako haurrak, gurasoak, Ekaitza Elkarteko kideak, udal ordezkariak, Aterpekoak, Gazte Asanbladakoak... Elkarrir lekukoa pasatu zioten eta betiko moduan, momentu hunkigarriak bizi izan zituzten.

### Neska-mutikoak herri kiroletan aritu dira

Aspaldiko partez, eta herriko herri kirolzaleen borodan-teari esker, gaztetxoak herri kiroletan aritzeko aukera izan dute aurten. Hiru talde aurkeztu dituzte eta ederki moldatu dira. Aupa zuek! Heldu den urtean berriz!



BIDAL ETXARTE



Aurkezpen egunean ikasleak Jon irakaslearekin eta Begoña ilustratzailearekin.

### '15 egile, 21 anekdota' liburua argitaratu dute eskolako hirugarren zikloko ikasleak

#### NEREA ALZURI

*15 egile, 21 anekdota.* Horixe da eskolako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek etxean eta inguruan bildutako anekdotekin osatu duten liburuaren izenburua. Jon Olo irakaslearen laguntzarekin egin dute eta martxoaren 21ean aurkeztu zuten liburutegian. Gainera, gonbidatu berezia izan zuten aurkezpen egunean: Begoña Durruti Arizkongo ilustratzailea. Lan bikaina egin dute eta emaitza ere ederra izan da.

Lau eurotan paratu dute saltzeko eta norbaitek nahi badu 679 25 07 05era Whatsappez mezua bidaltzen ahal du. Bildutako dirua ikasleen kartillarako izanen da.

#### Eskolako kontu gehiago

Joan den ikasturtean, irakasleak ikasgaietako hainbat gai proiektu lantzeko formazioarekin

hasi ziren eta aurten bigarren zatiarekin ari dira, proiektuak modu sakonagoan landuz, eta hizkuntzak ingurunearekin uztartuz.

Ikasleekin hainbat lan egin dituzte. Lehen Hezkuntzako lehenbiziko eta bigarren mailako ikasleek, sumendien inguruko proiektua egin dute. Gai horren bueltan, idazten, irakurtzen eta eskulanak egiten aritu dira eta geologo batekin ere bideodeia egin zuten.

Hirugarren mailakoek magiaren inguruko proiektua landu dute hilabete hauetan. Akabailan, erakustaldi bat egin zuten Haur Hezkuntzako ikasleentzako gimnasioan.

Laugarren mailakoek kirolari buruzkoak hartu dituzte oinarri eta erakusketa bat egin dute. Horren aurkezpena ere egin zuten, lanaren prozesua eta emaitza erakutsiz bertzei.

## Giro ederrean joan da aurtengoan ere Asteburu Kulturala

Mus txapelketa sei bikotek jokatu zuten eta Maxux Iriarte eta Rakel Urtxegi suertatu ziren txapeldun

### MAIDER PETRIRENA

Asteburu Kultural ederraz gozatzeko aukera ezin hobe izan dute aurten ere Sunbillako herritarrek. Ortziralean, haur jokoak izan zituzten. Ondotik, bokata-jatea eta musika ere izan zuten. Larunbatean, Ulibeltzak elkartean sei bikotek mus txapelketa jokatu zuten. Sailkapena ondorengoa izan zen: 1. Maxux Iriarte-Rakel Urtxegi; 2. Koldo Herrera-Haritz Bereau; 3. Asier-Gorka Antuña; 4. Patte-re Galtzagorri eta Nieves Biurrarena. Bertzetik, puzgarriak frontoian izan ziren goiz-arratsaldez. Bustitz ostatuan ere bazkaria izan zen. Igandean, Zumalekura mendi irteera egin zuten, eta, eguerdian, gaitariak lagundurik erraldoiek herrian barna itzulia eman zuten. Bi hitzetan: asteburu



Mus txapelketako lau lehenak.



Erraldoiak eta gaiteroak kalejiran.

bikaina. Eskerrak eman antolatzaileei, baita parte hartu dutenei ere.



ESKOLAK UTZIA

### Osasunako Silvia Pérez eskolan

Silvia Pérez Osasuna futbol taldeko atezainaren bisita izan zuten eskolan martxoaren 12an. Bere kirol ibilbidearen berri eman zien ikasleei, eta patioan futbol saio bat egiteko aukera izan zuten, bera atezain izanda, noski! Ederki pasatu zuten eta hagitz esperientzia aberasgarria izan dela aipatu dute.



ESKOLAK UTZIA

### Korrika Ttikia arrakastatsua

Korrika Ttiki ospatu zuten eskolan martxoaren 22an. Goitiko eskolatik abiatu eta lekukoa eskuz eskuz aldatuz plazan akitu zuten. Lekukoak barrenean zeukan mezua irakurri zuten. Ikasle, irakasle eta gurasoak pozik ibili ziren eta *Azterketak euskaraz* kolektiboari ere keinu egin zioten.



UTZITAKOA

### Gazteak Oianume sagardotegian

Sunbillako gazte kuadrilla eder honek, urteroko hitzordua egin zuen Urnietako Oianume Sagardotegian, martxoaren 16an. Ederki bazkaldu ondotik Hernaniko giroaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Goizaldeko ordubietan herrira buelta egin zuten, egun bikaina igaro eta gero.



**Aguirrezabal**  
IGOGAILUAK

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak,  
Izogailuak | Proiektuak  
Karga-jasogailuak,  
plataforma hidraulikoak  
Plater-igogailuak

**MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN MANTENTZE LANAK**



24 orduko zerbitzua

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com  
ascensoresaguirrezabal.com

Arretxe Ugalde Ind.  
Ezurriki kalea, 29 IRUN  
943 612 821

## Mugari buruz aritzeko eta hausnartzeko

Mugaldeko herritarrek mugarekin duten harremana aztertzeko asmoz Mugalur proiektua garatzen ari dira Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua, Cederna Garalur eta EHU. Hainbat saio egin dituzte herritarrekin eta hurrengo Amaiurren eginen dute, apirilaren 13an

### A. LARRETxea

Bi lurralde bereizten dituen marra. Hala definitzen du Euskaltzaindiak muga hitza. Eta muga kontzeptua hartuta ari da garatzen Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua, Cederna Garalurrekin eta EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera Mugalur proiektua. Mugaren inguruan bizi diren herritarrek mugarekin duten harremanaren inguruan hausnartzea da proiektuaren funtsa, eta Euroeskualdeak finantzatu du. Hainbat bilgune sortu dituzte mugaren bi aldeetako herritarrak elkartu eta hausnarketara bideratzeko. Bederatzi bilgune eginen dituzte denera, eta horietako bortz iraganak dira, artean Beran eta Saran egindakoak. Bertze lau egitea falta du proiektuak, eta Amaiurren izanen da horietako bat, apirilaren 13an, larunbata, 10:30ean. Mugako herrietan izanen dira ia denak eta azken biak mugaldetik urrunago diren eremuetao herritarrekin egin nahi dituzte.

### Mugak irekita

#### «harreman gutxiago»

Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluko langile Elena Casiriain da proiektuaren arduraduna, eta doktoretza tesia osatzen ari da antropologian. Mugalurrek hiru helburu dituela azaldu du: «Alde batetik, herritarrak mugaren kontzeptuaren bueltan hausnartzen jartzea, bestetik, mugaz gaindiko lan harremanez gain, bestelako harremanak ere badirela erakustea, eta geroa-ri buruz hausnartzea».

Proiektuaren abiapuntua zein den azaldu du: «Garapen Kontseiluan ohartu ginen muga ireki denetik eta mugitzeko arazo gutxiago dugunetik harremanak ari direla urruntzen, bertze moduz batez bizitzen dugula muga hori». Are gehia-

go, mugaren bi aldeetako herritarren arteko harremanak gutxitzeaz gain, mugaren inguruko norberaren bizipenak desberdinak direla dio: «Ez da gauza bera Hendaian edo Iru-nen bizitzea, edo Santa Engrazin eta Izaban; euskalduna



Parte hartzaileetako batek tailerretako batean osatutako mapa. XIMUN CARRÈRE



Parte hartzaileetako bat saioetako batean parte hartzen. XIMUN CARRÈRE

**MUGARI BURUZ  
HAUSNARTZEKO  
HERRITARRAK  
ELKARTU DITUZTE**

**AMAIURREN  
APIRILAREN 13AN  
ELKARTUKO DIRA  
10:30EAN**

izatea edo ez, familia izatea mugaren aldean edo ez... Ez dugu errealitate berdina bizi».

Horregatik errealitate hori da bildu nahi dutena, mugaldeko herritarrek nola bizi duten hori, egunerokoan eraginik baduen edo ez... «Badugu muga politiko bat Euskal Herriaren baitan, eta ikusi nahi dugu nola bizi garen, zer eragin sortzen duen muga horrek guru bizietan, eta horretaz gogoetatzeko espazio bat sortu nahi dugu».

Bost saio egin dituzte orain arte: Urepelen, Orbaitzetan, Izaban, Beran eta Saran. Helburua bilkura horietarako bakoitzera mugaz bi aldeetako jendea elkartzeko izan da eta orain arte denera 84 lagunek hartu dute parte proiektuan. Egindakoaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Casiriainek azaldu duenez, orain arteko bilguneetara bereziki mugarekin harremana edo interesa duten herritarrak hurbildu dira, baina, azaldu du edonor hurbildu daitezkeela, baita harremanik ez duena ere: «bere bizipena eskuratzea biziki gauza aberatsa da».

### Nolakoak dira saioak?

Saio bakoitzean bi orduz elkartzeko dira, eta mapak izaten dira ardatza. Muga markatua ez duen mapa horietan, parte hartzaileei habitatzen duten eremua markatzeko eskatzen diete: lana non egiten duten, non duten familia, aisialdia, erosketak, sentimentalki zein herriekin dauden lotuta... Horren denaren helburua «bizitza eremua» irudikatzea da. Behin hori eginda, muga kontzeptuari buruz aritzen dira; mapan non kokatuko luketen, nola materializatzen den... Egindako mapa hori taldean lantzea izaten da hurrengo urratsa, bakoitzak berea aurkeztuz eta zein bertzeari buruz mintzatuz.

Maparen lehenengo zatia bukatuta, horren gainean kalkoa ezartzen dute, eta bertan, bere mapan aldatu nahi duen hori adierazten dute, bere ame-





Mugalur proiektuan parte hartu duten hainbat herritar Urepelen egindako saioan. AITZPEA LEIZAOLA

tsetako bizi eremua zein litza-tekeen zehaztuz, eta hori ere taldekideen artean aipatzen dute. Maparekin bukatzeko, bakoitzak asmo duen hori egiteko konpromisoak idazten ditu. Bigarren zatian aldiz, parte hartzaile bakoitzak arbola bat osatzen du ondorengo ideiekin: zer gehiago egin behar dugu, zer gutxiago, zer hasi behar dugu egiten, zer gelditu egiten eta zertan segitu berdin. Bukatzeko pintxo bat bat ematen dute jateko, «eta horrek ere badu inportantzia guretzat, saiatzen garelako biltzen bi aldeetako jendea eta sortzen sozializatze espazio bat», azaldu du.

Herritarren bizipenak biltzeaz harago, saio guztietara gonbidatzen dituzte ilustratzaileak, bertan bildutako gogoetak paperean islatzeko. «Mugaren errealitatea biziki subjektiboa da, badu alde emozional bat, eta arteak laguntzen ahal digu horretan», dio Casiriainek. Ilustrazioak egiteko «libre»

uzten dituzte sortzaileak, bai moduan eta baita denboran ere. Bertaraten diren artistek, batzuek saioan berean bukatzen dute lana, eta bertzeek, aldiz, saioan hasi eta etxean bukatu. Adur Larrea aritu zen Berako saioan, eta Jone Taberna Sarakoan.

**Muga, «euskaldunen auzia»**  
Helburua norbanako bakoitzak mugarekin duen harremana aztertzea denez, etortzen direnarekin «pozik» daude: «Ez gara zerbait berezia bilatzen ari. Ez gara nor errateko jendea ari zer egin, ez da helburua esatea gehiago ibili behar duzue mugaz gaindi. 84 parte hartzaile izan ditugu, bere bizipenekin eta profil aski des-

berdinekin». Hala ere, eta nahiz eta denei irekia izan, batez ere parte hartzaileak «euskaldunak» direla ondorioztatu dute: «Nahiz eta komunikazioa hiru hizkuntzatan izan, eta denei irekia, oro har euskaldunak dira hurbiltzen. Iduri du mugaz gaindikoa euskaldunen gaia dela, eta ez gaitu harritu».

Lehen borts saioak eginda, sorpresarik hartu ez diotela dio Casiriainek. «Mendigunean egindako tailerretan ikusi dugu argiki jendeak baduela argi mendia muga bat dela, erakuntza soziala da mendia nola bihurtzen dugun muga. Nahiz eta muga fisikorik ez izan, oztopo handiak ikusten dira». Aitzinetik zuten ideia ere indartu dute saioetan, «muga

ireki dela, eta iduri duela harreman gutxiago dugula bertze aldearekin». «Aunitz aldatu da gizartea azken hamarkadetan, beste abiadura batean ari gara, eta biziki lotuak gara estatuen zentroei». Adibidez hornitu du azalpena: «Erreferente kulturetan ikusten dugu argi: errazagoa da Aezkoako xokotik Madrilgo berriak jakitea eta Donibane Garazitik Pariskoa, elkarren arteko berriak baino. Gure sistemak horrela eginak dira eta uste dut muga horrek baduela eragin bat gaur egun, nahiz eta ez irudi».

**Hemendik aitzinerakoak**

Udarako bukatuko dituzte herritarrekin egin beharreko saioak, eta ordurako nahiko lituzkete bildu lanaren lehen ondorioak, eta parte hartzaileei aurkeztu, nahiz eta oraindik ez duten argi zein formatutan egingen duten hori. Horrez gain, artistekin lantzen ari dira tailerretan ateratako material hori nola erabili beste artelan batzuk sortzeko. Lan horiez harago, ikerketarekin ateratako ondorioekin eta tendentziekin, tesu klasikoagoak eta txostenak ere osatuko dituzte, beti ere «elkarriketa uztartzuz artisten eta ikerlarien artean». Paraleloki, prozesu luzeago bat lantzen ari dira Casiriain idazten ari den tesiaren barrenean. Euskal Herriko Udako mugaz gaindiko ikastaroetan aurkeztuko dute ikerketaren adar hori Baionan egingen duten jardunaldian.

Proiektuari buruz informazio gehiago nahi duenak Cederna Garalurren webgunean, edo QR kode hau erabilita aurkituko du informazioa.



**MUGA EUSKALDUNEN AUZIA DELA IKUSI DUTE SAIOTAN**

**ONDORIOAK HERRITARREKIN PARTEKATZEA DA ASMOA**

Mugalur proiektuak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko dirulaguntza jaso du.



## «Pentsio duinak» eskatu dituzte pentsiodunek

Herrian egin zuten Baztan-Bidasoko pentsiodunek martxoko elkarretaratzea. Pozik daude taldean kide gehiago direlako

### TTIPI-TTAPA

Martxoko elkarretaratzea herrian egin zuten Baztan-Bidasoko Pentsiodunek. 36 lagun bildu ziren, eta kontatu dutenez, taldea handitzen ari da. Euren ustez, «horrek aldarrikapenen dimentsioa handitzen eta mobilizazioak eraginkorragoak izaten laguntzen du. Segi dezagun bide horretan».

Horrekin batera, 1.080 euroko guttieneko pentsioa lortzeko azken hilabeteetan egindako lana txalotu zuten, baina «oraindik dena egin



Pentsiodunen elkarretaratzea.

behar dela eta, pentsiodunok presionatzen segitu behar dugula» nabarmendu zuten; «hartutako konpromisoa bete dadin».

### Erraldoien entsegua apirilaren 14an eginen dute

Bestetan inportanteak izaten dira erraldoiak eta herriko Konpartsak lehenengo entsegua eginen du apirilaren 14an 19:00etan Aparanen. Dantzatzea, lagun arteko giroa eta gosariak maite dituztenak entsegura eta konpartsara gonbidatu dituzte.

### Emaitza bikainak lortu dituzte Errekako judokek

Errekako judokek gogor entrenatzen segitzen dute, eta horren erakusgarri Gaxuxa Zelaietak eta Joanes Juanotek lortutako emaitza bikainak. Zelaietak, gainera, Espainiako Txapelketa jokatu du apirilaren 27an Iruñean. Zorionak bikote!



UTZITAKOA

### Arbolak iaz sortutako haurren omenez

Azken urteetan bezala aurten ere aitzineko urtean jaiotako haurren omenez arbolak landatu dituzte. Iaz 18 haur sortu ziren Donezteben: Adei, Ander, Alix, David, Imran, Charlotte, Arai, Mattin, Oihan, Hegoi, Ane, Kaiet, Ioritz, Yassir, Laia, Enai, Maitane eta Niko. Haur bakoitzak arbola bana izanen du.



UTZITAKOA

### Korrika Ttikia egin dute eskolan

Korrika Doneztebetik pasatu ez bada ere, eskolako ikasleek bat egin dute aurtengo edizioarekin. Martxoaren 22an, ortziralea, karrikaz karrika aritu ziren lasterketa euskararen alde petoak soinean zituztela. Ondotik, patioan mezua irakurri zuten.



**AURREMATRIKULA:**

Apirilaren 10etik 24ra udaletxean

**MATRIKULA:**

Ekainaren 6tik 12ra udaletxean



Elizagibela karrika 8, behea. | T. 948 45 18 68 | DONEZTEBE | NAFARROA | askinhaureskola@gmail.com

euskaltzaleen topagunea

# GERO ETA ALDEKO GEHIAGO

TEJIENDO ALIANZAS

Apirilaren 17an, Iruñeko Kondestablearen Jauregian.



EGITARAUUA:





Dunixe Alberro eta Irantzu Vidan txapeldun, Gomez eta Hita txapeldun orde.

## Dunixe Alberro Nafarroako kirol jokoetan txapeldun

Eskuz banakako pilota txapelketa irabazi zuen infantil mailan, martxoaren 23ko finalean Uxue Gomezi 18-16 irabazita

### ARKAITZ MINDEGIA

Joan zen urtarrilaren 12an eman zitzaion hasiera Nafarroako Kirol Jokoen barrenean nesken eskuz banakako pilota txapelketaren ligaxka faseari. Bertan, alebin mailan, Ados Pilota Elkarteko eta herrikoak diren Alaitz Aiora Goñik eta Malen Bereau Mindegiak hartu zuten parte, hiru taldetan banaturik zeuden hamaika nesken artean.

Era berean, infantil mailako kategorian, Nafarroa osoko elkarteetako bederatzi neskek hartu zuten parte, haien artean, Ados Pilota Elkarteko Garazi Iñigo Lujanbio eta Dunixe Alberro Isasi herritarrak zeudela.

Ligaxka fase honetatik, alebin mailan Alaitz Aiora eta infantil mailan Dunixe Alberro, herriko bi pilotariak izan ziren Sunbillako frontoian martxoaren 16an jokatuak finalerdietara sailkatu zirenak. Bertan, Alaitz Aiora Irantzu Vidan Yanciren aurka jokatu zuen 13-18 galduz, partida lehiatua jokatu ondotik. Infantil mailan, aldiz, finalerako txartela lortu zuen Dunixe

Alberrok, Leitzako Aurrera Elkarteko Garazi Imaz Ezkuraren aurka 18-13 irabaziz.

### Finalak martxoaren 23an Iruñeko Labriten

Finalak, martxoaren 23an, larunbat goizean jokatu zituzten Iruñeko Labrit pilotalekuan. Lehenbiziko, alebin kategoriako finala jokatu zuten Lizarrako San Miguel Pilota Taldeko Irantzu Vidan Yanci eta Bortzirietako Ainara Hita Aranguren igantziarraren artean. Emaizta 18-13koa izan zen. Beraz, Lizarrakoa txapeldun eta Igantzikoa txapeldun orde.

Infantil mailan, berriz, Ados Pilota Elkarteko Dunixe Alberro Isasi herritarra, Zizurreko Ardoi Pilota Elkarteko Uxue Gomez Basurtoren aurka lehiatu zen. Partidu borrokatua eta era berean, ikusgarria eskaini zuten bi pilotariek, eta garaiena iturendarrak lortu zuen (18-16). Ondorioz, Dunixe Alberro Isasi txapelduna suertatu da Nafarroako XXXVII. emakumezkoen infantil mailako eskuz banakako pilota txapelketan.



AINARA MINDEGIA

## Pulunpa Eskolakoak Korrika Ttikian

Akitu da Korrikaren 23. edizioa. Aurtengoan herritik ez da pasatu, baina herritarrek eskualdean eta Euskal herrian zehar parte hartu dute, baita amaierako bestan ere. Halere, herriko karriketan barrena Pulunpa eskolakoek antolaturiko Korrika ttiki izan zuten martxoaren 22an, giro ederrarekin.

## Aurtizko joaldunak Bergarako Erramu Zapatuan

Martxoaren 23an Aurtizko Joaldunak Bergaran egon ziren bertze urte batez. Gipuzkoako herri honetan Erramu Zapatuko feria ospatzen dute. Joaldun kuadrilak bertako kaleak alaitu zituen joare soinuekin. Urte dexente dituzte aurtiztarrek Bergarara joaten.

## Herriko futbolariak Aste Santuko torneoetan

Herriko gazteak hainbat kirolletan ari dira, baita futbolean ere. Osasunako Fundazioan eta Doneztebe futbol taldean ari dira. Aste Santuan batzuk opor izan dute, baina herriko zenbait futbolari beraien mailako torneoetan parte hartzeak ziren Donostian.

## 95 tona hondakin berezi selektiboki kudeatu dituzte

Malerrekako Mankomunitateak emandako datuen arabera, garbiguneei esker 20 tona hondakin berrerabili dituzte

### TTIPI-TTAPA

Gaur egungo gizartearen arazo larrienetariko bat hondakin sorrera da. Biztanleria kopuru geroz eta handiagoak, batetik, eta gaur egungo kontsumo ereduak, bertzetik, geroz eta hondakin kopuru handiagoa sorrarazten dute, eta hondakin horien kudeaketa lehentasun handiko kezka edo gaia bihurtu da. Hori dela eta, gizartean zein ekosistemetan eta biodibertsitatean kalteak ekiditeko, tokiko administrazioek bi erronka garrantzitsu dituzte aurrean: prebentzioa/murrizketa bultzatzea eta sortutako hondakin kudeaketa eta tratamendua optimizatzea.

Etxeko hondakinaren artean, tresna elektronikoak, jostailuak, pinturak... era desegokian kudeatzeak ingurugiroan kalte handiak sor ditzakete. Hori dela eta, Miterd izeneko diru laguntzei esker, Malerrekako Mankomunitateak hondakin horien sorrera murrizteko eta horien kudeaketa hobetzeko baliabide sorta ezarri zuen: etxola formako garbigune txi-

kiak eta Doneztebeko Garbigunea.

Horrela, Malerrekako Mankomunitateak Iturenen eta Donezteben errentan zituen etxolak erosi zituen eta horretaz gain, Donamarian hirugarren etxola bat jarri zuen. Etxola horiei esker, urtebetean 7 tona hondakin berezi (disolbatzaileak, pinturak, pilak, etxetresna elektrikoak...) modu egoki batean kudeatu ahal izan dira.

### 1.924 herritar Garbigunetik

Bertzalde, Nafarroako Gobernuko eta Europako Miterd diru laguntzei esker, Mankomunitateak 600.000 eurotik goitiko inbertsioari aurre egin ahal izan zion eta Doneztebeko Garbigunea eraiki zuen. Horrela, 2023ko otsailean martxan jarri zenetik, garbigunera 1.924 herritar gerturatu dira hondakin bereziak bertan uztera. Osotara, urtebetean 88 tona selektiboki kudeatu dituzte Garbigunean eta barrenean dagoen bigarren eskuko merkatuari esker, 20 tona hondakin berrerabili dira.



UTZITAKOIA

## Malerrekako eskola ttikiak eskiatzen

Malerrekako eskola ttiketako familiek Larra-Belaguan elurretan gozatzeko aukera ederra izan zuten martxoaren 17an. Eguraldi ezin hobea lagun zutela, egun pasa bikaina izan zuten. Kuadrilla polita bildu zen eta berriz ere elkartzeko gogotsu bueltatu ziren beraien etxeetara.



SUNBILLAKO ESKOLAK UTZIA

## Sunbillako eskola Uharteko A3 zentroan

Martxoaren 18an, 19an eta 20an Sunbillako eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Uharteko A3 arte zentroak prestatutakako *Gu eta gorputzak zeharkatzea* hezkuntza proiektuan parte hartu dute. Oteiza Museoa eta Maite Velazen erakusketa ere bisitatu zituzten.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

ORBELA  
SERKIBIOA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel  
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com



**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat  
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

**INGURUNE BERRI BAT  
ZURE IRRIBARREARENTZAT**  
astelehenetik ortziralera  
**08:00-13:00**  
**15:00-20:00**  
larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA  
Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklínika.es  
@liderahortzklínika

## Beintzako ostatu-aterpea ixteko arriskuan dago

Beintza-Labaiengo Udala hartzen hasi den neurriekin urrian 35 urte beteko dituen Beintzako ostatu-aterpea ez dela bideragarria izanen salatu dute bertako ostalariek. Egoera azaltzeko agerraldia egin zuten martxoaren 15ean Donezteben, hainbat eragileren babesarekin

**TTIPI-TTAPA** BEINTZA-LABAIEN Nafarroan sortu zen lehen aterpetxe turistikoetako bat da Beintzako aterpea eta, aldi berean, Beintza-Labaiengo herriko ostatua da. Urriaren 8an 35 urte beteko ditu jardunean eta 2030 bukaera arte kontratua du. Baina, Mikel Albisu eta Idoia Etxeberría arduradunek aipatu dutenez, «berriki herrira bizitzera etorri zen bizilagun batek Nafarroako Gobernuako Turismo Zerbitzuan jarritako salaketa baten aitzakiaz, Beintza-Labaiengo Udala ostatua-aterpetxearen itxiera ekarriko duen hainbat neurri hartzen hasia da, jarduera ez delako bideragarria izanen». Turismo Zerbitzuak aterpetxea hainbat irregularitasunez akusatzen duen salaketa artxibatu duen bitartean, «udal instalazioak jangela zerbitzurako erabiltzeari eta herriko leku publikoak aterpetxea kudeatzen duen Orbela enpresak antolatutako jardueri eragiten dieten neurriak» hartu ditu udalak.

Beintza-Labaienek, 225 bizilagunekin, bere populazioaren % 25 galdu du mende honetan zehar eta, «badaki zein zaila den herri txiki batean ostalaritzako jarduera eta zerbitzua bati eustea», adierazi du Albisuk. Horregatik, herriko ostatuko jarduera aterpetxeko eta turismo jardueretako proiektu batekin lotua egon da, bere bideragarritasun ekonomikoa bermatuz. Ostalariek Orbela enpresa sortu zuten eta, «2008 urteko eta Covid-19ko krisiak gainditu ondotik, bertako kultura, hizkuntza eta natur baliabideak baloratzen eta errespe-

tatzen dituen proiektua garatzen» segitzen dute. Bost pertsona aritzen dira urte osoan, 7-8 udan. Hala, urte hauetan «50.000 lagun baino gehiago izan dira aterpetxean, gehienak eskola edo aisialdi taldeak, familiak eta kuadrillak, eta bertako produktuak dastatu dituzte. Bertako komertzioa sustatzea, batez ere Doneztebekoa, proiektuaren bertze ezaugarri bat da».

Orbelako langileek ez dute udalaren jarrera ulertzen, «bere solairuan dagoen eta aterpetxeko jantokirako erabiltzen

den areto baten zesioa kentzea erabaki du, leku hori beste jardueratarako (haur eta ikasleekin jokoak/taillerrak) erabilia izan dela argudiatuz, 42 leku duen aterpetxea 30 leku duen jantoki batekin utziaz». Zesio hori aurreko udal korporazioak egin zuen eta, oraingoak legez kanpokoa zela esaten bazuen ere, Nafarroako Kontseiluak prozedura legala izan dela ebazti du. Udalak ematen duen soluzioa, «Turismo sailak onartuko lukeen aterpetxeko logelen artean dagoen gela baten era-

bilpena, ez da bideragarria», esan du Albisuk. Horrez gain, leku publikoen erabilpena arautzen duen ordenantza garatzen ari da udala (bereziki, ostatuaren ondoko frontoia), «taldeen-tzako antolatzen diren jarduerak nabarmen murriztuz edo debekatuz». Hau bereziki larria da eta «2010ean ostatua-aterpetxea esleitzeko baldintza pleguaren kontrakoa, bertan 100 puntutik 35 ematen baitziren Turismo sailean erregistratutako enpresek antolatutako eta jardueren programari». Jarduera hauek 34 urtetan garatu dira herritarren erabilpena errespetatuz eta bermatuz, eta urte hauetan ez dela ia kexarik ezta salaketarik izan.

### Otsailaren 23ko batzarra


Udalak neurri hauek eta ordenantzak garatu ditu, hainbat herritarrek egoera argitzeko asmoz 2023ko irailean eskatu zuten herri batzarra deitu gabe. Batzarra bost hilabete beran-



Xabier Zugarramurdi.

### Euskara sustatzeko akuilu

Gure kasuan badira 25 urte inguru Beintzako eta Arantzako aterpeak elkarlan handia egiten dugula. Euskara sustatzeko proiektuan lan egin dugu, bai gure udalekuak antolatzen, baita hezkuntza departamentuarekin ere. Dudarik gabe, akuilu inportantea da eskualdean euskara sustatzeko proiektuetan Beintzako aterpeak egin duen papera.



Amaia Juaniz (Dunboa IP).

### Euskara egoera naturalean

Irungo gure eskolako ikasleak inguru erdal-duneko hiritarrak dira eta aukera eskasa dute euskara egoera naturalean bizitzeko eta landa giroa hurbiletik ezagutzeko, ez bada antolatzen ditugun txangoen bitartez. Azken urteetako gure aukera izan da Beintzako aterpean ikasleekin gaua pasatzea eta beraientzat esperientzia ahaztezina izan da.



Iñaki Sanzberro.

### Herriari bizia ematen diete ostatuek

Erratzuko alkate naizen neurrian, aipatu zein garrantzitsua den herriko ostatu-jatetxeak mantentzea, herriari bizi handia ematen diotelako, sozializatzeko lekuak direlako eta ikusi dugulako herri tikieta ostatuak desagertu direlarik, zein zaila den ostatu horiek beriz martxan jartzea. Mendizaleontzat ere atsedenerako aukera ematen dute.

duago egin zen, 2024ko otsailaren 23an, ia 100 bizilagunen parte-hartzearekin eta, «udalari arazoari irtenbide positibo bat emateko eskatu zitzaion, ostalariekin akordio batera ailegatuz eta jarduera bermatuz». Ostalariek neurriak irailaren 1a arte ez aplikatzea eskatu dute, udaberri honetan 20 ikastalde baino gehiagok egonaldia erreserbatu eta udalekuak ere marxtan dituztelako.

Bideragarritasuna eragozten duten neurriak bertan behera utzi eta ostalariekin irtenbide negoziatu bat bideratu dezala eskatu diote Beintza-Labaiengo Udalari. Ostatu-aterpetxe-koek deialdi berezia egin diete despopulazioaren arazoan inplikatuak dauden entitateei (alderdi politikoak zein Nafarroako Parlamentua), landa eremuan populazioa finkatzeko proiektu ekonomikoak sustatzen dituztenei (Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoa eta Cederna-Garalur),



Hainbat eragilek babesa eman zioten Beintzako ostatuko Idoia Etxeberriari eta Mikel Albisuri, Doneztebeko agerraldian.

natur eremuetan errespetuzko garapen turistiko jasagarria bultzatzen dutenei (Nafarroako Turismo Zerbitzua) edo bere herriko komertzioa kaltetua izanen den udal ordezkari (Doneztebe eta bertze udalak) ere, beti ere bakoitzaren esku-menak errespetatuz.

**Udalaren ustez, «neurri egokiak»**  
Afera honetan, «beharrezko aholkularitza juridikoa izanik eta indarrean dagoen legeria zorrotz errespetatuta», Beintza-Labaiengo Udalak neurri egokiak hartu dituela adierazi du komunikatu batean. «Hasiarik bizilagunen arteko

gatazkan bitartekari-lanak» egiten saiatu dela aipatu du eta Beintzako ostatuak urte hauetan egindako lana ere baloratu du. Hala ere, «gogoraz behar dugu arauak errespetatu behar direla, batez ere herrian bizikidetzan ona izan nahi denean», jakinarazi du.



Mikel Bango.

## Bertakoaren aldeko apustua

Beintzako ostatuak eskualdeko komertzioaren aldeko apustua egin du eta Doneztebeko Elorza harategian urteetako lan harremana dugu. Beharbada bertze lekuren batean gurean baino merkeago edo garestiago eros dezakete haragia, baina bertako produktuen alde egin dute beti eta egunero etortzen dira. Plazer bat da beraiekin lan egitea.



Zipriana Matxiñena.

## Herrian lan egitearen garrantzia

Ostatuak, herriarentzako zerbitzua emateaz gain, emakumeentzako lan aukera polita da gurea bezalako herri txiki batean. Herriari bizitza ematen dio. Iku-si besterik ez da egin behar zer jendetza biltzen den igandetako aperitibora, adin guztietakoa. Bertan lan egiten dut eta, emakume langile bezala, niretako inportantea da herrian lan egin ahal izatea.



Belen Urrutia.

## Ezin dugu baliabide bat galtzen utzi

Hainbat urte ditugu Baztan-Bidasoaldean hainbat eta hainbat proiektu aitzinera eramaten, turismoa kudeatzeko. Zailtasunak izan ditugu, krisia dela, pandemia dela, arazo gehiago etorriko direnak... baina aitzinera ateratzen gara eta ez gaude kide bat galtzeko, ez ekonomikoki, ez pertsonalki. Ezin dugu halako baliabide turistiko berezi bat galtzen utzi.



Beatriz Huarte (ANAPEH).

## Herri aunitzen ametsa da

Zoritxarrez, ANAPEH elkartetik erran dezakegu arrakasta izaten duten udal aterpe oso oso gutxi ezagutzen ditugula. Beintzako salbuespenetako bat dela erran daiteke, 35 urte dituzte lanean, proiektua sortu, hazi eta sendotu dute, baina beti bertakoaren ikuspegitik. Nafarroako herri aunitzek amets egiten lukete honelako proiektu batekin.



Sunbilla eta Oizko ordezkariak Malerrekako Mankomunitatearen kilometroan. KORRIKA



Eratsungo Udaleko kideak Korrikaren lekukoarekin. KORRIKA

## Mankomunitatea, Ezkurra eta Eratsun ibili dira Korrikan

Mankomunitateak eta Eratsungo eta Ezkurrako udalek erosi zuten kilometroa eta Saldiasen Korrika Ttikia egin zuten

### TTIPI-TTAPA

Batzuk Korrika nagusian, eta bertzeak Korrika Ttikian. Era batera edo bertze, Malerrekako herritarrek bat egin dute Korrikaren 23. edizioarekin.

Korrika nagusian, lekukoak hiru kilometro egin zituen malerrekarren eskuetan: Malerrekako Mankomunitateak, Eratsungo Udalak eta Ezkurrako Udalak kilometro bana erosi zuten. Malerrekako Mankomunitateko ordezkariak martxoaren 15eko arratsaldean hartu zuten lekukoa, Artesiagako bidean. Eta Eratsungo eta Ezkurrako udalek kilome-

troak martxoaren 19an egin zituzten. Eratsundarrek Basakabitik Goizuetarako bidean hartu zuten lekukoa eta ondotik, ezkurrarre pasatu zieten.

### Korrika Ttikia Saldiasen

Korrikarekin bat eginez, Saldiasko Otsonta eskolan ere Korrika Ttikia egin zuten martxoaren 22an. Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek buelta bana eman zioten herriari eta plazan bukatu dute euskararen aldeko lasterketa, *Erre zenituzten* kantatuz eta dantzatuz.



Ezkurrako herritarrek ere ez zuten hutsik egin Korrikan. JAIONE ZABALO



Saldiasko eskolan Korrika Ttikia egin zuten martxoaren 22an. IZASKUN ZUBIALDE

## Erretzeari uzteko tailerrak osasun zentroan

Maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an eta ekainaren 5ean eta 12an erretzeari uzteko tailerrak egingen dituzte Doneztebeko Osasun Zentroan, 17:30etik 19:00etara. Malerrekako herritarrei irekiak dira eta apuntatzeko Doneztebeko osasun zentrorra deitu behar da.

## Emakumeen bazkaria Urrozen

Ohi baino beranduago, baina Emakumearen Egunaren aitzakian, bazkaria egin zuten martxoaren 22an Urrozko Herriko Ostatuan. Talde polita bildu zen, eta mahaiaren bueltan gustura egoteko aukera izan zuten.



JAIONE ARIZTEGIK UTZITAKOIA





20 bat lagun bildu ziren martxoaren 22ko aurkezpenean. IÑAKI SANTXEZ

## Apirilaren 13ko manifestaziorako joateko deia

Azpeitian 'Lurraren defentsan. Euskal Herria bizirik' lelopean egitekoa den manifestazioarekin bat egin du Malerreka Bizirik-ek

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herria Bizirik plataformaren aurkezpena egin zuten martxoaren 22an Zubietako eskolan eta 20 bat lagun bildu zituen hitzorduak. «Lurraren defentsan, proiektu txikitzaileei aurre egiteko» asmoz sortua da Euskal Herria Bizirik sarea, «natura eta landa ingurunea suntsitzen dituzten makroproiektuen inposizioari aurre egiteko» eta plataformako bi kidek taldea nola sortu zen esplikatu zuten Malerreka Bizirik taldeak antolatutako hitzorduan. Ondotik, bildutako artean solasaldia egin zuten: lurren eta biodibertsitatearen degradazioa, trantsizio energetiko eta elektrifikazioa, nazioarteko enpresen negozio gose aseezina, herritarren ekinbide eta ohi-turak berriztagarri merkatu globalean...

Horrekin batera, *Lurraren defentsan. Euskal Herria bizirik* lelopean apirilaren 13an Azpeitian (Gipuzkoa) egitekoa den jardunaldiaz aritu ziren. Egun osoko egitaraua prestatua dute: goizean tailerrak, eguerdian mahai ingurua, ondotik bazkaria eta arratsaldean, 18:00etan, manifestazioa. Hitzorduarekin bat egin du Malerreka Bizirik taldeak eta harat joateko gonbidapena egin du.

Martxoaren 22ko aurkezpena akitzeko, bildutakoek Zubietako taloak eta sagardoa dastatzeko aukera izan zuten. Gisa berean, Malerreka Bizirik-ek «herri plataformak etorkizun jasangarri eta ez suntsitzaile bat gauzatzeko ezinbesteko eragileak garela eta gure indarra elkartasunean dagoela» aldarrikatu nahi izan du.

## Legasan eta Narbarten Korrika Ttikian ibili dira, legasarrak baita Korrikan ere

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15eko arratsaldean legasar kuadrilla polita elkar-tu zen Artesiagako bidean, Korrikaren 262. kilometroa hartzeko prest. Ttiki nahiz handi, euskararen aldeko lasterketako lekukoa ibili zuten maldan goiti.

Horrez gain, Legasako eta Narbarteko eskoletan hitzordu handiari keinua egin zioten eta Korrika Ttikia antolatu zituzten martxoaren 22an. Gelaka eta mailaka banatuta, eskuz esku ibili zuten lekukoa bi herrietako ikasleek. Eguraldia lagun, ederki ibili ziren.



Legasako herritarrak lekukoa eskuetan. KORRIKA



Narbarteko eskolan Korrika Ttikia egin zuten martxoaren 22an. MAITE BERTIZ



Legasako eskolan ere eskuz esku ibili zuten lekukoa. NEREA MEOKI



Diseno grafikoa | Publizitatea  
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



Aurtengo txapelketetako irabazleak sariak eskuan dituztela. UTZITAKOIA

## Txapeldunak zubietarrak eta etxalartarrak

Martxoaren 14an jokatu zituzten Donezteben aurtengo mus eta partxis txapelketetako finalak

### TTIPI-TTAPA

Urte hasieran hasi, eta martxoaren 14an jokatu zituzten elkarteko mus eta partxis txapelketetako finalak. Musean 41 bikote aritu ziren finalean eta partxisean, aldiz, sei.

Museko irabazleak Zubietako Pedro Jesus Santesteban eta Jose Fco Mutuberria izan ziren, bigarrenak Goizuetako Isabel eta Micaela Etxeberria eta hirugarrenak Leitzako Jose Luis Larralde eta Jesus Maria Etxeberria.

Partxisean, aldiz, aurreko lehenengoz egin dute txapel-

keta eta lehenengo hiru postuetan etxalartarrak gelditu ziren. Irabazleak Mercedes Santesteban eta Maria Isabel Berrueta izan ziren, bigarrenak Maria Luz Ariztegi eta Maria Asunción Oskariz, eta hirugarrenean Maria Asunción Olagarai eta Maria Juncal Alzuguren.

Hamarretan hasi zuten eguna gosariarekin, eta ondotik hasi ziren lehian. Txapelketak bukatzean, 14:00etan, bazkaria izan zuten eta 104 lagun elkartu ziren. Eguna sari banaketarekin bukatu zuten. Denek egun ederra pasa zuten.

## Elkarteak delegatu berria behar du Saldiasen

Orain arte Saldiasko delegatu izan den Martin Urrutiak lan hori egiteari utziko dio. Erreleboa hartu nahi duenak, elkarteko estatutuek agintzen duten gisara, hilabeteko epea dauka aurkezteko. Urrutiari eskerrak eman dizkiote, bihotez, egindako lanagatik.

## Donezteben eginen dute Soinketa Eguna maiatzaren 30ean

Maiatzaren 30ean eginen dute Soinketa Eguna. 12:00etan erakustaldia eginen dute kiroldegian, eta ondotik bazkaria Santamarian. Arratsaldean Los Tajudos del Norte mariatxiak ariko dira. Izen-ematea apirilaren 8an, 9an eta 10ean egin behar da delegatuen bidez.

## Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu heldu den asteetarako

### TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko bazkideek hainbat alorretan formatzen segitzen dute. Heldu den asteetan ere hainbat ikastaro izanen dituzte.

Beran, Global akademiaren eskutik ingelesa ikasteko aukera izanen dute. Hiru talde osatu dira, maila ezberdinetakoak. Klaseak apirilean hasiko dira, eta astelehenetan elkartuko dira.

Droneak erabiltzen ikasteko ikastaroa ere eginen dute maiatzean. Donezteben izanen da ikastaroa, eta taldea osatzeko, gutxienez sei lagun elkartu beharko dira. Ikastaro teorikoa maiatzaren 6an, 8an, 13an, 15ean, 20an, 22an eta 27an izanen da 16:00etatik 19:00etara. Apuntatzeko elkarteko bulegora deitu beharko da.



Droneak artxiboko irudian. FREEPIK

Leitzan, aldiz, erlaxatzen ikasteko eta ongi lo egiteko ikastaroa eginen dute Mertxe Ibarrarekin. Udaletxeko baztar aretoan izanen da apirilaren 15ean, 22an eta 26an, eta maiatzaren 6an, 16:30etik 17:30era.

Elizondon, aldiz, Rural Via ikastaroa bukatu dute. Denora 14 lagunek hartu dute parte, eta ordenagailu bidez oinarritzko hainbat tramite nola egin ikasi dute.

## Martxoko irteera Etxalarren egin dute elkarteko mendizaleek

### TTIPI-TTAPA

Etxalarren egin dute mendizaleek martxoko irteera. 69 lagun elkartu ziren martxoaren 19an Azkua mendira igotzeko. Aparkalekutik abiatu eta Xurineko bordan barna Nabarlara igo ziren. Han gosaldia ondotik, batzuk Mendizorroztz alderako

bidea hartu zuten, eta bertzeak, aldiz, Azkua aldera joan diren. Bertan, sekulako bidez gozatzeko aukera izan zuten. Ondotik, Loita eta Arotzeneko bordan denak elkartu ziren.

12 kilometro osatu ondotik, Basque ostatuan ederki bazkalduta zuten.



Azkuko tontorrera ailegatu ziren mendizaleak. UTZITAKOIA

# LORATEGIAK ETA ETXE INGURUAK

## Ateraiozu probetxua etxeko kanpoaldeari



Hemen dugu udaberria: egun luzeak, loreak zuhaitzetan, txoriak kantari... dudarik gabe, urteko sasoi ederrenetakoa dugu, eta egun guztia etxetik kanpo pasatu nahiko bagenu ere, beti ez da posible. Baina horretarako sortu ziren terrazak: kanpoaldeaz gozatu ahal izateko etxeko erosotasunetik.

Erlaxatzeko eta eguneko arazoak ahazteko gunea da terraza: aunitzentzat, etxeko txokorik gustukoena.

Balkoi ttiki bat zein lorategi haundi bat izan, mundu guztiak maite du kanpoaldean egotea eguraldi goxoa ari duenean. Eta landarez inguratua baldin bada, hobe.

Baina gainerako gelek bezala, lorategiek lana eskatzen dute: deko-razioa, mantentzea, garbiketa... gaiari buruz gehiago jakin nahi baduzu, proposamen, ideia eta aholku ugari aurkituko dituzu hurrengo orrietan.

**VERTICAL  
ART**  
LOREZAINZA

LORATEGIAK PARATU  
ETA MANTENTZEA

SOROPIL ARTIFIZIALAK JARTZEA

LORATEGI BERTIKALAK SORTU  
ETA INSTALATZEA

ESTALKI BERDEAK JARTZEA

☎ 646 140 677

🌐 [www.jardineria-verticalart.com](http://www.jardineria-verticalart.com)

✉ [info@jardineria-verticalart.com](mailto:info@jardineria-verticalart.com)

📍 Landaben ind, 5 pabilioia | IRUÑEA





**ANTZUZELAI**  
S.L.

**HARGINTZA | FATXADAK  
TXIMINIAK | ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK**

[www.antzuzelai.com](http://www.antzuzelai.com)

**BERA**  
T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com

## «Gure produktuak aisialdian disfrutatzen eginak daude»

IÑIGO PURAS ALCO ALTZARIAK - BERA

«Familia enpresa bat bezala» sortu zen Alco, lorategi, kanpin eta hondartzarako altzariak egiten dituen lantegia, «eta gaurko egunean familia enpresa bat izaten segitzen du». 1965ean Irunen hasi zuen ibilbidea, eta orduan sehasak egiten zituzten. Geroztik «aunitz aldatu da, sortu eta guttira Berara mugitu baitzen. Aldi berean, konturatu ziren hagitz trebeak zirela metalezko hodiak lantzen, eta enpresaren eraldaketa osatu zuten, orain ezagunak diren aire zabaleko altzariak egitera pasatuz».

48 langile ditu enpresak gaur egun, «eta nahiko harro erran dezakegu beti inguruko jendea aritu izan dela hemen lanean. Ia plantilla osoa Irungo, Berako eta inguruko herrietako langileak dira». Izan ere, «guretzat hagitz garrantzitsua izan da eta izaten segitzen du Nafarroako eskualde honek eman digun guztiaren zati tiki bat izultzearen sentsazio hori».

### Atsedenerako eskaintza zabala

Jendeak «hondartzako aulkiengatik ezagutzen gaitu, baina kanpinerako eta lorategiko aulkiak, mahaiak, haurrentzako kulunkak... ere egiten ditugu. Aunitzetan erraten dugu hagitz produktu atseginak egiten ditugula, gure produktu guztiak aisialdian



disfrutatzen eta atsedena hartzen eginak baitaude».

59 urteko esperientzia dute sektorean, «eta bezeroen beharrak sakon ezagutzeko abantaila eman digu horrek. Kalitateko produktuak egiten ditugu: arinak, praktikoak eta hagitz erresistentiak. Hondartzatik paseatzea gure aulkiak aurkitzearen sinonimoa da; batzuk berriak eta bertze batzuk urte aunitzekoak, baina lehen egunean bezain indartsu ikusten direnak».

Izan ere, diseinutik hasi eta azken emaitzaraino, «prozesu osoa Beran



**UDABERRIA HELDU DA!**

JARDINERIE ANIMALERIE **LAFITTE**

**Zuhaitzak eta fruta-arbolak landatzeko garaia!**

Bertako barietateak, hemen ekoiztuak.  
Loreak, tresnak, lore-ontziak, kanpoko altzariak, maskotak...

0033 5 59 42 24 42  
drive.lafitte.net  
jardinerie@lafitte.net  
1945eko maiatzaren 8ko etorbidea, 84 - 64100 BAIONA

Le passion du jardin, une flamme qui nous anime depuis  
**35 ans**  
lafitte. jardinerie

# ALMACO Eraikuntzako materialak




**595€**

**Barbakoa  
RÚSTICA DB**  
Altuera 221 cm  
Sakonera 60 cm  
Zabalera 145 cm  
Pisua 600 kg  
Aho zabalera 60 cm

**399€**

**Barbakoa  
RIST REPISA**  
Altuera 196 cm  
Sakonera 47 cm  
Zabalera 136 cm  
Aho zabalera 55 cm  
Pisua 430 kg



**199€**

**Barbakoa  
RÚSTICA DB**  
Altuera 190 cm  
Sakonera 47 cm  
Zabalera 68 cm  
Pisua 550 kg  
Aho zabalera 50 cm



**89€**

**Parrilla kaxa**  
Sakonera 38 cm  
Zabalera 64 cm  
Errautsetarako kaxarekin.







**Astelehenetik ortzirralera:**  
09:00-13:00/16:30-19:00  
**Larunbatak:** 09:00-13:00  
**Igandeak:** 10:00-13:00  
Otsango auzoa · LESAKA  
T. 948 637 826

egiten da. Hori da gure bertze berezitasun nagusietako bat». Lantegian mekanizazioa duten arren, «lana hagitz eskuzkoa da, artisaua. Gure langileek beren eskuekin egiten dituzte mahaia eta aulkiak, aluminiozko tutuak, oihalak, errema-txeak...»

Materialei dagokionez, «metalikoe-tan batez ere aluminioa eta altzairua erabiltzen dugu. Beso eta euskarrietarako gure fabrika guk egindako plastikozko piezak erabiltzen ditugu eta emanen diogun erabileraren araber, oihal mota desberdinak».

#### Edonon eskuragarri

«Urtero pixka bat berritzea» dute gustuko. Hori dela eta, produktuen katalogoa kaleratzen dute berritasunekin: «iaz kaleratu genituen mahai estilo berriak, kanpinerako espresuki diseinatuak, kolore berriak...».

Gainera, eskuratzeko errazak dira produktuak, «hondartza, kanpin edo lorategiekin lotutako altzariak saltzen duten leku guzietan aurkitzen ahal baitira Alcoko produktuak; supermerkatu haundietatik hasi eta hondartzaren oinean dagoen edozein denda txoraino. Horiek dira gure bezeroak».

Beran ez dute zuzeneko salmentarako lekurik, «baina aukera hori serioski kontuan hartzen ari gara, errealitate bihurtzeko. Ikusiko dugu!».

Ohiturak aldatu badira ere, bada zer bait berdin mantenduko dena beti: «jendeak erosotasuna bilatzen du. Gazteek ere gurasoen pausoak segitzen ari dira; gero eta gazte gehiago ikusten dira hondartzan aulkia-ekin, adibidez. Izan ere, hagitz gogorra da lurrera jaitea gure aulkiak probatu ondotik!».

Salmentari dagokionez, «azken kontsumitzaileari begira, bi mugarri daude: Aste Santua eta uda. Orduan erosten dituzte gehien». Urtean 800.000 aulki eta mahai inguru egiten eta saltzen dituzte. Hala ere, «duela bi urte sekulako kanpaina izan genuen eta milioi bat baino gehiago saldu genituen».

Eta noski, horrek eskatzen duen neurriko instalazioak dituzte Beran: «hornitzaile eta bezeroak harrিতuta gelditzen dira lantegiaren tamainarengatik. Ia sei hamarkada hauetan gertatu diren gorabehera guztiekin, gauzak hagitz ongi egin behar izan ditugu hemen segitzeko. Eta gustatzen zaiguna egiten segitzeko inoiz baino gogo haundiagoarekin gaude».



**Arotzia**

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 - T. 948 58 14 18  
31730 IRURITA  
arotxa.taller@gmail.com  
[www.arotxataller.com](http://www.arotxataller.com)

**GARAJEKO ATEAK** | **HORMANN** banatzaile ofiziala



**AROTEGIA:**

- Burdina
- Aluminioa
- Inox

**BALKOIAK**

**TOLDOAK**

**BURDINESIAK**

**FORJA**

**AUTOMATIZAZIOAK**

...

**STIHL****ZURE  
LORATEGIAZ  
HARRO**STIHL BATERIAREN PREMIUM  
KALITATEAREKIN2024KO UDABERRIKO ESKAINTZAK  
AURKITU ZURE STIHL DENDA  
ESPEZIALIZATUAN

ERTZAK MOZTEKO MAKINA

Set FSA 57 R

Bateria eta kargagailuarekin

LEHEN 209€

**259€**

SOROPIL-MOZTEKOA

Set RMA 235

Bateria eta kargagailuarekin

ANTES 339€

**319€**

Zure makina guztiertzako bateria bakarra

AIM

ASIM  
SYSTEMAKM  
SYSTEMAPM  
SYSTEM

Bateria AK sistemarekin bateragarria. Eskaintza balagarria 2024ko ekainaren 14ra arte. STIHL-ek gomendatutako prezioak. Zergak barne.

AGRICOLA BIDASOA

Lorezarritza eta nekazaritza makinak  
salmenta eta konponketaAuzolan, 16 Irún | 943 627 331 |  
agribidasoa@gmail.com**AURREZTU  
150€  
ARTE  
BATERIADUN KIT-etan**Bateria eta  
Kargagailuarekin**HUSQVARNA® MARKAKO  
BATERIADUN PRODUKTU GAMA**

Eskaintza 2024/06/30era arte.



Husqvarna

BANATZAILE OFIZIALA

**BB BLOK BAT  
TALLERES**Santiago,85 | ELIZONDO  
T 948 580 898[www.biokbat.com](http://www.biokbat.com)**HONDARTZA, KANPIN  
ETA LORATEGIRAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA!****Bertan egindako produktuak**

Bila gaitzazu konfiantzazko bazar edo hipermerkatuan!

Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31780 - BERA - Nafarroa  
Tel.: +34 948 628 200 - FAX: +34 948 630 804  
[alco@alcoplas.com](mailto:alco@alcoplas.com) | [www.alcoplas.com](http://www.alcoplas.com)



## Lorategia zure neurrira

Lorategia txukun apaindu nahi badugu, arreta eta denbora eskaini behar dizkiogu landareei. Hemen dituzu hainbat aholku zainketarako

Izenak berak dioen bezala, lorategi batean ezinbertzekoak dira loreak, txoko guztiak edertzeko gai diren landareak. Baina hauen zainketa ez da beti erraza, bereziki gure klimara ohituta ez dauden landareen kasuan. Horregatik, garrantzitsua da lorategia apaintzerakoan lore aproposak aukeratzea, eta noski, bakoitza nola zaindu behar dugun ikastea.

Lehenik eta behin, lorearen ezauzgarriei hobekien egokitzen zaion tokia aukeratu behar dugu: bitloreak, arrosak eta tulipak temperatura epe-lak eta leku eguzkitsuak gustuko dituzte, hortentsiak eta begoniak, berriz, itzala eta leku hezeak nahia-gu dituzte.

Lokalizazioaz gain, lurzoru aproposa aukeratzeak lorearen garapena aunitz erraztuko du. Hala ere, argi izan behar da hasieran egokitzapen prozesua beharko duela, eta lekuan

egokitu denean, gomendagarria da bertatik ez mugitzea.

### Lore osasuntsuak

Landareak berak adieraziko digu zenbat eta zein maiztasunarekin ureztatu behar dugun, eta noski, urteko sasoiaren arabera moldatu beharko dugu hori. Ur guttiegi botatzen badiogu lorea idortu eginen da, baina ur gehiegirekin zainak ustelduko zaizkio. Inportantea da oreka bilatzea.

Landareak hosto idorrek edo lore ximelak baditu, moztu egin behar dira. Gainera, gomendagarria da ongari naturala ematea eta animali eta intsektuen kontrako tratamenduak erabiltzea, landarea indartsu eta osasuntsu garatzeko.

Zalantzarik izanez gero, beti jo dezakegu herriko lore-dendara edo espezializatutako komertzioetara.

**LORATEGIAK APAINTEZKO LOREAK ETA DEKORAZIOA**

**BALKOIETAKO LANDAREAK**

**LORE SORTAK**

**UDABERRI ETA UDAKO ARROPA**

Albistur 39 LESAKA  
T. 948 627 542 - 722 748 836



## Apezteguia Berria

ferreteria - burdindegia

Baratzeko erreminta  
Lorategiko erreminta  
Haziak  
Lore lurra  
Loreontziak  
Piszinak  
Piszinarako artikulak

- Leitzako errepidea, 33 - 31740, DONEZTEBE -  
- info@apezteguiaberria.com -  
- 948 450 994 -



# ZURE LORATEGIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA DAUKAGU GURE DENDETAN

Baratzezaintza, Lorezaintza eta abeltzaintza, Albaitaritza produktuak,  
Maskotenzako osagarriak, Ehiza eta arrantza.

*Berrria*

**1500M<sup>2</sup> TIK GORA  
KIROLARI ESKAINIAK**

**BIOK**  
OUTDOORS

[ventabiok.com](http://ventabiok.com)



# ZURE LORATEGI ETA TERRAZARAKO NAHI DUZUN GUZTIA ALKAINEN DAGO.

Hemen aurkituko duzu **zure etxebizitzaren kanpoaldea** bikain jartzeko behar duzun guztia: soropil artifiziala, konposite edo zeramikazko lurzorua, leihoak, itxiturak, ezkutatzeko hesiak, lorategirako tresnak, igerilekuen tratamendua, itzalkinak, barbakook, altzariak, brikolajea egiteko tresnak eta materialak...

**Dena leku bakar batean eta aholkularitza profesional onenarekin.**





Soropil  
artifiziala



Lorategirako  
tresnak



Itxiturak



Ezkutatzeko  
hesiak



Konposite  
lurzorua



Igerilekuen  
tratamendua



# ALKAIN

zure etxean pentsatzen  
piensa en tu casa

#### ALKAIN HONDARRIBIA

Amutalde kalea, 17 - 20280 Hondarribia

T. +34 943 642 025

#### ALKAIN ASTIGARRAGA

Txalaka Pasealekua, 23 - 20115 Astigarraga

T. +34 943 642 025

[alkain.com](http://alkain.com)



LORE SORTAK  
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK  
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

**ZU** loredenda  
dekorazioa  
osagarriak

Altzate, 33  
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com  
Tel.: 948 625 786

## Etxeko txokorik politena

Lorategia oasi ttiki batean bihurtzeko mila modu daude; norberak bere gustura eta espazioaren arabera dekoratzea da garrantzitsuena. Ideia batzuk nahi?

### Lorategi bertikalak

Landareak maite arren espazio aunitzik ez dutenentzako aproposak. Urbanizazioari moldatuz, lorategi bertikaletan naturak eta hiriak bat egiten dute eta hainbat onura ekaritzen dituzte: tenperatura jaitea, soinuaren isolamendua, airearen garbiketa... Iratzeak, belar usaintsuak (oreganoa, albaka, perrexila...) eta landare zukutsuak (kaktusak, adibidez) aukera ezin hobeak dira lorategi mota honetarako.

### Ura nagusi

Egun beroak freskatzeko komenigarria da inguruan ura izatea. Batzuk urmael haundiak jartzeko lekua dute, eta bertze batzuk iturri ttiki batekin konformatu beharko dute. Bitarteko

zerbait bilatzen dutenentzako igerileku ttikiak daude, erlaxatzeko, hantak bustitzeko, haurrak bainatzeko... Harria, egurra eta zeramika material ezin hobeak dira inguruan paratzeko eta ukitu modernoa emanen diote lorategiari.

### Sabela betetzeko tokia

Bizitzako plazer ttiketako bat da otorduak kanpoan egitea; gosari lasaiak bakarrik, bazkari jendetsuak familiarrekin, afariak lagunekin... normalean eguraldi ona ari duenean ateratzen bagara ere, aterpea izatea gomendagarria da, altzariak euri eta eguzkitik babesteko. Horretarako pergolak, beirateak edo gortinak arras erabilgarriak dira, eta gure lorategiaren estiloari hobe moldatzen diren material eta koloreak aukera ditzakegu.

Eta noski, janaria prestatzeko guneak ezin du hutsik egin. Barbakoak edo egur labeak ezin hobeak dira plater goxoak prestatzeko.

# BigMat

## MENDITXURI

Leitzako errepidea, 39 | DONEZTEBE  
948 450 305

# BARBAKOAK



**BIGMAT SESIMBRA OBRAKO BARBAKOA**  
Ikatza eta egurrerako. Hormigoi grisa, adreilu horia eta adreilu islatzailekoa. Su-ontzia barne.

5394720

**435,95 €**



**BIGMAT SESIMBRA OBRAKO BARBAKOA, SU-ONTZIA + APALA**  
Ikatza eta egurrerako. Hormigoi grisa, adreilu horia eta adreilu islatzailekoa. Su-ontzia barne.

5394722

**575,95 €**



**BIGMAT SESIMBRA OBRAKO BARBAKOA, SU-ONTZIA + HARRASKA + ITURRIA.**  
Barbakoa handia apala, harraska eta iturriarekin. Ikatza eta egurrerako. Su-ontzia eta parrilla barne.

5394723

**695,95 €**



**FCB1 LABEA TERMOMETROAREKIN.**

Hormigoi beltza eta adreilu islatzailekoa. Arraliduren kontrako konpakteta-kita, termometroa eta babeserako zurezko kaxa.

5380783

**595,95 €**



**BARBAKOA BIG MAT SINTRA PARRILAREKIN**

**169,95€**

# Barbakoa denboraldirako presta zaitez

*Ezagutu Weber marka Landiflor-en eta  
metatu %10 zure fideltasun txartelean.*



## Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia: 9h30 - 12h30 / 13h30 - 18h30  
Dantzarinea 31712 URDAZUBI / [landiflor@ventapeio.com](mailto:landiflor@ventapeio.com)

**VENTA  
PEIO**

Zure erosketa gune hobereanak  
Euskal Herriko bihotzean

# Kanpoaldea barnera

Gure terraza, portxe edo lorategia babestu nahi badugu, itxiturak aukera ezin hobekak dira. Gela berria lortuko dugu; espazio argitsua eta irekitasun sententzia emanen diguna. Horretarako, etxeari hobe egokitzeko zaion itxitura hautatu beharko dugu:

Estalperik gabeko **terraza zabalen** kasuan, barnealdearen luzapena bihur dezakegu, espazioaren zati bat hartuz. Horrela, hilabete hotzetan eta bero handiko egunetan aprobetxatzen ahalko den gunea lortuko dugu, eta aldi berean aire zabaleko eremua ere izanen dugu.

Sabaia edo estalkia duten **balkoi ttiki**en kasuan, beirate irristailuak eta leiho eraigarriak aukera ona dira. Argitasun handia emanen diote espazioari, ia lekurik hartu gabe.

**Lorategi eta portxe**ei dagokienez, otordu-erako estruktura eraikitzen ahal dira etxearen kontra edo bereizita. Etxearen kontra dauden itxituren alde ona da sasoi hotzetan ez

dela gerizperik gabeko espaziorik zeharkatu beharrik ailegatzeko. Gainera, egunerokoan erabiliko dugun gunea baldin bada, berokuntza eta hozte sistemak instalatzen ahal ditugu.

Ateak eta leihoak irekitzeko modua ere espaziora egokitu behar da. Ate eraigarriak isolamendu hobea dute, baina leku gehiago behar dute irekitzeko. Irriestailuek, berriz, espazio ttikiagoa hartzen dute eta arras eraigarriak izan daitezke.

## Materialak denen gustura

Itxitura mota aukeratzea bezain garrantzitsua da materiala egokia izatea. Normalean beirateen profilak aluminiozkoak edo PVCkoak izaten dira, eta kristalek segurtasuna eta isolamendua bermatzen dituzten ezaguriak eduki ohi dituzte. Egurra nahiago dutenek ere pergola moduko itxiturak egin ditzakete, edo zurezko akabera duen PVCa erabili. Aukerak ugariak dira.

Dharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com  
www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



**KALITATEZKO TOLDO FUNTZIONAL  
ETA IRAUNKORRA**  
**ZURE BEHARRETARA EGOKITUTAKO  
TOLDOAK**



[www.ene21.es](http://www.ene21.es)

📍 Extremadura kalea - Sadar ondoan · IRUÑEA  
☎ 948 290 488 | ✉ [ene21@ene21.es](mailto:ene21@ene21.es)



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m<sup>2</sup>k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

# Garbi eta txukun

Lorategia dekoratzea bezain inportantea da garbi mantentzea eta landareak zaintzea. Hemen dituzu zenbait aholku horretarako



Lehenik eta behin, beharrezko materiala izan behar dugu etxean: belarra mozteko eta sasiak garbitzeko makinak, kimatzeko aitzurrak, haize makina, hidrogarbigailua... dena prest dugula ziurtatuta, has gaitezen lanean!

## Landareak zaindu

Auzoko loretegirik politenak nahi baditugu, lana egin beharko dugu, loreak arreta handia eskatzen baitute: ureztatu, ongarritu, kimatu, tratamenduak eman...

Loreez gain, kontuan izan behar ditugu inguruko zuhaixka, hesi eta sasiak. Espazioari itxura bikaina emateko funtsezko elementuak dira.

## Lurzorua garbi

Hostoak eta zikinkeria maiz pilatzen dira kanpoaldean, eta sarritan bildu behar izaten dira. Haize makinak

ezin hobeak dira horretarako; lan ederra eta azkarra egiten dute. Horrez gain, noizbehinka garbiketa sakonagoa egin behar da eta presiopeko ura erabiltzen duten garbigailuak aproposak dira horretarako.

## Altzariak ahaztu gabe

Kanpoko altzariak eguraldiaren menpe bizi dira, eta estalpea izan arren, erraz zikintzen dira. Koltxoi edo kuxinak baditugu, horien zorroak garbitzea komenigarria da. Altzariak, berriz, hidrogarbigailuarekin garbitzen ahal dira, beharrezko distantzia mantenduta kalterik ez sortzeko.

## Putzuak ekidin

Euriarekin putzuak sortu eta ura gelditzen da edukiontzietan, eta horrek moskitoak eta bertzelako intsektuak erakartzen ditu. Gomendagarria da horiek ahal bezain azkar kentzea.

**ITURRI**

SINCE 1929

IRUN | 943 633 188

- # Kanpoaldeko baldosak
- # Zelai artifiziala
- # Igeriluentzako Gresit-a
- # Harri naturala
- # Kanpoaldeko sukaldeak
- # Eta askoz gehiago

Zein da zure lekurik gogokoena?

Garbiketak eta sasiak garbitzea  
Kimaketak eta lorategiak  
Bideak eta paretak  
Instalazioak garbitzea (publikoak eta pribatuak)

T. 676 53 95 30 | [mcz@mcz.eus](mailto:mcz@mcz.eus)



[www.mueblesminka-exterior.com](http://www.mueblesminka-exterior.com)  
f exter jardin | @minka.exter\_irun



**EXTER LORATEGIKO ALTZARIAK**

LOPE DE IRIGOYEN, 10 - IRUN

☎ (+34)943 611 928

ORDUTEGIA:

**08:00 - 20:00**

*aurretik hitzordua eskatuz*

**OUTLET  
GUNEA!**



Muebles  
**minka**  
DECORACION

[www.mueblesminka-exterior.com](http://www.mueblesminka-exterior.com)

f exter jardin | @minka.exter\_irun

**MINKA ALTZARIAK**

REPUBLICA ARGENTINA, 1 - IRUN

☎ (+34)943 620 982



# Etxeak zaharberritzeko dirulaguntzak

**ZURE LORATEGIAZ HARRO**

**STIHL**

**José Luis San Miguel**  
 Merkatarien zeharkarriko, 11 - DONEZTEBE  
 948 450 711 | [www.joseluisanmiguel.com](http://www.joseluisanmiguel.com)



Nafarroako Gobernuak baditu kontuan hartu beharreko zenbait laguntza. Horien artean dago **PREE 5000 programa**, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan etxeen birgaitze energetikorako laguntzak ematen dituen. Helburua bizitegietan eta bizitegiak ez direnetan birgaitze energetikoa bultzatzea da, eraginkortasun energetikoa hobetuz eta energia berriztagarriak gehituz.

#### Baldintza bakarra

Etxebizitzak gutenez 25 urtetik gorako antzinatasuna izatea.

#### Dirulaguntzen onuradunak

Familia bakarreko etxebizitzaren jabe diren pertsona fisikoak, pisu etxeetako jabeen komunitateak eta komunitate taldeak.

Eskatzeko epea: 2024/07/31

#### Zenbatekoak dira dirulaguntzak

Batetik daude PREE 5000 programaren ekarpenak eta, bertzetik, Nafarroako Gobernuak emandako pizgarriak.

**Familia bakarreko etxebizitzaren kasuan**, programa honen zenbatekoa **15.300 euro artekoa** da, eta kopuru horri Foru Gobernuak emandako zenbatekoa gehitu behar zaio.

Pisu etxeetako **jabeen komunitateentzat**, laguntza **22.800 euro artekoa** da (15.300 euro 5000 PREEtik eta 7.500 euro Nafarroako Gobernutik).

#### Bertze laguntza batzuk

Aipatutako **PREE 5000 programaz** gain, badaude bertze laguntzak hauek ere: Etxebizitza eta eraikinetarako laguntza iraunkorrak; Eraikinen ingurutzaila termikoak (PREE); Energia eraginkortasuna etxebizitzetan (MRR etxebizitzak) eta Lehendik dauden eraikinak birgaitzea (MRR eraikinak).



T. 948 630 962  
[info@irekileihoak.com](mailto:info@irekileihoak.com)

Aluminio R.P.T | PVC

Kontraleihoak

Toldoak

Barandak eta balkoiak

Ataripeen itxiturak

Eltxo-sareak

Guk lagunduko dizugu dirulaguntzak tramitatzen



T. 948 630 962 M. 626 313 162 H. Zalain Ind. 8 - 31780 BERA  
[www.irekileihoak.com](http://www.irekileihoak.com)



80 zuhaitz landatu zituzten martxoaren 21ean Elusederren. JAIONE OLAZABAL

## Haritzak landatu dituzte Eluseder inguruan


Guraso Elkarteak urtero antolatzen duen hitzordua da. Udalak zuhaitzak erosi eta guraso eta haurrek landatzen dituzte.

### ENERITZ IRAOLA

Guraso Elkarteak antolatzen duen ekintzetako bat da zuhaitz landaketa. Ez dakite oso ongi noiz hasi ziren antolatzen, baina udaberri hasieran, urtero mantentzen duten hitzordua da. Aresoko Udalak zuhaitzak erosi, landaketa non egin behar den zehaztu eta haur eta gurasoak izaten dira horiek landatzeaz arduratzen direnak. Martxoaren 21ean egin zuten aurtengo landaketa, 16:00 aldera elkartu ziren plaza zaharrean eta oinez joan ziren Eluseder ingurura. Aitzurrak hartuta, gogor aritu ziren la-

nean haurrak eta gurasoak. Denera, laurogei haritz inguru landatu zituzten. Horrela, elkarrekin arratsalde polita pasa eta ingurumenaren aldeko keinu bat egiteko modua izan zuten.

Horren ondotik, ongi irabazitako arratsaldekoa egin zuten elkarrekin. Indarrak behar bezala berreskuratu zituzten eta egun batzuk lehenago guraso eta haurren artean jokatutako futbol partidua errebantxa jokatu zuten. Bi taldeetako zein izan zen irabazlea galdetu ezker, ezin erantzun garbirik atera...



KORRIKA

## Uitziko gainean Korrika

Martxoaren 19ko bazkalondoan Korrikaren erritmoan ibili ziren herritarrak. Emozioa gorputzean eta ilusioa aurpegietan. Uitziko gainean egokitu zitzaizkien udalaren eta herriko eragileen artean erositako bi kilometroak. Maldan gora eta behera, eskuz esku lekukoa pasaz ibili ziren eta haien ondoan herritar ugari korrika.

## Nazabal eskolako ikasleak Iruñeko planetariora joan dira

### ENERITZ IRAOLA

Martxoaren 19an irteera egin zuten Iruñeko planetariora Nazabal eskolako ikasleek. Amamalur proiektua ezagutzeko aukera izan zuten. Jolasen bidez, izarrei, zientziari eta teknologiari buruz ikasteko aukera izan zuten. Gainera,

astronomiaren eskutik beste diziplina batzuetara hurbiltzeko modua izan zuten, hala nola, historiara, literaturara, arte plastikoetara, filosofiara, pil-pilean dauden teknologietara... Eguraldi ederra egin zuenez, inguruko parkeaz ere gozatzeko aukera izan zuten.



Nazabal eskolako ikasle eta irakasleak Yamaguchi parkean. NAZABAL ESKOLA

## Leitzako Herri krosa apirilaren 13an egingen dute

Garai bateko ibilbidea berreskuratuko dute eta leitzarrek, taldeka parte hartuta, axuria irabazteko aukera ere izanen dute

### TTIPI-TTAPA

Lau urteko etenaren ondotik, apirilaren 13an egingen dute Leitzako Herri Krosaren 42. edizioa. Benjaminek, emanen diete hasiera lasterketari, 16:30ean, eta 800 metroko ibilbidea egingen dute. 17:00etan gaztetxoek hartuko dute lekukoa eta 2.500 metro egingen dituzte. Maila absolutuan bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 5 kilometrokoa edo 10 kilometrokoa. Helmuga herriko plazan izanen da. Izen-ematea apirilaren 12a baino lehen egin daiteke [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) helbidean. Egu-



Kroseto garai bateko irudia.

### Sutarako egur loteak banatuko ditu udalak

Interesa dutenek izena eman beharko dute 948 012 012 telefonora deituta, apirilaren 15eko 13:00ak baino lehen. Lotearen truke 50 euro ordaindu behar da. Diru hori berreskuratuko aukera izanen da egun bateko auzolana eginda. Eskaera egiterakoan zehaztu beharko da.

### Palestinaren aldeko tekno-punk jaialdia apirilaren 13an

Atekabeltzen erresistentzia jaialdia antolatu dute apirilaren 13an. Egun osoko egitaraua antolatu dute: hitzaldia, paela jatea, bazkalondoan musika, dantza palestinarren tailerra, kabareta, tekno punk kontzertuak eta eguna boro-biltzeko DJak izanen dituzte.

### 'Hona bostekoa' komiki libururako lanaz solasean

Martxoaren 15ean Unai Gaztelumendik solasaldia eskaini zuen liburutegian. Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* programaren barruan osatutako lanari buruz aritu zen solasean. Jende ugari hurbildu zen.



UTZITAKOIA ARGAZKIA

nean bertan, Aurrera Elkartean 15:30etik 17:00etara.

Haur eta gaztetxoek inskripzioa dohainik izanen da. Maila absolutuan parte hartu behar dutenena ez: Aurrerako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte izen-ematea online egiten badute, egunean bertan 12 euro. Elkarteko kide ez direnekaurretik, 15 euro eta egunean bertan, 12 euro.

### Axuria jokoan

Axuria irabazteko aukera eman ez, erronka ere luzatu diete leitzarrei. Sei laguneko taldea osatu beharko dute (mistoa izan beharko du) eta ez da derrigorrezkoa taldekide guztiek kilometro kopuru berdina egitea. Taldekideetako hiruk frogatu beharko dute eta beste hiruk denbora muga izanen dute: 50 minutu, 10 km egin dituztenek eta 25 minutu, 5 kilometro egin dituztenek. Sari banaketaren aurretik arratsaldekoa eskainiko dute karrapean.

### Kroserako entrenamenduak taldean umeentzat

Denok Bat guraso elkarrekin hiru eta hamabi urte arteko entrenamenduak antolatu ditu. Herri Kroserako elkarrekin entrenatzeko aukera ematea da asmoa. Apirilaren 9an eta 11n egin dituzte hitzorduak 17:30ean eskolako futbol zelai handian.

### Pediatria zerbitzurik gabe segitzen dutela salatzen ari dira hainbat guraso

#### TTIPI-TTAPA

Kartelak paretetan, idatziak prentsan eta elkarrizketak irrartian. Leitzan pediatria zerbitzua eskatuz ari dira gurasoak. Leitz, Areso, Arano eta Goizuetako 600 haur baino gehiago dira pediatria zerbitzurik gabe daudenak. Bi hilabete dira dagoe-

### GUTUNA

KONSUELO GRAJIRENA  
ETA ARITZ LEZEA

### Luis Mari Lezearen familiaren gutuna

Maite dugun pertsona baten heriotza beti izaten da latza. Tristura, negarria, atsekabea, doluaren hasiera... baina momentu latz hauetan maite dugun jendearen hurbiltasunak eta maitasunak aurrera egiteko bidea ematen digu. Gure etxean zorritzarrez momentu horiek bizitzen ari gara Luis Mari joan zaigulako. Asko sufritu dugu baina, aldi berean, asko ikasi. Urte askoz gurgildun aulkian egon ondoren, bidean aurkitutako oztopoak argitara ateratzeko partaide garrantzitsua izan da, ondotik datozenei bidea zertxobait arinduz. Guk ere izan dugu bidea arindu diguten presentzia, eta horregatik, hitz hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu Leitzako herriko medikuari, erizainari, etxeko zerbitzuko langileei, lagunei eta nola ez, gure familiari. Zuen laguntzarik gabe Luis Mariren ongizatea ez zen posible izanen, ezta gurea ere. Bihotzez mila esker. Inoiz ez dugu ahaztuko Luis Marirekin izandako goxotasuna, ezta gurekin izan duzun adeitasuna ere.



Topaketak antolatzeke lanetan dabilen taldea. UTZITAKO ARGAZKIA

# Euskal Herriko Bollo Topaketak Leitzan apirilaren 26tik 28ra

300-500 lagun biltzea espero dute eta antolakuntza lanak errazteko apirilaren 12a baino lehen izena emateko eskatu dute

## TTIPI-TTAPA

Apirileko azken asteburuan, Euskal Herri osotik etorritako bollera eta genero disidenteek topalekua izanen da herria. Egunerokoan bizi dituzten galdera, kezka eta ilusioetatik abiatuta, gogoetarako bidea ireki eta elkarrekin hausnarrean arituko dira. Horretarako, egitarau anitza osatu dute eta festarako ere hartuko dute tarte.

Topaketa hauen sorburura jotzeko, berrogei urte egin behar dira atzera: 1983an egin zizutuzten Euskadiko Lesbianen lehenbiziko topaketak. Gerora, borroka bere bide propioa egin duela nabarmendu dute antolatzaileek: «lorpenekin, testuinguruko aldatetekin, bolleraren subjektuaren berrikusketekin», baina oraindik bada zer landu eta hobetu: «jasaten ditugun zapalkuntzen aurkako borrokek beharrezkoak izaten segitzen dute». Testuinguru horretan, iaz Orion lehenbiziko bilera egin zuten, azaroan Gasteizen aurretopaketak eta hari horri eutsi eta tiraka, heldu dira apirilean Leitzan egingen dituzten topaketetara.

Bidean ikusi dute bollera eta nortasun disidenteek ezinbes-

teko beharrak dituztela: «barne-kanpo berrikusketarako, saretzeko, behar eta kezkek erdigunean jartzeko, aliantzak sortzeko, erronka eta generazio berriei atek irekitzeko...». Topaketetan horretarako aukera izanen dute: «baita borrokan eta mugimenduan segitzen dugula berresteko ere».

Euskal Herri osoko 300-500 lagun inguru biltzea aurreikusitako dute: «toki eta belaunaldi desberdinetako jendearengana heltzeko ahalegina egiten ari gara». Egitarau anitza osatu dute: «bertso saioa, tailerrak, hitzaldiak, karaokea, proiektzioak, performantzeak, arte sorkuntzak... izanen ditugu».

Hitzaldi nagusia subjektuari buruzkoa izanen da: «hainbat hizlari egonen dira, bollera subjektuaz hausnarrean, orain arte egindako bidea aitortu eta bollera identitateak gaur egun barnebiltzen duenaz aritzeko». Jai giroari ere tarte eskainiko diote: «testuinguru cishetero-zentratu batean festarako ez ditugulako nahi beste espazio seguru». Antolakuntza lanak errazteko apirilaren 12a baino lehen izena emateko eskatu dute.



KORRIKA

## Jendetzak bat egin du Korrikarekin

Uitzin hasi, herria zeharkatu eta Basakabin gora eta behera ibili ziren leitzarrak martxoaren 19an Korrikaren lekukoa hartuta. Zirate kuadrillakoak izan ziren lekukoa hartzen lehenbizikoak eta eskuz esku ibili zen hamar kilometroko bidea osatu arte. Haiengana jendetza bildu zen, denek Korrikarekin bat eginez.

## Txakurraren izaeraren oinarriak eta portaeraren eraldaketa ikasgai apirilean

### TTIPI-TTAPA

Apirilaren 15etik 25era, txakurraren eskema mentalean nagusitzen diren ideia nagusiak egonen dira ikusgai udaletxeko batzar aretoan jarriko duten erakusketan. Apirilaren 16an Mikel Balentziaga hezitzailea bertan izanen da, 18:00etatik

20:00etara, erakusketara bertaraten diren galderak erantzuteko. Baita apirilaren 25ean ere, 18:00etatik 19:30era. Egun horretan bertan hitzaldia emanen du 19:30ean. Hitzaldian eguneroko errutinetan gatazkatsuen izan daitezkeen portaerak landuko dituzte.



Akira Yoshida eta Lali Ayguadé dantzariak igoko dira oholtzara apirilaren 14an.

## Ekitaldiz gainezka dator Leitzako Herri Aretoko agenda

Zinema, dantza, erakusketa eta Mendi zikloa antolatu dituzte Leitzako Udalak eta eragileek

### TTIPI-TTAPA

Proposamen ugari egin dituzte apirilera Leitzako Herri Aretuan. Apirilaren 6an eta 7an, *Migrazioak* eta *Tratamos demasiado bien a las mujeres* filmak eskainiko dituzte, 17:00etan eta 19:30ean. Apirilaren 9tik 12ra Itzairerako Haur Eskolak antolatuta, Magaletik Amalurra erakusketa jarriko dute ikusgai eta apirilaren 17an, 17:00etan, hitzaldia eskainiko dute Irati Andoñok eta Erkiz Miguezek. Apirilaren 14an *Together to get there* dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da 19:00etan.

### Mendi zikloa

Leitzako Aurrera Elkarteko Mendibil mendi taldearen eskutik heldu da hurrengo proposamena. Mendi Zikloa antolatu dute eta proiektzioak eta solasaldiak izanen dira. Apirilaren 18an, 19:00etan, Ama Dablam-6812 M espedizioari buruzko solasaldia eskainiko du Juan Martin Maritorenak. Apirilaren 19an Karakorum trekkingaz ariko dira Jon, Oinatz, Axier, Josu, Olatz, Mikel eta Julen. Apirilaren 20an eta 21ean mendi zikloarekin lotutako proiektzioak izanen dira Herri Aretoko karteldegian.



KORRIKA

## Aranon ere bat egin dute Korrikarekin


Iluntzeko zortziak jo baino ordu laurden lehenago jaso zuten aranon Korrikaren lekukoa. Haur, gazte eta helduek elkarri erreleboa emanaz osatu zuten beraien tartea. Lekukoaren atzetik herritar ugari ibili ziren lasterka Aranon ere *Harro Herri* direla erakutsiz.

## Mimukai garapen zentroan hainbat gune jarri dituzte erabiltzaileen eskura

### TTIPI-TTAPA

Leitzako industriagunean kokatua dagoen arren, eskualde oso baten beharrei erantzuteko sortu dute Mimukai zentroa. Mendialdeko udalek elkarlanean ondutako proiektua da eta Cederna Garalurrek kudeatzen du. Bertan, coworking

gunea sortu dute eta beharrezko baliabide tekniko guztiak jarri dituzte erabiltzaileen eskura. Enpresei zuzenduta, bulego itxiak, formaziorako gela eta bilera gelak alokatzeko aukera ere eskaintzen dute. Informazio guztia [mimukai.eus](http://mimukai.eus) en kontsulta daiteke.



Coworking gunean lanerako hogeita hamar postu jarri dituzte. E. IRAOLA

## IV. Garagardo Festa apirilaren 27an ospatuko dute

Goitiki haurtzaindegira joanen dira aurten ere afariaren etekinak. Txartelak apirilaren 21era arte egonen dira salgai

### ESTEBAN AROZENA

Mahaiaren bueltan bilduta, jan-edanean, herriko haurtzaindegiari laguntzeko aukera izanen da apirileko azken larunbatean. 2019an herriko garagardo zale batzuk hasitako bideari segida emanaz, apirilaren 27an ospatuko da garagardo festaren edizio berri bat. Laugarrena izanen da aurtengoa. Umore Ona elkartearen 21:30ean hasiko da festa.


Afariarako txartelak Motzanean eta Amaian jarri dituzte salgai apirilaren 21era arte eta antolatzaileek gogorarazi dute tokia mugatua dela. Menua ohikoa izanen da: entsalada, saltxitxak, saiheskia, patata purea, postrea, kafea eta kopa. Hauek bustitze-ko, Franziskaner, Leffe blonde, Alhambra especial eta Desperados garagardo ezagunak banatuko dituzte. Honek guztiak



Laugarren edizioa da. ARTXIBOA

26 euro balioko du. Garagardorik gabeko txartelak ere badaude salgai, 16 eurotan. Ainhoa Zabaletaren musikak eta kantek alaituko dute afal ondorena.

Goitiki haurreskolarentzat izanen dira biltzen diren irabaziak. Aipatu behar da, egoitza berria dutela urte hasieratik eta berri pozgarri honek gastu estrak sortu dizkiola haurtzaindegiari. Ongi hartuak izanen dira, beraz, garagardo festak sortuko dituen etekinak.



KORRIKA

## Harrera beroa egin diote Korrikari

Gustuko tokian aldaparik ez dela izaten dio esaera zaharrak eta martxoaren 19an ederki bete zen esana. Basakabin behera hartu zuten herritarrek lekukoa eta zahagi dantzaren erritmoan ongietorri beroa egin zioten herrian. Barre, malko, kantu eta dantza... tiri-tirri osatu zuten 28 kilometroko bidea.



UMORE ONA

## Umore Ona klub arteko txapeldun

Espainiako klub arteko txapeldun suertatu da Umore Ona pilota elkartearen Sorian. Martxoaren 17an jokatu zituzten lehen mailako finalak errioxarren kontra eta bi partidak irabazi zituzten. Ikusmin handia sortu zuten partidek eta telebistan ikusiz edo frontoira joanda, babesa eman zieten herritarrek pilotariei.

## Sagardui txapeldun Master Laboral Kutxa txapelketan

Alize Sagardui herritarrek txapel morea jantzi zuen martxoaren 17an Arrasateko Uarkapen pilotalekuan. Eskuz binakako gazte mailako finalean, pilota mistoarekin, Uxue Gomezekin batera 18-6 irabazi zuten Izar Etxezarretari eta Ainhitze Arratibeli.



Alize garaikurrekin. UTZITAKOIA



Errugbia «lagun arteko kirola dela» azpimarratu dute Asier Arretxeak eta Markel Adinek. UTZITAKOIA

## «BRTren baloreak erakusteko egiten dugu Errugbiaren gaupasa»

ASIER ARRETXEA BIDEKIN ETA MARKEL ADIN BIDEKIN BAZTANGO RUGBY TALDEA

Errugbiaren gaupasaren XX. urteurrena antolatuko du aurten BRTk eta orain arte egindako bideaz solastatu dira taldekideak TTIPI-TTAPAREKIN

### R. OSKARIZ

BRT Menditarrak taldeak Errugbiaren gaupasa antolatu du bertze behin, apirilaren 13an Larraintzarren. Baina edizio berezia izanen da aurtengoa, bestaren XX. urteurrena izanen baita. Taldearen egoeraz eta gaupasaren bilakaeraz mintzatu dira Asier Arretxeak *Ankaxuri* eta Markel Adin. Arretxeak 19 urteko ibilbidea du errugbian, eta aurten utzi du taldea lesio baten ondorioz. Adin, berriz, 15 urtekin hasi zen eta nesken entrenatzailea da orain.

### Nola ikusten duzue BRT?

Senior taldea garai onean dagoela erranen genuke, talde gaztea da eta indartsu bezain

gogotsu gaude. Baina beheko kategorietan jendez arras juxtu gabiltza eta ondoko urteetan ez bada inor animatzen, arazoak izanen ditugu senior taldea osatzeko. Taldea osasuntsu egon arren, ezin gara erlaxatu etorkizunera begira, beraz, jakin-mina duena ez dadila probatu gabe gelditu! **Zenbat jokalaririk dituzue guztira?** Osotara 80 jokalaririk inguru izanen gara, modu honetan

«TALDEA INDARTSU DAGO BAINA JENDE GAZTEA BEHAR DUGU»

banatuak: 34 senior, 15 neska, 16 urtez azpiko hamar jokalaririk eta 14 urtez azpiko sei. Azken biak Txingudi Rugbyrekin jokatzen dute, eta elkarrekin entrenatzen dira Baztanen. Errugbi eskola ere badugu, 9-12 urte bitarteko 12 bat jokalarirekin. Erran bezala, arras juxtu ibiliko gara ondoko denboraldietan, beheititik ez baitzaigu lagun aunitzirik etorriko.

«ZORAGARRIA DA AUZOLANA 20 URTEZ BIZIRIK MANTENTZEA»

### Taldeari laguntzeko hain zuzen hasi zineten Errugbiaren gaupasa antolatzen. Noiz sortu zen?

Gaupasa duela 20 urte hasi zen, 2004an. Dirua ateratzeko intentzioarekin egin zen, eta Larraintzarren egitea erabaki zen Baztanen ez baitzegoen gaupasarako ohiturarik. Dannoneren itxiera zela eta, gaupasaren bat egin zen bertan aitzinetik, eta horrek animatu gintuen pausoa ematera. Baztanen ere saiatu ginen garga gardo besta bat egiten, baino ez genituen helburuak bete, ez zuen funtzionatu. Beraz, gaupasarekin aitzinerat segitu genuen eta aurten ere horrela egingen dugu.

### Aunitz aldatu da hasiera hartatik?

Bai, hasmentan zikiro afaria egin eta ondorengo izaten zen, baina pandemia ondoko neurriekin zikiro afaria kendu eta bokata jatea paratu genuen afaletzeko. Gainera, hasieran karpa bat paratzen zen frontoiaren kanpoaldean, gero egitaraua barnean bakarrik paratzea erabaki genuen, eta aurten, berriz ere, kanpoaldea izanen ditugu kontzertuak. Egitarauari dagokionez, azken urteetan arratsaldetik hasien gara partida batzuekin, haurren errugbiarekin, BRT Zirkuarekin... Horrez gain, duela gutti arte ez zegoen erasoaren kontrako protokolorik eta azken urteetan martxan paratu dugu, Ultzamako Udalaren eskutik. Burura etortzen ez zaizkigun bertze hainbat aldaketa izanen dira, beraz, erran daiteke gaupasa dezente aldatu dela.

### Dirua biltzeaz gain, errugbia sustatzeko ere balio du, ez?

Bai, doike! Taldea ekonomikoki aitzinera ateratzeko diru sarrerarik garrantzitsuenak da gaupada eta horretarako egiten da, baina bertze gauza batzuetarako ere aprobetxatzen dugu. Errugbiaren promozioa egiten dugu, taldea haunditzeko eta jende gehiagorengana ailegatzeko. Bertzalde, jendeari gure kirola erakutsi nahi diogu, hau ez dela bertze kirolak bezalakoa;



lagun arteko kirola dela. BRTn, bakoitza bere etxetik etorri arren, betiko lagunak bagina bezala tratatzen diogu elkarri. Gure baloreak erakutsi nahi ditugu: auzolana, indarra eta ohorea. Gaupasa bera ere auzolanean antolatzen dugu.

### XX. urteurrena duzue aurten. Hainbertze edizio egitea espero zenuen?

Ezetz erranen genuke. Urtez urte ibiltzen gara hori antolatzen eta bat-batean konturatu gara hau hogeigarren urteurrena dugula. Zoragarria da ikustea taldean auzolana 20 urtez bizirik mantentzea lortu dugula arazorik gabe, eta horrela izan dadila amaierara arte!

### Lan haundia da antolaketa?

Horrelako besta bat antolatzeak denbora, lana eta buruko min haundia suposatzen du, eta horrenbertze urtez egitea ez da erraza. Jende aunitz behar da lanean modu desinteresatuan dena ongi atera dadin. Klubak erantzukizun haundia dauka edozein gertaeraren aurrean, hortaz, aitzineko lanaz gain, egunean bertan ere adi egon behar dugu inork ez dezan ezbeharririk eragin. Besta hau ongi pasatzeko eta lagunak egiteko antolatzen dugu, hortaz, etortzen direnei gure eskaera urtero-urtero arduraz jokatzea izaten da.

### Zer prestatu duzue aurtengo bestarako?

Taldeak apustu garrantzitsua egin du ekonomikoki, Los Zopilotes Txirriaos taldea ekarriko baitugu. Berrikuntza aldetik ez da deus berri-berri izanen, baina aurten kanpoan eginen dira kontzertuak, ekitaldi berezi bat izanen da eta besta arratsaldetik hasiko da. Tuku-tuku txarangak irekiko du egitaraua, Seven par-

tiduak girotuak egon daitezten. Eskerrak eman nahi dizkiogu Tuku-tukuri, apustu ekonomiko hau tikiagoa egiteagatik. Esker mila!

### Zozketa ere eginen duzue, ezta?

Bai, aurten ere zozketa izanen dugu. Orain arte Eguberrietan egiten genuen, baina duela urte pare bat ikusi genuen gaupasan harrera hobea izaten duela, horregatik erabaki genuen aldatzea. Jendeak erantzun arras ona ematen dio: 10.000 txartel inguru saltzen ditugu eta hori ez da zortea edo kasualitatea. Zozketarekin ere lan haundia izaten dugu, sari potoloak direlako nagusiak, eta bigarrenak ere ez direlako edonolakoak. Baztan eta Ultzamaldeko produktuak jaso eta loteak egiten ditugu; bertako merkataritza bultzatuz kontzientzia pixka bat sortzera bidean.

### Zerbait gehitu nahi duzue?

Jendea hurbiltzera animatu nahi dugu. Ongi pasatu baina beti arduraz jokatu. Gaupasa hau ez da bertzeak bezalako; gaupasa honek balore potoloak ditu eta 1978tik bizirik dirauen talde bat biziarazten du, auzolanetik, errespetutik eta ohoretik. Gaupasan edozein eraso ikusi edo jasaten duen edozeinek izanen du salatze eskubidea, eta aitzinerago argitaratuko ditugu protokoloaren nondik norakoak. Bide batez, erranen dugu ez direla eraso matxista, arrazista eta homofoborik onartuko, ezta inongo eraso motarik ere. Ez badakizue egoten, nahiago dugu zuen etxeetan gelditzen bazarete. Akitzeko, apirilaren 13an ikusiko dugu elkar Larraintzarren, bitartean, informazio ugari izanen duzue gure Instagram eta Twitteen. Gaupasara arte!

## Nekazaritzan bizi den nahasmendua solasgai

Panpi Ste. Marie nekazari eta Euskal Laborarien Batasuneko kideak solasaldia eman zuen martxoaren 21ean Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak antolatutako mintzaldia eta bertan solastatu zutena azaldu du taldeak. Hasteko, «jakin beharra dago baserriarrek NPB (PAC) dirulaguntzaren premia dutela. Izan ere, gizarte kapitalista honetan elikadura merkatuaren menpe dago, eta lehen ez bezala, orain ez dago denetik duen baserriarrek; espezializatu egiten dira, eta diru sarrerak ez dira heltzen».

Hori dela eta, «espezializazioetik aldendu eta planifikatu behar da, beharrak aseko dituen elikadura burujabetzaren aldeko apustua egiteko. NPB dirulaguntzen berrikuspenera egin behar da, despopulazioa gelditzen lagunduko duten neurriekin eta produkzio ekologiko eta eskala tikiokoaren alde».



Arizkunenean izan zen solasaldia.

*Greendeal* delakoa ere izan zuten mintzagai; «gasolioaren dirulaguntzak eskatzeak, eta pestiziden erabileraren murrizketa ezabatzeko eskatzeak, ez du ez hanka ez bururik egungo krisi klimatikoaren testuinguruan».

Kontsumitzaileei, berriz, «kritiko izatea dagokigu. Gosarian erabakitzen dugu zein ildo politikoa hartu: merkearen aldekoa edo osasuntsuagoaren aldekoa».

## Erdizko proiektuaren kontrako sinadura bilketa apirilaren 10era arte

### TTIPI-TTAPA

Alegazioak eskuragarri daude Baztango hainbat komertzio-tan eta digitalki sinatzeko. Epea pasatuta, sinadurak Iruñeratan eraman eta aldarrikapen ekin-tza eginen du bertan Erdiz Bizirik plataformak, eta parte hartzeko deia egin du.

Apirilaren 20an, berriz, Erdiz Bizirik eguna eginen dute Elizondon, egun osoko egitarauarekin. Goizean ekitaldi jendetsua eta *Magnari kaka* zozketa izanen da, ondotik bazkaria, eta arratsalde nahiz gauean besta giroa nagusituko da.

**MARMOLES SOULE**  
www.marmolessoule.com

LAPIDAK  
PANTEOIAK  
HILERRIAK  
ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK  
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
marmolessoule@gmail.com

**OTEIZA**  
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Iruñita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos



Izpegiko lepotik ailegatu zen Korrika Baztanerat. KORRIKA



Umore ederrean sartu ziren korrikalariak Erratzurat. KORRIKA

# Irudi ikusgarriak utzi ditu Korrikak Baztanen

Eskualdeko hainbat herri, elkarte eta erakundek hartu zuten lekukoa 36 kilometroz

## TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean, abiatu berri zela, sartu zen 23. Korrika Baztanerat. Izpegiko lepotik ailegatu zen baigorriarren eskutik, eta eguraldia lagun, gogotsu hartu zuten lekukoa baztandarrek.

36 kilometroz aritu ziren eskualdeko herri, elkarte eta erakundeetako ordezkariak lasterka, eta adin guzietako herritarrak bildu ziren euskararen aldeko ekimenean.

Erratzu, Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzain eta Iruritatik pasatuta, Artesiatatik atera zen AEKko furgoneta

eta irudi ikusgarriak utzi zituen bidean.

Izpegin beheiti zein Artesiatatik goiti, sasoi ederrean daudela erakutsi zuten baztandarrek.

## Ondotik kontzertua

Baztango Korrika batzordeak hainbat ekitaldi antolatu zituen Korrikaren bueltan, eta 15ean izan zen azkena. Lasterka aritu zirenek indarrak hartzeko aukera izan zuten Elizondoko Amezti elkartearen, pintxo poteoa izan baitzuten, eta Bidenabar taldeak kontzertu ederra eman zuen.



Adin guzietako herritarrek eraman zuten lekukoa. KORRIKA



Jendetzak Elizondoko karrikak hartu zituen. KORRIKA



Artesiatatik goiti atera zen Korrika Baztandik. KORRIKA



Iruritan ere herritar andana gehitu zen furgonetaren gibeletik. KORRIKA



Amaiurko eskolako 26 ikasleetatik 24k ikastetxean bazkaltzen dute, eta jangelarako dirua bildu nahi dute gurasoek.

## Amaiur jokoan bitartez ezagutzeko egitasmoa

'Altxor izkutua' *street escape* jokia prestatu dute herriko gurasoek, eskolako jangelari laguntzeko asmoarekin

### R. OSKARIZ AMAIUR

«Herria bertze ikuspuntu batetik ezagutzeko modu bat» eskaintzeko helburuarekin, 'Altxor izkutua' izeneko jokia sortu dute Amaiurko gurasoek. «Elkarrekin momentu dibertigarri bat pasa nahi duen edozein lagun kuadrillari edota sei urtetik goitiko haurrak dituzten familiei» dago zuzendua.

*Escape room* zalea da Naroa Plaza gurasoa; «arras gustukoak ditut, eta momentu komikoak bizi izan ditut lagunekin gelatik ezin ateratzeak ekartzen duen presio horrek eraginda.

Arras interesgarria egiten zait nire buruak nola erreakzionatuko duen ikustea». Zaletasuna horretatik abiatuta erabaki zuten sortzea *street escape* jokia herrian. «Urte osoan jende aunitz pasatzen da Amaiurtik eta hori baliatua nahi genuen bisitariari zerbait ezberdina eskaintzeko. Eta zer hobe, jostetan baino!».

Egitasmoarekin eskolako jangelari laguntzeko dirua bildu nahi dute. Izan ere, «gaur egun Amaiurko eskolak 26 ikasle ditu, eta horietatik 24k bertan bazkaltzen dute. Hortaz, jangela zerbitzuak garran-

tzia haundia dauka eskolan». Azken urteetan, «zorionez, haur kopuru dezente sortu da herrian, baina herri ttikietan hori nahiko ziklikoa izan ohi da. Beraz, kezka dugu hurrengo urteetan haur kopurua beheiti joanen dela eta jangela zerbitzua mantentzeko kuota igo beharko dela».

### Smartphone bat eta ongi pasatzeko gogoia

Horrelako joko bat zerotik prestatzea ez da lan erraza eta buruhauste aunitz izan badiutuzte ere, «gogoz eta ilusioz egina dago, publikoari gustatzeko asmoz. Egia da gaia nahiko argi genuela hasieratik, Amaiurko historiarekin lotu nahi genuelako. Zailtasunik haundiena frogak asmatzea izan da; jokia kalean izanda, frogak finkoak izan behar dute, manipulatu ezin direnak, horrela gibeletik heldu den taldeak jokatzeko prest izanen ditu beti». Gainera, «mota guzietako frogak bilatu nahi

izan ditugu, jokalaria harritu ahal izateko».

Jokoa kanpoan izateak be-reziagoa egiten du; «kasu honetan ez dugu denbora mugaren presioarekin jokatzeko (edo bai! hori talde bakoitzaren erabakia da) eta erritmoa jokalariek jarriko dute». Honez gain, «taldeak *smartphone* bat izatea beharrezkoa izanen da, QR kodeak eskaneatu ahal izateko. Horiak izanen dira jokoaren koadu digitalak».

Azaldu duenez, «jokoaren harreraren laguntzak eta erantzunak dituen QR kodea emanen zaio taldeari. Beraien esku geldituko da noiz eta zenbat laguntza behar duten, horrela, edozeinek izanen du hel-mugara ailegatzeko aukera».

Momentuz jolas orduak Amaiurko arkeologia zentro-museoko ordutegiarekin bat joanen dira, hau da larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta igandetan 11:00etatik 13:00etara. Hala ere, «ordu edo egun horietatik kanpo jostatu nahi bada, email bat bidaltzen ahal-ko da [escape.amaiur@gmail.com](mailto:escape.amaiur@gmail.com) helbidera. Eta ordutegiak behar bezala kudeatzen laguntzeko, helbide horretan erreserba egitea komeni da».

**«JANGELAK GARRANTZIA HAUNDIA DAUKA ESKOLAN»**

**SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU**

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Irubea Irun errepedes, z/g. ORONOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325  
F. (+34) 948 592 295

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA  
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO  
+ 34 948 580 804

# Apirilean ez da aspertzeko astirik izanen Baztanen

Musika, solasaldiak, feriak, jardunaldi bereziak... kultur agenda ekitaldiz gainezka dator hilabete honetan

## TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak apirilako jarduerak bildu ditu agenda kulturaleran.

## Apirileko Feria

Apirilaren 5ean urteroko feria egingen dute Elizondoko Merkaturko plazan goizez. 10:00etan hasita XXIV. Ahari Lehiaketa eta bertako artisau zein ekoizleen feria izanen da, eta 11:00etan txistulariek joko dute. 11:30etik 13:30era haurrendako tailerra izanen da, eta 12:00etan Baztango Dantzari Ttikiek emanaldia egingen dute. 12:15ean urteko ardi gasnaren mozketak ekitaldia izanen da eta 12:30ean bertako produktuek dastatzeko aukera izanen da. Jardunaldia akitzeko, 13:00etan ahari lehiaketako sariak banatuko dituzte.

## Antsietatea kudeatzeko

Apirilaren 10ean, 17an, 24an eta 29an antsietatea kudeatzeko eta ongizate mental eta emozionalari buruzko ikastaroa izanen da, Oihana Zabaletak gidatua, Arizkuneko batzar gelan 17:00etan.

## Azokak Elizondon

Baztango artisaua eta nekazariak Elizondoko plazan izanen dira hilaren 6an, 12an, 20an eta 27an, 10:00etatik 14:00etara.

## 'Mugaldetik lurraldera'

Mugalurren proiektuak saioa egingen du apirilaren 13an Amaiurko Otsondo gelan 10:30ean. Informazio osoa 24. orrian.

## Bailableak Almandozen

Elizondoko Gaiteroek muxikoak, jotak eta larrain dantzak joko dituzte apirilaren 14an 12:30ean Almandozko plazan.

## Pailazoak Elizondon

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Ez gara jaitsiko!* ikuskizuna aurkeztuko dute apirilaren 14an, 11:00etan Baztan pilotalekuan. Txartelak Axularren eta Fantxiken salgai.

## Gamazada solasgai

Josu Chueca historialari eta EHUko irakasle erretiratuak *Gamazada garaiko foruzaletasunaen hasiera?* solasaldia



Hilaren 5ean Apirilako Feria izanen da Merkaturko plazan. ONDIKOL

aurkeztuko du Elizondon. Apirilaren 18an 19:00etan Arizkunenean izanen da.

## Literatura geraldia

Liburuzaleek hitzordua izanen dute hilaren 19an 19:00etan Erratzuko lixutegian, Maddi Ane Txoperenak *Ez erran inori* liburua aurkeztuko baitu.

## Baztan Kantuz Oronozen

Baztan Kantuz ekimena Oronoz-Mugairin izanen da apirilaren 21ean, 12:00etan Urgainen aitzinean.

## Poesia Arizkunenean

Olerkiak gustuko dituztenek, berriz, Gabriel Arestiren kantu eta poemen entzunaldia izanen dute apirilaren 21ean,

## LIBURU AZOKA EGINEN DUTE APIRILAREN 23AN ELIZONDON

Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astitzen eskutik. Arizkunenean 18:00etan izanen da emanaldia.

## Liburuaren Eguna

Apirilaren 23an Libururen Eguna ospatuko da Elizondon eta liburu azoka egingen dute plazan. Liburutegian, berriz, Emagin elkarteak *Ez dadin bizitza eten* liburua aurkeztuko du 18:00etan, Berdintasun Batzordeak antolatua.

## 'Bizkarsoro' filma

Hilaren 26an, berriz, *Bizkarsoro* filma proiektatuko dute Iruritako Gizarte Bilgunean 19:00etan. Emanaldiaren ondotik solasaldia izanen da filma egin duen lantaldeko kide batekin.

## Abesbatzen emanaldia

Elizondoko Abesbatzak eta Gipuzkoako Oskarbi Abesbatzak kontzertua emanen dute apirilaren 27an, 20:30ean Elizondoko elizan.

**BRIKO BAZTAN, SL**  
Drogeria · Garbiketa produktuek  
Ferreteria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
Etab.  
T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBATE  
(Sarrera Legasatik)

**BERA KATEA BIKE**  
Bizikleten salmenta eta konponketa.  
Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
www.kateabike.com  
ORBEA PINARELLO MBITV  
BERGAMONT BH MERIDA

## Udan Saharako haurrak hartzeko familien bila

Saharaztan elkarteak Oporrak bakean egitasmoko kanpaina abiatu du, udan neska-mutiko errefuxiatuak etxean hartuko dituzten familien bila. Interesatuak [saharaztan@hotmail.com](mailto:saharaztan@hotmail.com) korreora idatzi edo 659 55 30 14 telefonora deitzen ahal dute.



Juan Angel Perotxena, Fernando Anbustegi eta Idoia Sobrino. ONDIKOL

## Mural xenda aplikazioa aurkeztu du Baztango Udalak

Jokoaren bidez «herritarrek muralak ikusteko duten modua» aldatu nahi dute

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Mural xenda mugikorrerako aplikazioa aurkeztu du. «Arte urbanoaren eta jendearen arteko zubi gisa» aurkeztu dute ekimena, eta *muralxenda.eus* webgunean dago eskuragarri joko.

Idoia Sobrino eta Juan Angel Perotxenaren arteko elkarrizketa batetik sortu zen ideia, Baztango aberastasun kulturala herritarrei hurbiltzeko asmoz. Abiapuntu horretatik erabaki zuten Perotxenak eta Maria Gaztelupek sortzea tresna, herritarrei irakasteaz gain, parte hartze aktiboa sustatze-

ko. Proiektuaren alde tekniko Baztaneteko Mikel Santestebanek egin du.

Jokoak Baztango muraletako ibilbidea egiten du, eta galderak planteatzen dizkio jokalariai, alderdi teknikoak zein tematikoak lantzen. Galderak zuzen erantzuteko jokalariai muraletik hurbil egon beharko du, beraz, eskualdea esploratzera animatzen ditu jokalariai.

Sortzaileek «aplikazioa eguneratua mantentzeko konpromisoa» hartu dute eta laster QR kodeak dituzten kartelak zabalduko dituzte.



ELA

## Lozy's enpresako langileak Iruñean

Otsailaren 20az geroztik Lekarozko Lozy'seko langileak greban daude, lan hitzarmena eskatzeko. ELAk adierazi duenez, «geroztik, elkarrizketa gutti izan ditu batzordeak enpresarekin, eta ez dira batere emankorrak izan». Hori dela eta, Baztanez gain aldarriak Iruñerat eramatea erabaki dute.



NEREA MORTALENA

## Roxario Karrikaburu zenari omenaldia

Korrikaren harira, Roxario Karrikaburu gogoratu dute Arraiozen. 2015ean lekukoa eraman zuen, 92 urte zituela, «eta adina ez dela oztopo erakutsi zigun». Idatzi polita irakurri zuten, Jose Luis Karrikaburu ere gogoan zutela, eta aureskua dantzatuta oroigarria eman zioten familiari.

**TTikiei entzunez eta behatuz,  
elkarrekin hazi**

**AURREMATRIKULA**  
Apirilaren 10etik 24ra haur eskolan.  
Orduetgia: 09:00-12:00.

**ATE IREKI PERTSONALIZATUAK**  
Hitzordua hartzeko deitu konpromisorik gabe 667 80 83 95 zenbakira.

**BAZTAN UDAL HAUR ESKOLA**  
Amezti 16. 31700 ELIZONDO. NAFARROA.  
haureskola@baztan.eus



EHUko eta Aranzadiko adituek eman zuten ikerketaren berri. MARIFA ETA KORO

## Sorginek ez zutela gure paisaia egin ikasteko solasaldia

EHU eta Aranzadi Zientzia Elkartearen artean egindako ikerketa harrigarria ezagutzeko aukera izan zen martxoaren 16an

### MARIFA ETA KORO

*Zugarramurdiko paisaia ez da sorginkeria*, halako esaldiarekin eskaini zen joan den martxoaren 16an hitzaldi bat eta ondotik lezuko bisita gidatu bat. EHU eta Aranzadiren artean egindako ikerketa bat ezagutzeko aukera izan genuen. Ikerketa egin zutenak gauza harrigarriak atxeman omen zituzten, eta beraiek kontatutakoa, guretzat ere berria izan zen.

Betitik ikasi dugu Uraundiko errekek egin zuela gaur egun ikusten dugun lezea, baina ez

omen zen hala izan. Denbora batean Ainara aldetik erreka bat jausten omen zen, eta duela 50.000 bat urte Atxuritik mendi puska bat erori, eta erreka hori presatu omen zen. Ur presatu horrek, urte aunitzen poderioz, gure gaur egungo lezea zilatu zuen.

Hau frogatzeko, Lezapeko belaian 5 metroko zundaketa bat egin, eta presa eta erreka haien erretoak atxeman dituzte. Atxuritik eroritako lur haren zati bat ere ederki ageri da gaur egun: Lekuberriko-bordan dagoen zelaia da.



Lezearen sorrerari buruz gauza berriak ikasi genituen. MARIFA ETA KORO



KORRIKA

## Korrika lehen eta hondar egunean

Korrikako gure 2 kilometroak arras bereziak izan dira: Korrika hasi zen egunean, hau da, martxoaren 14ko arratsaldean Irundik atera eta 21:00etan Senperen hartu genuen lekukoa. Bigarren kilometroa, berriz, hondar egunean, martxoaren 24an, 06:00etan hartu genuen Baionara bidean.



MARIFA ETA KORO

## Aparkalekua Martineko belaian

Herriko sarreran aparkatzeko bertze toki bat sortu du Herriko Etxeak. Martineko belaian 120 auto sartzeko tokiak egin da, eta ondoko eremua ere alokatu du, behar denean hor ere autoak sartzeko ahal izateko. Azketa jatetxeko aparkalekuan berriz, sarrera moldatu eta brea eman dute.



Jabier Lekuona arkitektoa azalpenak ematen Tomasenea atarian. A. AROTZENA

## Baserriberri proiektua abiatu da Tomasenean

Peio Martikorena Fundazioak sustatutako mugaz gaindiko formakuntza egitasmoa da, baserriak zaharbertitzeko

### ARANTXA ETA IRAIA

Mugaz gaindiko Baserriberri proiektu berria martxoaren 22an aurkeztu zuten kultur etxean. Peio Martikorena Fundazioa da proiektu honen taldeburua, eta Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Programaren (POCTEFA) lehen deialdiaren barrenean finantzatua dago.

Baserriberri zurgintzako mugaz gaindiko prestakuntza sortu nahi du, baserriak zaharbertitzeko, eta, aldi berean, prestakuntzan parte hartzen duten hiru lurraldeetako langabeak gizarteratzen laguntzeko metodologia garatu.

### Tomasenea baserrian

Iñaki Ariztia alkatearen ongi-etorri solasaren ondoren, erakunde laguntzaileetako hainbat ordezkari hartu zuten hitza kultur etxeko aurkezpenean eta gero Dantxarinerara jo zuten. Bertan zaharbertituko den Tomasenea baserria bisitatu zuten, Jabier Lekuona arkitektoaren eskutik. Lekuonak erran zuenez, «baserria zaharbertitu eta harrera, tailerrak eta gisakoak egiteko balioko du. Baserria bizirik mantenduko dute eta bisitari guztien eskura dagoen lekua izanen da».



ARANTXA ETA IRAIA

### Herrikoen kinto bestak

Kinto bestak aitzinerat segitzen dute eta martxoaren 9an Mikelen Bordan ospatu zuten 1949-1953 urteetan sortutako kinto besta. 36 bat lagun bazkari eder baten bueltan elkartu eta egun goxoa pasatu zuten. Hurrengo asteburuan 1947 eta 1948an sortutakoek ere egin zuten besta Azketa jatetxean.



ARANTXA ETA IRAIA

### Gazteen ateraldia sagarnotegira

Sagarnotegien denboraldiarekin batera, ohitura da kuadrilla eta herri anitzetan Gipuzkoako sagarnotegietara ateraldiak egitea. Urdazubiko gazteek ere Urrietako Altuna sagarnotegira ateraldia egin zuten martxoaren 16an. Giro onean ibili ziren 22 gazte eta heldu den urterako prest dira!

**LANDA**  
Haurtzaindegia

**BISITA GIDATUAK**  
Aldez aurretik deitu behar da hitzordua hartzeko

**AURREMATRIKULA**  
Apirilaren 10etik 24ra

**ZATOK GU EZAGUTZERA!**

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49  
info.landa03@gmail.com

**ORDUTEGI ZABALA**  
**FAMILIEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA**  
**URTE OSOAN IREKIA**

Gure ttikien garapena bermatzen dugu, bakoitzaren erritmoa errespetatuz, inguru seguru eta goxo bat eskeiniz.



Familia bat 'Saran Astia' jokoarekin itzulia egiten. UTZITAKOA

## 'Saran Astia' pista jokoa sortu dute ikastolako burasoek

Bi ordu eta erdiko ibilaldia proposatu dute, 12 etapaz eta 24 enigmaz osatua, altxorra bilatzeko

### TTIPI-TTAPA

Olhain ikastolako burasoek eta herrian iragaiten den pista joko bat sortu dute, «gure herriko kultura, historia eta hizkuntza deskubritzeko». Irabaziak ikastolaren funtzionamenduarentzat eta ikasleentzako proiektu pedagogikoak diruztatzeko izanen dira. Proiektu hori duela lau urte hasi zuten eta herriko etxearen laguntzarekin joan den udan estreinatu zuten. «Lehen oharrrak biziki baikorrak dira», jakinarazi dutenez.

2020. urtean Olhain ikastolarentzat diru iturri berriak xerkatzen zituela, buraso talde bat proiektu kultural baten inguruan elkartu zen. Pista jokoa bi urteko lanaren emaitza da, «bertako eta kanpoko jendearentzat pentsatu jokoa». *Saran Astia* (herriaren lema) plaza inguruan egiten den bi ordu eta erdi inguruko ibilaldira. Parte-hartzaileek eskuratuko duten gutun azalean gutun bat, mapa bat, enigma liburuxka bat eta laguntza orri bat aurkituko dituzte. «Hamabi etapaz osatua den ibilaldian 24 enigma eba-

tzi behar dira, bukaerako altxorra aurkitzeko. Gure herriaren historia, kultura eta hizkuntzarekin jolasteko manera ludikoa da», diote burasoek. Jokoa euskaraz, gaztelera, frantsesez eta ingelesez eskuragai da Turismo bulegoan 10 eurotan. Sarako leizeek taldeentzako *pack* berezi bat proposatzen dute.

### Gutun galdua

Gutun galdua Frankismoan ihes egin eta Saran erbesteratu zen aitaxi baten bizia segituz, Sarako herriaren eta Euskal Herriaren historiaren zati bat oroitzeko parada da: Gernikako bonbardaketa, euskal gobernamentuak sortu eta Saran erbesteratu zen Eresoinka taldea, Ameriketara egin migrazioak, XVII. mendeko sorgin ehiza...

Jokoa ikastolako burasoek dute pentsatu eta proiektua lagundu duten pertsona eta instituzioak eskertu nahi dituzte: Herriko Etxea, Sande Thommen bere ilustrazioengatik, Arnaur Araguas artista bere zizel lan bat eskaintzeagatik eta plazako komertsantak.



Lur Berriko biltzarrean, Jean Grane lehendakaria azalpenak ematen. GANEX

## Zangoak Arin elkarteak korrikalari gidariak emendatu beharko ditu

### GANEX SARA

Sarako Zangoak Arin elkarteak egin du bere biltzar nagusia martxoaren 21ean Lur Berri gelan. Jean Grane lehendakariak ongi etorria egin die denei, partikulazki kide berriei. Nola elkarte beti haunditzen ari den, korrikalari gidariak beharko dituela emendatu jakinarazi zuen, eta bukatzeko, urteko heriotza guzientzat pentsaketa izan du. Beatrice Ollier idazkariak erran du urteko aktibitateak ongi pasatu direla eta Xabi Larregle diruzainak, berriz, kontuak positiboan dituztela. Eguna finitzeko Le-



Lezetako ostatuan bazkaldu zuten.

zetako ostatuko gelan bazkaria izan zuten. 70 lagun bazi-zen etorriak Begi Gose sukaldariak prestatuko janari goxoa dastatzera. Dena umore onean bukatu da.

## Beti Gazte elkartearen urteko biltzarra eta bazkaria apirilaren 13an egingen dute

### GANEX SARA

Apirilaren 13an, larunbatez, Beti Gazte elkarteak antolatu du bere biltzar nagusia eta ondotik bazkaria, Lur Berri gelan 12:30ean, honako menuarekin: aperitifa, eltzekaria, legatza saltsa berdean, idikia saltsan, gasna erreximentarekin, pastiza, arno beltz eta gorri, kafea ondokoarekin. Prezioa 27 eurokoa da eta karta 8 euro, denetara 35 euro. Horretarako behar duzue zuen izena eman apirilaren 9a aitzin deituz Jeannot (05 59 54 21 34), Maite (06 31 62 90 66) edo



Erretretatuak tripotx bazkarian.

Anita (06 28 28 08 24). Erretretatu guziak gomit dira, egun goxo bat pasatzeko denak elgarrekin. Tote ere horizanen da arratsalde hori airosteko kantu eta dantza batzuekin.





Herriko hiru eskoletako ikasleak atera ziren Korrika Ttikian. JL BESSONART

## Handi nahiz ttiki, Korrikarekin bat egin dute herritarrek

Lehen egunean eta hondarrekoan iragan da Korrika nagusia eta ttikiena martxoaren 21ean egin zuten

### JL BESSONART

Martxoaren 14an, ziztu bizian zeharkatu du karrika. Harri-garria eta hunkigarria izan da, sekulako jendetza giro alai batean kantuz eta irriz, denak lorietan. Herriko azken korrikalariek, Kattalin Elizalde kolegioan ospatu dute ekitaldia, pintxo-pote baten inguruan. Bigarren pasatzea iragan da martxoaren 24an, goizean goizik, hemen ere, uste baino gehiago parte hartu dute.

### Korrika Ttiki

Hiru eskolek ere parte hartu dute Korrika ttikian, martxoaren



Korrika Baionarako bidean.

ren 21ean goizarekin. Karrika nagusia zeharkaturik, korrikalari ttikiak Olhako biribilgunean itzuli dira pilota plaza-raino. Herriko etxeak eskaini gosaria partekatua izan da.

## Ekitaldi eskaintza zabala izanen dute apirilean Larreko kulturgunean

**Apirilaren 6an** (20:30), Mainer Cigarroa kontzertuan. Senperterak honek, bere ibilbide guztia musika eta kantuari itzulia du, Hiru-Soinu taldearekin hasi eta gaur, aldiz, Gurashow taldearekin agertzen da. **Apirilaren 7an** (17:00), *Le repas des Fauves* antzerkia.

1942an, Frantzia okupatuan iragaiten den gertakari bat aipatzen du. **Apirilaren 12an** (20:30), Régis Mailhot umorista, ongi ezaguna Frantziako telebistan. Kultur Topaketan Garaian ere sartzen gara **apirilaren 6tik 19ra**. Egitaraua herriko etxeko webgunean.



JL BESSONART

## Poesiaren udaberria

Hiru ekitaldi iragarriak ziren martxoan. 12an, poema irakurketa Mediatekan. 16an, Larreko, Arretxea kolegioko *Slam* ikusgarria, Rina eta Ortzok animaturik. Izabel Aguirresabore ipuin kontalariak hilaren 14an Mediatekan saio berezia eskaini du euskaraz, 30 haurren aitzinean.



JL BESSONART

## Go!azen ikusgarri solidario bikaina

Larreko mukurru bete, martxoaren 17an, *Go!azen* telesaileko aktoreek saio ederra eskaini zuten. Zaldubi Ikastolak antolaturiko kontzertuak ongi bete du bere helburua, Syndrome PACSI elkarteari dirulaguntza ekartzea. Eritasun honek hunkitzen duen Nahia Laurencena eta familiak ongi estimatu dute ekimena.





Martxoaren 15ean egin zuten aurkezpen ekitaldia. AMAIA IPARRAGIRRE

## Aurrerako txirrindulari taldea aurkeztu dute

Hemezortzi gaztek eta master mailan konpetitzen duten hiru txirrindularik osatzen dute gaur egun taldea. Helburua «gazteak kirol jarduera osasuntsu batera bideratzea» dela azaldu dute arduradunek eta bi gurpilen gainean, «disfrutatzen ikustea».

### ENERITZ IRAOLA LEITZA

Pedalei gogor eraginez dabil-tza aurten ere Aurrera Kirol Elkarteko txirrindulariak. 2022an sortu zuten taldea, «txirrindularitza munduan hasi nahi zuten gazte batzuk elkartu zirenean». Txirrindularitzan aritzeko, «ilusio eta gogo izugarria» zuten gaztetxo horiek, baina aurrera egiteko hori ez zen aski: «probetan parte hartzeko klub baten babesa behar zuten eta lizentziak egiteko laguntza». Aurrera Kirol Elkartean apustua egin eta txirrindulari taldea sortzea erabaki zuten.

### Taldea handituz

Bost txirrindulari ziren hasiera hartan eta denbora gutxian nabarmen igo da kopurua: «hemezortzi gaztek eta master mailan konpetitzen duten hiru

txirrindularik osatzen dute gaur egun taldea». Martxoaren 13an egin zuten Leitzako udal-txean aurtengo taldekideen aurkezpena: «eskolartekoan lau txirrindulari, kadete mailan bederatzia, junior mailan bost eta master mailan hiru ari dira». Taldeak urte gutxian izan duen eboluzioarekin oso gustura daude arduradunak: «jaso dugun erantzuna ezin hobea da. Gainera, inguruko herri eta bailaretatik ere, jendea animatu eta gehitu zaigu». Hori lortzeko, «taldekideen gogoia eta ilusioa» nabarmendu dituzte: «beraiek txirrindularitzan jarduteko duten gogoia ikusita, inguruko gazteak ere kirol honetara erakarri dituzte». Bada, ordea, zer landua: «neska gehiago nahi genituzke taldean. Gutxienez, proba dezatela. Momentuz,

Arhane da taldean ari den neska bakarra».

Taldea antolatzeko ez dago formula sekreturik: «bakoitzak beretik eman eta denbora inbertituz, ahal dugun bezala antolatzen gara». Funtsezkoa den laguntza ere badute: «tekniko laguntzaileak ditugu kategoriatan, tituludun zuzendari berria ere badugu eta UCI tituludun zuzendari berria ere bai». Balia-bide materialak ere lortu dituzte: «auto xahar bat badaukagu eta gazteei laguntza tekniko emateko materiala ere lortu dugu: gurpilak, bidoiak, gurpilak haizatzeko gailua...». Aurten, pauso bat gehiago eman eta babeslea ere lortu dute: «honek eman digu bultzada handiena, ilusionatu egin gaitu, baita gazteei ere».

Taldekide gehienak, errepedean dabilta, baina badira mendian edota bietan dabil-tzanak ere. Normalean bakoitzak bere aldetik entrenatzen duela azaldu dute: «ez da beste kirolekin bezain erraza taldea elkartzea. Adin desberdinak dituzte, ikasketak, herri desberdinetakoak dira... dena den, saiatzen gara ahal den neurrian talde-lan hori egiten, batik bat negu partean. Taldeko entrenamenduak edo irteerak antolatzen ditugu».

### Etorkizuna

Maila txukuna dauka taldeak: «proba garrantzitsuetan parte hartzen dugu, batik bat Euskal Herriko errepedean gabilta: Gipuzkoako Itzulian, Iruñerriko Itzulian... eta proba mordo batean». Erronka garrantzitsuena «gazteak disfrutatzen ikustea da». Ez diote beraien buruari helburu edo erronka finkorik jarri: «taldea mantentzea lortu eta kirol osasuntsu batean aritzea aukera eskaini nahi dugu». Eta kilometroz kilometro, bizitzan aurrera egiteko bitartekoak eman: «jakina delako kirolean lantzen diren baloreak, etorkizunean norberaren bizitzan baliagarriak izaten direla».



# AGENDA

## APIRILAK 4 - 18

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ZAKURTXOKOA.COM

### LEITZA Txakurraren izaeraren oinarriak eta portaeraren eraldaketa

Erakusketa. Apirilaren 25ean hitzaldia Mikel Balentziaga hezitzailearekin 19:30ean. Udaletxeko batzar aretoan, apirilaren 15etik 25era.

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA Zinema

Herri Aretoan, apirilaren 6an eta 7an. 17:00etan 'Migrazioak' eta 19:30ean 'Tratamos demasiado bien a las mujeres'.

#### 'Together to get there' dantza ikuskizuna

Akira Yosida eta Lali Aiguaderekin.

Herri Aretoan, apirilaren 14an, 19:00etan.

#### SENPERE 'Le repas des Fauves' antzezlana

Larrekon, apirilaren 7an, 17:00etan.

#### Régis Mailhoten bakarrizketa

Larrekon, apirilaren 12an, 20:30ean.

#### IGANTZI 'Bizkarsoro' filma

Baratzondon, apirilaren 12an, 19:00etan.

#### BERA

'212 mountains' dokumentala  
Kultur Etxean, apirilaren 13an, 19:00etan.

#### ELIZONDO

'Pirritx, Porrotx eta Marimotots'

Baztan pilotalekuan, apirilaren 14an, 11:00etan.

### MUSIKA

#### BERA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Kultur Etxean, apirilaren 5ean, 19:30ean.

#### SENPERE

Maide Cigarroa

Larrekon, apirilaren 6an, 20:30ean.

#### ALMANDOZ

Bailableak

Elizondoko Gaiteroekin.  
Plazan, apirilaren 14an, 12:30ean.

### AZOKAK

#### ELIZONDO

Udaberriko feria

Merkatuko plazan, apirilaren 5ean, goizez.

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, apirilaren 6an eta 12an, 10:00etatik 14:00etara.

#### BERA

Berako Ekoizleen Merkatua

Beralandetan, apirilaren 13an, 10:30etik 13:30era.

### SOLASALDIAK

#### AMAIUR

'Mugaldetik lurraldera'

Otsondo gelan, apirilaren 13an, 10:30ean.

#### LEITZA

Ama Dablam-6812 M

Juan Mari Maritorea.  
Herri Aretoan, apirilaren 18an, 19:00etan.

### 'Magaletik Amalurrera' aurkezpena

Irati Andoño eta Erkiz Miguez.  
Herri Aretoan, apirilaren 17an, 17:00etan. Izen bereko erakusketa apirilaren 9tik 12ra, 09:30etik 11:00etara eta 17:00etatik 19:30era.

#### ELIZONDO

'Gamazada, garaiko foruzaletasunaren hasiera?'

Josu Chueca.

Arizkunenean, apirilaren 18an, 19:00etan.

### JARDUNALDIAK

#### SENPERE

Kultur Topaketan Garaia

Apirilaren 6tik 19ra.

#### LESAKA

Tanturumairu ikastolaren 50. urteurrena

Apirilaren 13an.

#### LEITZA

Palestinaren aldeko erresistentzia jaialdia

Atekabeltzen, apirilaren 13an.

### KIROLAK

#### LEITZA

Herri Krosa

Apirilaren 13an, 16:30ean.

#### DONEZTEBE

Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa

Ezkurra pilotalekuan, apirilaren 14an, 11:30ean.

#### BERA

Berako Mendi Maratoi Erdia eta Gazte Trail

Apirilaren 14an.

## «Korrikaren igarotzea emozioen bonbardaketa bat izan da»

ANE TABERNA ETXEBERRIA GOIZUETAKO KORRIKA BATZORDEA



KORRIKA

Emakume goizuetarra da Ane Taberna Etxeberria, eta azaldu duenez, «segur aski pertsona bakoitzak, daukadan harremanaren arabera, modu batean edo bestean deskribatuko nau».

Hala ere, argi ditu bere zaleztasunak; «arrunt gustukoa dut maite dudan jendearekin denbora igarotzea, plana edozein dela ere. Hizketa luzeen zalea naiz, eta mendiarekin eta naturarekin zerikusia duten planak gustuko ditut: mendian ibiltzea, eskiatzea... Oso irakurzalea naiz, eta asko gozatzten dut euskal kulturarekin lotutako emanaldiekin: kontzertuak, antzerkiak, bertso-larritza... orokorrean bizitza gozatzea gustatzen zait, lasaitasunaren eta planak egitearen arteko oreka bilatuz».

Milaka euskaldunek beazala, Korrikan parte hartu du

aurten, baina lasterka ez ezik, furgonetaren gainean ere izan da.

### Ekimen indartsua

«Magia, ilusioa, emozioa, aldarrikapena, indar metaketa, festa...» horrelaxe deskribatu du Tabernak Korrika. «Momentu honetan Euskal Herrian indartsuen sumatzen dudana ekimena da. Gure desberdintasunak desberdintasun, euskaraz bizi nahi izanak batzen gaitu egun hauetan, eta zoragarria da hori ikustea».

Txikitatik parte hartu izan du lasterketan, «eta oroitzapen ederrak dauzkat».

Gainera, aurten Goizuetatik pasatu da 15 urteren ondotik, «eta izugarri gogotsu hartu dugu. Ibilbidea zabaldu bezain pronto ikusi zen jendearen ilusioa. Nahiz eta Euskal Herriko beste txokoetan parte hartu, ez da berdina zure herritik pasatzean sortzen duen zirrara. Gogo eta ilusio hori lanerako garaian ere nabaritu da».

### Mingaina bizi

Hori gutxi balitz, furgonetaren gainean herrikideak animatzen joateko aukera izan du aurten. «AEKko arduradunek eskaini ziguten aukera eta nire lagun Maider eta biok animatu ginen, gure hitz jarioarekin bikote ona osatuko genuelakoan. Beti pentsatu izan dut noizbait egiten nuela, eta ez dago aukera hoberik herritik igarotzean baino. Aprobetxatu beharra genuen».

Esperientzia «sekulakoa» izan zen, «Korrika beste perspektiba batetik ikusteko aukera eman zigun: urduritasuna, ilusioa, poza... emozioen bonbardaketa bat izan zen». Bide guztian zehar «jende multzo haundia ikusten zen furgonetaren atzetik lasterka eta herrira sartu ginenean oilo pikorra jarri zitzaigun; mozo-erroek egindako harrera, bazterretik txaloka zebilen jende guztia, kale nagusia goitik behera betea ikustea, suhiltzaileen sirenen zalaparta...».

Gainera, «herriko kilometro guztiak ikusteko aukeraz gain, furgonetatik jaitsi eta lekukoa hartzeko parada ere izan nuen. Opari bat izan zen, eta izugarri hunkituak bukatu genuen».

Herritarren artean ere «zoriontasun kolektibo bat sumatzen zen egun horretan, mugimendua handia zegoen eta adin guzietako jendea ibili zen korrika. Plazer bat izan zen kilometro kilometro beraiek animatzeko aukera izatea».

Izan ere, «garrantzitsua da korrikalariak motibatuak izatea. Lasterka ibiltzea ez da denen eguneroko jarduna, eta animoak eskertzen direla esanenuke. Gainera, animo horiekin gogorarazten dugu zertara ateratu garen egun horretan kalera».

### Belaunaldiz belaunaldi

Egun hauek bereziak dira Tabernarentzat, «euskara ez baita hizkuntza bat bakarrik. Munduan egoteko eta bizitzeko modu bat da, gure ardatza. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa izugarri inportanteak dira niretzat».

Goizuetan ere «euskara eta euskal kultura belaunaldiz belaunaldi igarotzea ez da erronka bat edo ahalegin berezi bat izan, hori izan da berezkoa eta naturala. Askotan badirudi euskaldunak espezie berezi batekoak garela, eguneroko borrokan ibiltzen garenak gure hizkuntza eta kultura bizirik mantentzeko. Eta bai, borroka asko dugu oraindik egiteko eta asko dugu lortzeko, baina badaude herriak euskaraz bizi direnak. Horiek ere existitzen dira».

Azkenik, «herriko Korrika batzordeari eta herritarrei aipamen berezi bat egin behar zaiela uste dut. Batzordean jende pila batek hartu dugu parte eta lan handia egin du jendeak. Horrez gain, izugarria izan da herritarren harrera eta parte hartzea antolakuntzan, Korrika kulturaleko ekintzetan, kilometroak erosten, bazterretik txaloka eta animoak ematen... horrelakoa da desio dudana Euska Herria!».

«FURGONETATIK  
BESTE  
PERSPEKTIBA  
BAT IKUSTEN DA»

«BADAUDE  
HERRIAK  
EUSKARAZ BIZI  
DIRENAK»

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### LANA

#### ESKARIAK

Pertsona bat garbiketari, adinekoak zaintzen, lorezaintzan edo pintura lanak egiten ariko litzateke. Beran bizi da. Lanean segidan hasteko prest. ☎624 74 31 57.

Emakume bat lan bila: adinekoak zaintzen ariko litzateke, baita interna moduan ere. ☎666 19 96 14.

#### ESKAINTZAK

**DONIBANE LOHIZUNEKO** merkaturan hegazti saltzailea behar dute, urtean 28 ordu. Goizez bakarrik aritzeko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. ☎(0033) 673 91 54 59.

**LESAKA.** Atxaspi Hotelean pertsona bat behar dute, harrerarako eta garbiketari lanak egiteko. Bidali CVa [hoteles@atxaspi.com](mailto:hoteles@atxaspi.com) edo deitu. ☎673 33 99 20.

**IGANTZI.** Irrisarri Landen martxotik abuztura ontzi garbitzaile aritzeko langile bila. 32 orduko lanaldia eta astegunez (asteleheneretik ostiralera). Gida baimena izatea eta % 33ko desgaitasun ziurtagiria izatea baloratuko da. [rrhh@irrisarri.com](mailto:rrhh@irrisarri.com). ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

**DONEZTEBE.** Ameztia ostatuan aritzeko zerbitzaria behar da. Esperientzia izatea eta euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎948 45 00 28.

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatekxan sukaldari harraskan edo fregaderan aritzeko pertsona behar dute, 13:00etatik 15:00etara. ☎948 59 90 09 / 948 59 91 46.

**BERA.** Garbigan banatzailea behar dute. Lanpostu finkoa, asteleheneretik ortziralera, 07:00etatik 15:00etara. Bidali curriculum [goxo@goxo.biz](mailto:goxo@goxo.biz) helbidera edo deitu telefonoz informazio gehiago eskatzeko. ☎948 63 01 00.

**DANTXARINEA.** Mikelenborda jatekxan asteburuetarako langileak behar dituzte. 10:00etatik 17:00etara aritzeko. ☎690 38 81 34 / 948 59 90 45.

**SUNBILLA.** Ariztigain kanpinean lanaldi osoan aritzeko sukaldari laguntzailea behar dute. Inguruko izatea eta kotxea izatea beharrezkoa da. ☎636 48 83 00 edo 660 79 82 49.

**IBARDIN.** Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute, 12:00etatik 16:00etara lanean aritzeko. Frantses jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculum [bentagorria@hotmail.com](mailto:bentagorria@hotmail.com) helbidera edo telefono honetara. ☎618 00 27 31.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

### ZERBITZUAK

#### DENETARIK



Baratzeko lurrari edo beste edozein lurri buelta emateko lanak egiten dira motokultorarekin. ☎650 39 03 94.

#### DENETARIK

#### SALEROSKETAK

Logela osoa salgai. Bi ohatze, ar-mairu bat, mesanotxea, eta komoda batez osatuta dago. Egoera onean. ☎659 76 43 75.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,36 €
- 1.koa 5,24 €
- 2.koa 5,12 €

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,47 €
- 1.koa 5,33 €
- 2.koa 5,22 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,46/5,56 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

#### ZERRI-AZIENDAK

- Zerrikumea (19 kilo): 94 €
- Zerri gizona 1,800 €
- Zerramak 0,950€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

Belar fardoak salgai Belarra fardo txikitari salgai. ☎618 96 27 74.

#### GALDU-AURKITUAK



**LESAKA.** Xagu liburu dendaren inguruan bizikleta agertu da. Idatzi Whatsappez. ☎696 02 53 12.

Martxoaren 3an Saioa menditik jais-ten ari zela mugikorra galdu dute. [markosarasua@gmail.com](mailto:markosarasua@gmail.com).



**LESAKA.** Giltza hau aurkitu dute. ☎948 63 54 58 / 744 48 43 61.



**BERA.** Giltza hauek agertu dira Toki Ona institutuko patioan. Berako Herriko Etxera eraman dituzte.

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO

Oilarrak oparitzeko. ☎690 15 46 44.


### MOTORRAK

#### TAILERRAK

**SANTESTEBAN  
TAILERRAK**

**RENAULT KANGOO  
1.5 DCI - 75 CV**  
Itxia - Bi plaza | 2020 | 65.300 km  
10.165 € + BEZ  
[www.talloreasantesteban.com](http://www.talloreasantesteban.com)  
DONEZTEBE - T. 948 450 282  
[info@talloreasantesteban.com](mailto:info@talloreasantesteban.com)


## URTEBETETZEAK



Arantzako **Aiert Baleztana Goñik** 9 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak eta aunitz urtez etxekoan partetik.



Erdi beratar erdi aranztar **Manex eta Mattin Goñi Errandoneak** urteak bete dituzte martxoaren 29an eta 30ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partez.



Narbarteko **Iraia Martin Argainek** martxoaren 24an 12 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez amatxoaren eta bereziki Juneren partez. Muxu pila bat!



**Xuban Arregi Mutuberriak** martxoaren 19an 9 urte bete ditu. Zorionak Leitzako eta Goizuetako zure familiaren partetik eta bereziki zure anaia Oianen, eta Oinatz eta Zuhaitz zure lehengusuen partetik.

## SORTZEAK

- **Ines Etxegarai**, Sarakoa, otsailaren 29an.
- **Vega Velez Llanas**, Sarakoa, martxoaren 4an.

**Zergatik gu?**

- Herentzia kontuetan **esperientzia dugulako.**
- Kontu hauetan espezialistak diren **profesionalak ditugulako.**
- Gure bulegoen bidez, izapide errazak eginez, **oinorde-tza arazo horiek konpondu ditzakezulako.** Hasieratik argituz oinordekoak zeintzuk izanen diren; herentzia onartzeko eta eskuratzeko tramiteak eginez; eta, azkenik, oinordeko batek dagokion zatia saldu nahi baldin badu, bere zatia eskudiruz bihurtzen lagunduz.
- **Bertze bulego batzuekin** (notarioak, abokatuak, gestoriak...) **lankidetzak hitzarmenak sinatuta ditugulako** Espainia/Frantzia osoan. Tramiteak arinduz eta agindutako gaiei konponbide azkarragoa eta arinagoa emanez.

Azken batean, esku artean duzun aferan laguntzeko seriotasuna, fidagarritasuna eta informazio zehatza eskainiko dizugulako.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)

**KULTURKARI**  
 Diseinu grafiko | Publizitatea  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

## Eskola AGENDAK 2024-25

A5  
 Plastikozko tapak  
 Azala koloretan  
 Espiralarekin

**Barruan:**  
 Orrialde pertsonalizatuak  
 - 4 koloretan  
 - 24 zuri-beltzean  
 88 orrialde agenda  
 astea bistan

**Eskatu aurrekontua!**

HILBERRIAK

- **Marie Paula Delpesch**, Sarakoa, otsailaren 28an, 84 urte zituela.
- **Maria Pilar Arraiago Hernandorena**, Aresokoa, martxoaren 14an.
- **Victoriano Txoperena Zozaia**, Igantzikoa, martxoaren 16an, 90 urte zituela.
- **Jabier Aranburu Aldabe**, Arantzakoa, martxoaren 17an, 71 urte zituela.
- **Santiago Danboriena Olazar**, Iruritakoa, martxoaren 17an, 82 urte zituela.
- **Manuel Ganboa Arretxea**, Elgorriagakoa, martxoaren 19an, 87 urte zituela.
- **Mariano Trancho Arguello**, Elizondokoa, martxoaren 19an, 92 urte zituela.
- **Malen Urrutia Barrenetxe**, Zugarramurdikoa, martxoaren 21ean, 86 urte zituela.
- **Manuel Irigoien Prieto**, Elizondokoa, martxoaren 24an, 81 urte zituela.

# Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduek aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea  
www.kulturkari.com  
Tel. 948 63 54 58

URTEURRENA

**Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA**



2002ko apirilaren 2an  
XXII. urteurrena

*Udaberriak bizia ekarriz  
zure askatasun modua gogoratzen du  
zure ametsak buruan izanik  
zure indarra gure egiten dugu.*

ZURE FAMILIA



**BAZTAN BIDASOA**  
Ehoretza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERA n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBE n Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*

# IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



**IZARRA**  
HERRI, ZURE ONDOAN  
ANIMA NOLANDO




TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure burra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)




# HITZ GEZIDUNAK

	Lar eman, luperatu	◆ Izena	Arria	Varsoviako herritar	Eguzkia
	◆ Deltara	Begitari	Ugatza		Zorra
				Euskaltzi sarsa	
				Lehenengo letra	
	Gomutagari				
	Ardien zaintzailea				
Epemaren ama	Emakume izena			Begirada	
Guztiz berezia	Non atzizkia			PL, baratzeko landarea	
			Trebea, abila		Urteko 6. hilabetea
			Naska		
Aditua				55	Bokala
Ez ama				Indi geometriko	Zakorra
	Ghorezko hitz ematea		Luma irasitzaileko tresnak		
	Modurik		Bokalik gabeko zeta		
Suari dafona		Luzanga			
Irabiatutako esne gaitza		Neena			
			Gozoki mota		
			Argona		
Moldea, era			Errepublikaz, gorotza		Audientzia Nazionalea
Baratzeko landarea			Kontzertua		Bokala
		Nahi biza			Bokala

◆ Gure lurraldeko itzultzailea, leiztarra

## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gubxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Itzaintza, baina iparraldeko gure haurrideek erraten duten gisara.
- [2] Gure lurraldeko udalerria, Bortzirietan.
- [3] ... izan, gaitzitu.
- [4] Eritasun, gaixotasun.
- [5] Baztango herria.
- [6] ... izan, gauza izan.
- [7] Labore mota.
- [8] Pasa, iragan.
- [9] Ezkertiarren gustuko kolorea.
- [10] Bidalia.
- [11] Nafarroa Behereko udalerria, Baigorri-Ortzaizen.

## ERANTZUNAK



ITZAINBO  
IGANTZI  
GAITZI  
GAI  
ZIGA  
GARI  
IGARO  
GORRIA  
IGORRIA  
BAIGORRI

# PLAZAN BAZAN

## ERNE!

Sari gehiagorekin gatoz!

### HITZ EZKUTUAK

S	N	B	U	C	P
E	A	I	X	S	O
S	J	G	A	I	K
U	P	R	U	R	B
A	I	O	R	A	E
A	O	U	A	T	A



HARA!  
NIRETZAT, BERRIZ,  
K [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]  
DA



AIZU, BA  
NIRETZAT TRIKUA  
S [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]  
DA



K	U	N	B	I	A
I	A	I	R	O	S
T	R	I	Z	U	K
U	P	I	K	A	L
A	N	T	I	N	E
A	S	T	A	O	A



MARIPURTZIL

PELLOZIRI

Zer diote gure neska-mutilek?  
Hitz bana falta zaie, ezta?  
Begiratu bakoitzak ondoan  
duen taulari eta zoaz laukiz  
lauki geziek agintzen dizuten  
moduan. Abiapuntua bi  
kasuetan, nabarmenduta  
dagoen koadrotxoak duzu.  
Jakin ezazu trikuari deitzeko  
moduz ari direla biak.

### ALDEA DAGO

Aurki itzazu bi irudien arteko 10 aldeak.



Marmozak: Garbale Ubeda (Aurri)

### Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,  
Ttipi-Ttapa-ko Whatsapera: (0034) 774 48 43 61  
zure izen-abizenak jarrita.  
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!


Laguntzailea:

ibaizabal



## MEZU GORDEA


Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.



BAI POLITA  
HITZ HORI!

## SUDOKUA

Zure eguneroko hizkeran, zer dira bi lagunok, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan URDEAK dira eta hitz horren parte diren sei letrak beharko dituzu zuriguneak osatzeko (U, R, D, E, A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



	D	A	E	K	
		E	A		
E				D	A
K	A				R
		K	R		
	E	R	D	U	

## INTERNETEN ERE BAI!



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

<http://plazanbazan.eus/>

**Ttipi Txartela**arekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

**850** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Gurutze Azkarate Iantzi | ZUGARRAMURDI  
Onddo ta punto - Kamiseta bat  
M<sup>o</sup> Asuncion Sanzberro Irisarri | ETXALAR  
Hara bi - Kamiseta bat  
Elixabete Telletxea | BEINTZA-LABAIEN  
BKZ Abentura - Sarrera bat  
Miren Egües Perotxena | LESAKA  
Salting Iruñea - Bi sarrera  
Miriam Barberena Ibarra | ZIGA  
La Rhune - Sarrera bat  
Itziar Elizainzin Oharri | GARTZAIN  
Mendukilo - Bi sarrera  
Juan Sein Sein | IRUN  
Anikote - Bestcycling saioa  
Aranitza Gogorza Oronoz | LEITZA  
Katxiporreta - Hiru liburu eta hiru CD  
Elo Ormazabal Arregi | ZUBIETA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariumos.com



Bi sarrera

**BUATXABAL**  
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

**EZKEXA**  
www.ezkexa.com



Poltsa bat

**IRRISARRI LAND**  
www.irisarriand.com



Sarrera bat

**BIOK**  
www.yestabiok.com



Bi lagunentzako bazkari berezia

**MUGARKI**  
www.mugarki.com/ku



Sarrera bikoitza

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**  
www.turismozagarramurdi.com



Sarrera bat

**MARTIKO**  
www.martiko.com



Lote bat

**Sartu**

[ttipi.eus/ttipi-txartela](http://ttipi.eus/ttipi-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttipe Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

**MUSIKA**

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari  
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen  
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun  
deskontuak oroitaraziz!

**baga-biga**  
www.baga-biga.eus